




XII. IDAZLAN KOADERNOA

DBH / batxilergoa
2013

GERNIKA-LUMO

gernika-lumoko
euskara zerbitzua



GERNIKA
LUMO



XII. IDAZLAN KOADERNOA

DBH / Batxillergoa 2013

GERNIKA-LUMO

Argitaratzailea:

- Gernika-Lumoko Euskara Zerbitzua eta Hezkuntza Saila

Laguntzaileak:

- Barrutialde Institutua.
- Gernika-Lumoko Institutua.
- Mertzede Ikastetxea.
- San Fidel Ikastola.
- Seber Altube Ikastola.
- HHI Gernika-Lumo.

Azalaren egilea:

- Yan Dong (DBH 3. mailako ikaslea)

Babesleak:

- Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila (HPS)
- Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saila (Euskera Zuzendaritza)

Inprimaketa:

- Graficas Lizaso SL

2013ko edizioa.

AURKIBIDEA

IZENA	MAILA	IDAZLANA	Or.
Ariane Maruri	DBH 1. maila	<i>“Errege eguneko opila”</i>	5
Jon Santa Maria	DBH 1. maila	<i>“Sus basurdea”</i>	7
Mikel Andoni Mingo	DBH 1. maila	<i>“Xabierren abenturak”</i>	10
Naia Barandiaran Mandaluniz	DBH 1. maila	<i>“Nire egunerokoa”</i>	13
Alize Olazar Intxausti	DBH 2. maila	<i>“Nire bizitzaren aldaketa”</i>	16
Maite Sarrionandia Juaristi	DBH 2. maila	<i>“Urteak igaro ahala”</i>	20
Samuel Nita	DBH 2. maila	<i>“Bernarden bizitzaren istorioa”</i>	22
Ane Olaeta	DBH 2. maila	<i>“Bizitza noraezean”</i>	25
Elena Unceta-Barrenetxea	DBH 2. maila	<i>“Zoriontasuna: bi zentinotan kiloa”</i>	29
Laiene Ojinaga Ereño	DBH 2. maila	<i>“Nire bizitzako gora-beherak”</i>	32
Irantzu Barandika	DBH 3. maila	<i>“Bai, benetan berezia da!”</i>	37
Amaia Lauzirika	DBH 3. maila	<i>“Begiradek garrantzi handia duten munduan...”</i>	40
Asier Gordo Badiola	DBH 3. maila	<i>“Ametsak amets?”</i>	45
Iker Urlezaga Arazosa	DBH 3. maila	<i>“Lo-kuluxka momentu onean”</i>	49
Katalin Ibarzabal Galarza	DBH 4. maila	<i>“Kristalaren bestaldetik”</i>	53
Lurdes Ondaro	DBH 4. maila	<i>“Botetako sugandilak”</i>	56
Malen Akordagoitia Madariaga	BDH 4. maila	<i>“Orain alditik iraganera”</i>	59
Sara Herault	DBH 4. maila	<i>“Amamaren maitalea”</i>	61
Ane Iturriarte eta Alain Agirre	DBH 4. maila	<i>“Egunon printzesa”</i>	64
Irati Omagogeaskoetxea	DBH 4. maila	<i>“Sasi guztien gainetik”</i>	68
Nerea Arejita	DBH 4. maila	<i>“Biolontxeloaren arima”</i>	71
Edurne Bilbao Aldamizetxebarria	DBH 4. maila	<i>“Arrosak eta labanak”</i>	74
Aloña Aldamizetxebarria	BATX. 1. maila	<i>“Ametsa; ilusioa”</i>	78
Ania Arrien	BATX. 1. maila	<i>“Oroitzapenak”</i>	82
Nile Petralanda	BATX. 1. maila	<i>“Haji”</i>	85
Goretti Zarrabe	BATX. 2. maila	<i>“Eskerrik asko amona”</i>	90
Ane del Palacio Totorikaguena	BATX. 2. maila	<i>“Aitonaren kontu zaharrak”</i>	93
Ane Miren Arejita Abaitua	BATX. 2. maila	<i>“Hurtzaro galduaren bila”</i>	98
Bihotza Uberuaga	BATX. 2. maila	<i>“Hitzak nonahi”</i>	102
Maialen Basterretxea Zubia	BATX. 2. maila	<i>“Kaixo eta agur”</i>	105
Sara Abaunza Urionabarrenetxea	BATX. 2. maila	<i>“Ametsen bila”</i>	108
Zihara Jainaga Larrinaga	BATX. 2. maila	<i>“Bizi nahian”</i>	112
Marian Amutxastegi Gabiola	HHI/EPA	<i>“Nire senarraren omenez”</i>	114

XII. IDAZLAN KOADERNOA

DBH / Batxillergoa 2013

GERNIKA-LUMO



Ariane Maruri
DBH 1. maila

“Zaldian ibiltzea eta lagunekin egotea atsegin dut”

ERREGE EGUNEKO OPILA

Pascuala izeneko amamak bere baserriko labean erretzen zituen Gabonetan opilak. Urtero-urtero bere sei lobentzako egiten zituen opiltxoak Errege-gauan. Umeek oso pozik hartzen zituzten amamaren Gabon-gozokiak. Baina amama Pascuala nagusitu egin zen eta urte batean pentsatu zuen opiltxoen errezeta bere lobei erakustea zela hoberena.

Errege gauean sei lobak eta amama baserriko sukaldean elkarturik opiltxoak egitera zihoazen. Amamak bakoitzari opilaren osagaiak mahai gainean jarri zizkion eta denak batera lanean jarri ziren. Ume guztiek nahi zuten norberaren opiltxoa hoberena eta goxoena izatea, eta horregatik denak amamaren aginduak betetzea erabaki zuten.

Denbora asko behar zela gauzak ondo irteteko esaten zuen beti amama Pascualak eta betetan zela konturatu ziren gau hartan. Irina, arrautzak eta azukrea dena ondo-ondo nahastu eta gurina gehitu; gero ondo ondu zuten. Bitartean hitz egiten zuten beraien artean amonak lan asko egiten zuela eta orain beraiek hartu beharko zutela opiltxoak egiteko lana eta ondo ikasi beharko zutela amonaren moduan.

Opilak erreposatzen zeuden bitartean, auzoko ume batzuk Errege-kantak abesten zeuden eta kanpora irten ziren entzutera.

Abesten zeuden umeei txanpon bana eman zien eta barrura sartu ziren opila egitea bukatzera.

Labean sartzeko sasoia heldu zenean, opil bakoitzean zer opari sartu erabaki behar zuten; batzuk indaba edo baba bat sartzeko esan zuten; besteek txanponak sartzea izango zela hoberena.



Txanpon bana hartu eta opilean sartu zuen bakoitzak. Amonak beti baba bat sartzen zuen, baina umeeek erabakitakoa onartu zuen. Labean erretzen zeuden bitartean, afaldu zuten eta amonak antzinako istorioak kontatzen zizkien; lobek adi-adi entzuten zioten.

Amama Pascuala munduko andrerik zoriontsuena sentitu zen gau hartan ere bere sei lobak elkarrekin ikustean eta ondo konpontzen zirela ikustean. Amama Pascuala bere senarra zen Joserren bizitza kontatzen hasi zitzaien. Aitita Jose Ameriketara artzain egondakoa zen, hamazortzi urterekin ardiak zaintzera joan zela kontatu zien; urte askotan mendian bakardadean egin behar izan zituela. Gabonak eta gero Euskal Herrira bueltatu zenean, Gabonak familian pasatzea garrantzitsua zela erakutsi zien bere semei. Ameriketatik ekarri zuen diruarekin baserria erosi eta bizitza guztian bertan egin zuela lan, oso zoriontsua izan zela eta inoiz Ameriketara ez zela bueltatu; berak esaten zuela kaxa bat urrezko txanponekin beteta emanda ere, sekula ez zela bueltatuko bere familia Euskal Herrian utzita.

Opiltxoak eginda zeudenean, labetik atera eta sukaldeko mahai gainean hozten utzi zituzten. Hurrengo egunean amama Pascualak txokolatea egingo zuen eta armosutan jango zituzten. Denak ohera joan ziren. Oso pozik zeuden guztiak, egun zoragarri bat pasatu zutelako, amamaren errezeta betirako geldituko zelako euren bihotzetan, eta opiltxoei esker familia elkartu zelako eta amama oso zoriontsu egin zutelako.


Hurrengo goizean ondo lo egin eta gero, amama altxatu zen lehena ohetik eta txokolatea egiten hasi zen. Pixkanaka-pixkanaka sei lobak esnatzen joan ziren eta sukaldean agertu ziren banan-banan. Denen artean mahaia ipini zuten; eta txokolatea eginda zegoenean, amamaren otoitza entzun eta gero gosaltzen hasi ziren.

Lobarik txikienak aurkitu zuen lehen urrezko txanpona bere opiltxoan, gero nagusienak eta azkenean denek zuten opil barruan urrezko txanpon bana. Amama Pascualak bere sei lobei begiratzen zien, hauek liluraturik zeudelako. Negar malko batzuk zituen begietan, baina maitasun eta poztasun malkoak ziren. Umeei Erregeen oparia zela pentsatzen zuten eta oso pozik zeuden.

Loba nagusienak Errege-oparia ezin zela izan esan zien besteei, eta amamak egia kontatu zien. Aitita Josek Ameriketatik ekarritako txanponak zirela eta berak nahi zuela lobek edukitzea. Umeei asko eskertu zioten amamari aititaren gomutakia beraiei ematea eta pentsatu zuten betiko gordetzea txanpona; eta beraiek lobak izaten ditzatenean, berdina egitea txanponekin eta horrela familian tradizio bihurtuko zela.

Amama Pascuala oso pozik jarri zen, eta aitita Jose biziko balitz oso zoriontsua izango zela esan zien.





Jon Santa Maria
DBH 1. maila

“Naturaz inguratuta zoriontsu bizi naiz”

SUS BASURDEA

Sus basurdea Burrutzeganeko mendiaren magalean jaio zen, apirilean, udaberriko egun epel batean. Mendi honetan arte, haritz eta gaztainondoez osatutako basoak daude. Susen amak bazter ezkutu bat zeukan prestatuta umeak edukitzeko.

Kareharrizko mendia da Burrutzegane. Bertan artea da zuhaitz ugariena. Hainbat koba daude. Mendiaren beheko parteko basoan jaio zen Sus, Iruskietako eta Garteiz auzoen artean, sakonune berezi batean. Lur azpiko urek sortutako dolina bat da.



Burrutzegane eta Againdi mendipean Iruskietako dolina, Garteiztik ikusita.

Inguru hau da Susen bizilekua. Amak hiru kume izan zituen. Sus, hirugarrena, arra, txikitxoa, kilo bete eskasekoa eta lepotik atzeko hanketaraino marra ilunez josia.

Laster hasi zen Sus ikasten, bere burua defenditzen beste bi neba-arreben artean, amaren titi esnedunak lortzeko. Ezinbestekoa zen. Eta taldeka, kume guztiak batera, amaren



atzetik ibiltzen ere ikasi zuen. Basoan zer jan eta non aurkitu erakutsi zion amak. Eta zelan ezkutatu sasi eta belarren artean, arriskua sumatzen zutenean. Larruko okre koloreak eta marra ilunak lagungarriak ziren kamuflatzeko momentuan.

Gizakiok gara euren areriorik handiena. Basurde kumeek azeriak eta txakurrak ere izan ditzakete etsai Susen lurraldean, are gehiago makal edo gaixorik daudenean. Baina, basurdeak zuhurrak dira, egunez ezkutatuta egoten dira eta gauez egiten dituzte ibilbide luzeak, kumeek ere.

Bizirik irauteko amak erakutsitakoa ondo aprobetxatu zuen Susek. Hiru hilabetez hartu zuen amaren esnea, baina jaio eta bigarren astean jada bazekien belarrak eta sustraiak jaten. Geroago onddoak, ezkurak eta basoko fruituak, lurreko zizareak, intsektuak eta txorien habietako arrautzak. Aurrean joaten zen ama, gidari, mutur gogorra erabiltzen zuen lurra eta harriak mugitzeko eta altxatzeko. Kumeek, atzetik, amak esandakoa eginez jatekoa lortzen zuten. Sus harrituta gelditzen zen amaren indarraz eta trebeziaz.

Behin batean, are harrituagoa geratu zen leku harritsu batean ama ikusten nola harri batzuk iraultzen zituen bere muturrarekin. Bat-batean, haginkada batekin amaren muturretik eskegita bihurritzen zen sugedorri bat ikusi zuen Susek. Laster irentsi zuen amak. Sugedorrien pozoiak ez die kalterik eragiten basurdeei. Susek ikasi zuen, sugedorriak janari preziatua zirela.



Susi beste zeregin bat erakutsi zion amak txiki-txikitatik. Egun batean, iluntze aldera, Iruskietako dolinatik gora, basoan zehar, Garteizko bidera eroan zuen kume taldea amak. Hango tarte batean lokatzezko putzu handi samarra egoten da. Ama zuzen sartu zen putzuan eta iraulka alde batera eta bestera egon zen guztiz zikindu arte. Gero, enbor baten kontra igurtzi zuen gorputza. Ama putzutik irtenda, kumeak ausartu ziren sartzen, Sus baztertxo batean. Eta, zer ustekabe pozgarria! Larruan zeuzkan arkakusoeak, kaparrek eta zorriek sortutako hazkura baretzen zitzaion! Lezio bikaina, ahaztezina. Behar beste errepikatze modukoa.

Lau hilabete zituela, txikitako marrak galduta, Susen larruak okre gorrixka kolorea hartu zuen eta hasi zen gaztearena egiten. Neba-arreben taldetik urruntzen zen batzuetan, bakarrik geldituz. Zortzi hilabete zituela, ia heldua izanda, basurde sendo eta indartsu bihurtu zen, hirurogei kiloko basurde gazte ederra.

Orduan bere bizitza betiko markatuko zuten pasadizo bi gertatu zitzaizkion.

Sus, egun batean, Againdi mendiko baso zarratuan, basurde taldetik bananduta zebilen eta zakur baten arrastoa usaindu zuen; eta nola ezkurak jaten zegoen, ez zion kasu handirik egin arriskuari.

Eta halako batean, izua! Bere buruaren gainean txakur baten atzeko hankak dingilizka ikusten ziren sastraka artean. Txakurra, lakio batek samatik helduta, urkaturik zegoen zuhaizka batetik eskegita. Susek bira egin atzera, eta arrapaladan ihes egin zuen taldearen babesaren bila.

Tranpa ez zen txakurarentzat prestatua izan. Ehiztari furtiboek basurde pasabidean kokatu zuten tranpa, Sus edo bere kidekoren bat harrapatzeko zen. Garunean betiko grabatuta gelditu zitzaion Susi ikusitakoa.

Basurdeek kilometro asko egiten ohi dute gaueko orduetan. Behin, Iruskietako dolinatik irten eta Tremoiako auzorantz abiatu zen Sus, bakarrik. Ondo bazekien gizakien bizilekuetan txakurrak egoten direla, baina basurde taldean ikasita zeukan zelan txakurrei aurre eginez gero, beldurtuta alde egiten duten. Urriko azken astea zen, eta Susek ezagutzen zuen Tremoiako baserri batzuen inguruan azken sagarrak lurtean jausita egoten zirela. Mokadu gozoa.

Haranzko bidean txakurren usaina edonon zegoen. Ez zen harritzekoa, egoera normalean txakurrak sarritan pasatzen direlako handik. Baserriko txakurren ahausiak entzuten ziren, gero eta indartsuago, gero eta hurbilago. Kateko txakurrak, beti lotuak, arazorik ez, pentsatu zuen Susek. Baina, bat-batean, ilunpetik sekulako txakurra agertu zen. Mastina. Susen tamainakoa eta ia bera bezain pisutsua. Susen gainera jauzi egin eta atzeko hanka batean haginkada bat emanez, basurdea harrapatu zuen. Sus galduta zegoen, tratatuta, ia mugitu ezinik, bere oihuak auzoko bazter guztietan zabaldu ziren baserriko txakurren zaunekin batera nahastuta.

Egoera latz horretan, berriro ere, Susek izarrak bere alde eduki zituen. Askatzeko ahalegin guztiak eginda, ahulduta, hiltzeko zorian zegoela, lagun bat agertu zitzaion. Batzuetan Susekin batera janari bila ibiltzen zena, baina askoz zaharragoa. Sei urteko basurde arra, itzela, ehun kilo baino gehiagokoa, letaginak aiztoak baino zorrotzagoak zituen. Bidean korrika zetorren, zurdak tente eta ilajea puztuta handiagoa emanez.

Atzetik eraso egin zion mastinari. Buztanaren ondoan, hankako goialdean letagin bat iltzatu zion, behetik gorantz, eta ia airean altxatu zuen txakurra. Orduan, mastinak Sus askatu eta ikaratuta ihes egin zuen min uluen artean.

Inguruko txakur guztiek zeuden ahausika, eten gabe. Sus, hanka arrastaka, eta bere laguna gauean desagertu ziren, Iruskietako sakonunerantz.

Sendatu zen, bai, Sus basurdea, baita eskarmentatu ere. Ez bilatu Sus Burrutzegane inguruko lurraldean, ez duzelako topatuko. Esperientzia gogorren aztarna oroimenean sartuta daroa. Ondo baino hobeto daki zeintzuk diren bere arerioak eta zelan saihestu. Gaur egun basurde indartsu eta zuhurra da, argia eta mesfidatia, oso mesfidatia. Bizitzak horrela eraginda.



Mikel Andoni Mingo
DBH 1. maila

“Niri futbolera jolastea eta liburu asko irakurtzea gustatzen zait”

XABIERREN ABENTURAK

Bazen behin, Xabier izeneko mutiko bat. 11 urte zituen eta oso nota onak ateratzen zituen. Bere gustuko kirolak futbola, tenisa eta saskibaloia ziren. Beti irabazten zuen kirol horietan guztietan. Egun batean, eskola bukatu zuenean bere etxetik hurbil zegoen zuhaitz baten itzalpean geratu zen liburu bat lasai-lasai irakurtzeko. Lehenik, eseri egin zen eta bere bizkar-zorrotik liburu bat atera zuen. Ondoren, liburua eskuetan hartu eta irakurtzen hasi zen. Bukatu zuenerako berandu zen jada eta etxera bueltatzeko ordua iritsi zitzaion.

Bat-batean, zuhaitzean ate bat zabaldu zen eta eskailera misteriotsu batzuk agertu ziren ezerezetik. Xabierrek ez zekien zer egin, baina konturatu zenerako eskailera jaitsiak zituen.

Ondoren, atea kolpe gogor batekin itxi zen. Jaitsi eta jaitsi aritu zen baina ez zen ezer gertatzen, hortaz, ordu erdiko atsedena hartzea erabaki zuen. Pentsatzen aritu zen, eta bere gurasoak berarengatik oso kezkatuta egongo zirelakoan zegoen Xabier. Segundu batean, norbaitek eskaileretan behera bultzatu eta kolpe ederra hartu zuen Xabierrek. Azkenean, pasabide sekretuaren amaierara heldu zen, argia ikusten baitzen. Xabier oso pozik jarri zen eta lasterka abiatu zen argitasunerantz. Heldutakoan, herrixka bat zegoen eta den-dena elurrez beterik zegoen. Oso hotz handia egiten zuen bertan eta norbaiti non zegoen galdetzea erabaki zuen.

Etxe guztietako ateak zabaltzen saiatu zen Xabier baina ez zuen bakar bat ere zabaltzen, giltzez itxita baitzeuden. Aurrera jarraitu zuen eta etxe handi bat ikusi zuen bidearen erdi-erdian. Oso polita zen. Larrosa kolorea zuen eta ateak urrezkoak ziren. Pinudi zabal batek babesten zuen eta ez zen hain ongi ikusten. Txirrina jo zuen eta ate handi-handi bat zabaldu zen Xabierrek bertara joateko aukera izan zezan. Orduan, gizon dotore bat etorri zen. Zurez egina zegoen eta haxe esan zion Xabierri:

- Kaixo, ni herri honetako alkatea naiz. Nor zara zu?-eta Xabierrek erantzun:
- Ni Xabier naiz eta bat-batean agertu den pasabide batetik nator. Nire mundua oso desberdina da zuenaren aldean, ez baita inor bizi.

Alkatea oso haserre jarri zen eta esan zion:

- Jakina jendea bizi dela! Baina etxeak hutsik daude kobazulo iluneko dragoiak harri bihurtu dituelako eta bere kobazulo ilunera eraman dituelako.

Xabierrek galdetu zion:

-Badago modurik ni nire mundura itzul nadin?- eta alkateak erantzun kopetilun:

-Bai, badago,baina kobazuloko dragoia garaituz gero lor dezakezu berriz itzultzea. Etorri zaren lekutik joango zara amen batean, baina arazoa da ez dakidala nola garaitu dezakedan dragoi hura ahotik sua botatzen baitu, eta suak zura erretzen baitu.

Xabier pentsatzen hasi zen eta azkenik esan zion alkateari:

- Neuk garaituko dut dragoia plan bat prestatuta baitaukat berarentzat.

Hori esanik, bidaia gogorrari ekin zion bere buruan sinetsirik. Bidea luzeegia berarentzat: lehenik, labazko bidea pasatu behar zuen, ondoren, gozoki mendia igo eta jaitsi behar zuen eta azkenik, kobazulora heldu eta dragoia garaitu behar zuen berak zuen planaren arabera, jakina. Labazko bidera heldu zen, lehen esan bezala, eta oso bero handia egiten zuen bertan. Gutxienez, 40 graduak gainditzen zituen eta bidea estuegia zen Xabierrentzat. Hasi zen, bidea pasatzen baina beroak beheko lurra urtzen zuen eta Xabierri geroz eta denbora gutxiago geratzen zitzaion. Hortaz, lasterka eta oihuka bertatik ihes egiten saiatu zen, baina alde guztietatik inguratu zuen labak bera konturatu baino lehenago. Pentsatu gabe, jauzi handi bat egin, eta beste aldera heldu zen. Lehenengo pausua jadanik burututa zeukan eta oso lasai garatu zen, beste bi baino ez zitzaizkiolako geratzen.

Hurrengo helburua, gozoki mendia zen eta Xabierren ustean oso erraza izango zen. Oso altua zen eta gozoki mota asko zituen: txupatxusak, goxokiak, txikleak, gailetak... Xabierren tripa ere orroka hasi zen, ez baitzuen ezer jan arratsalde osoan. Txokolatea eta gailetak jaten hasi zen baina mendiak gozoki gehiago zituenez, bete-bete eginda geratu zen. Bapo amaitu zuenean, mendian gora joan zen ezer gertatu ez balitz bezala. Gero eta gehiago nekatzen hasi zen, baina mendian zeharreko ibilbidea ez zen inoiz ere amaitzen.

Bat-batean burrunba bat entzun zen, eta lurrikara gogor bat hasi zen. Gozoki guztiak menditik erortzen hasi ziren Xabier zapaltzeko moduan eta orduan, lasterka abiatu zen bere bizia salba zezan. Dena erori zenerako justu-justu salbatu zen bere indar guztiak erabili baitzituen mendi izugarri hartatik ihes egiteko. Azkenik, helburu bakarra baino ez zitzaion geratzen: kobazulo iluneko dragoia garaitzea. Lehenik, atsedentxo bat hartu zuen, mendian erori zenean korrika eta arnasestuka irten zelako. Atsedenaren ondoren, dragoiaren kobazulorantz abiatu zen. Zegoeneko, oso urrutitik ikusten zuen koba baina handik ikusita oso txikia zela ematen zuen. Aldapa handia zegoen bertarantz, beraz, ez zuen korrikarik egin eta oinez tipi-tapa joan zen Xabier alai eta pozik bere azkeneko helburua betetzeko. Bere buruarekin ziur zirudien, plana baitzuen baina hala ere, buelta asko ematen zizkion buruari bere ibilbideari ekiten zion bitartean.



Heldu zenean, jadanik, oso nekatuta zegoen dragoiari aurre egin izateko, beraz, ordu erdian itxarotea eta atsedean hartzea komeni zitzaiola pentsatu zuen. Denbora pasa zenean, Xabier kobazulora sartu zen eta oihuka hasi zen ea dragoiak bere mugimendurik edo hotsik antzematen bazuen. Ez zuen inork erantzuten baina berriro hasi zen oihuka, beharbada, lokuluxka bat egiten egongo zelako. Oraingoan ere ez zen ezer ere entzun, hortaz, Xabier kobazuloaren barnera sartu zen dragoi hori ea zer egiten ari zen ikustera. Ilunegi zegoen eta Xabierrek ez zuen ezertxo ere ikusten baina bat-batean gogoratu zuen bere sakelari bere gustuko eskuargia eramaten zuela beti aldean. Piztu eta lasai asko geratu zen, iluntasunak beldur pixka bat ematen ziolako. Hori ere, alde batera utzi zuen. Segundu batean distraitu egin zen eta zerbaitekin tupust eginez lurrera danba batez erori zen. Orro bat entzun zen eta dragoia agertu zen kobaren punta-puntatik. Kanpora irtendakoan, hasiko zen benetako borroka. Xabierrek, soka atera eta kolpe izugarriak ematen zizkion dragoiari. Horrek min handia eragiten zion, baina berak su parrastada batekin erantzun zion ez baitzetorkion ariketa fisikoa oso ongi. Xabierrek laku bateraino egin zuen ihes baina dragoia oso haserre, Xabierren atzetik joan zen hegan. Xabierrek lakuko ura dragoiaren aho barrura bota zuen eta dragoiaren barneko sua itzali egin zen. Momentu hartan, bere atzealdean ikusi zuen ezpata punta zorrotz bat hartu eta dragoia mila zatitan ebaki zuen eta zatiok urmaelaren barruan geratu ziren.

Xabierrek bazekien bere egitekoa burutua zuela eta poz-pozik jarri zen hau gertatutakoan. Herrira itzuli zen eta bakea ekarri zuen zurezko jendearen bizimodura. Alkateak esker oso onak eman zizkion eta zorte ona ere opatu zion. Baina momentu hartan, leku hartara eramane zituen eskailerak agertu ziren berriro eta agur bizkor bat esanez lasterka alde egin zuen. Bat-batean bere ohean agertu zen eta ahots ezagun bat zetorren nonbaitetik. Bere ama zen eta Xabier azkenean konturatu zen ametsa baino ez zela izan. Egun hartan, bere ikaskideei kontatu zien istorio hau.

Eta hala bazan edo ez bazan sar dadila kalabazan eta irten dadila Gernikako plazan.



Naia Barandiaran Mandaluniz

DBH 1. Maila

“Lagunen laguna izatea eta gimnasia erritmikoa ditut gustuko”

NIRE EGUNEROKOA

Kaixo ni Paula naiz. 11 urte ditut eta Alemanian bizi naiz. Nire neba txikiak, berriz, 8 urte ditu.

Inork ez nauelako kontutan hartzen eta handia naizenean idazlea izan nahi dudalako nago eguneroko hau idazten, gaurko egunetik, eguneroko hau aurkitzen duzuen urtera, nire bizipenen berri emateko.

Nire ama Maria deitzen da, nire aita Jonh eta nire neba txikia, berriz, Andrew. Nire familia asko maite dut, eta hori oso argi daukadan gauza bakarra da.

Orain dela gutxitik aldatzen nagoela sentitzen dut eta sumatzen nago ez zaidala aldaketa hau gustatuko. Sumatzen dut nire adinerako buru asko dudala eta oso sentikorra bihurtu naizela azkeneko urte hauetan, eta honek arduratuta nauka. Beti izan naizelako oso sentibera besteek nigitik duten pentsamenduengatik.

**Bi bizipen gogor
izan ditut, baina lehenik,
batekin hasiko naiz.**

1939ko abuztuaren 26a zen, nik bost urte nituen, eta udako oporretan geunden.

Inoiz ez ginen joaten inora oporrak pasatzera Alemaniatic kanpo.

Arratsaldea zen eta arratsaldero bezala kalera joan nintzen lagunekin jolastera.



Argitasun guztiz gogoratzen dudan gauza bakarra da bueltatu nintzenean etxera nire aita ez zegoela. Beren armairura joan nintzen beti bezala, baina oraingoan beren gauzak ez zeuden. Nire amari begiratu nion tristuraz eta berak “sentitzen dut” esanez beren indar guztiekin besarkatu gintuen nire neba eta ni, biok negar batean hasiz.

Hurrengo goizean nire neba lotan zegoela nire ama besotik hartu nuen eta “non dago?” galdetuz, negarrez hasi zen.

Nik bost urterekin buru pixka bat nuela jakinez, pentsatzen jarri nintzen eta “badakit ez zaiola ordua iritsi” esanez kalera joan nintzen haizea hartzera.

Oroitzen naiz aste batean isiltasuna gure etxeaz jabetu zela. Egun batzuk geroago denok lasaitu ginen arren.

Astelehena zen, eta astelehenero bezala, nire ama eta ni goizeko hamarretan altxatu ginen, eta sukaldean kartetara jolasten jarri ginen irratia entzunez. Halako batean, “Bigarren Munduko Gerra” entzun nuen. Oso txikia nintzen ulertzeko zer nahi zuen esan esaldi hark, baina nik banekien gerra batean jendeak oso intentzio txarrak dituela.

Bi urte beranduago konturatu nintzen hilerok karta bat heltzen zela etxera eta nire amak erantzun egiten zuela.

Zazpi urte nituen orduan, ez nintzen oso handia, baina segituan ulertu nuen zer ari zen gertatzen, horrexegatik, gau batean nire ama lo zegoela, hurrengo egunean bidaliko zuen karta zabaltu nuen eta jakiteko gogoagatik irakurri egin nuen. Orduan ulertu nuen gertatzen ari zen guztia eta asko poztu nintzen.

Bigarren bizipen gogorra

Bi urte pasatu ziren ordutik, eta bederatzi urte nituen orduan. 1943ko abuztuaren 10a zen.

Eskolatik bueltan nentorren nire nebarekin, orduan nire nebak 6 urte zituen.

Etxera sartu ginenean, bat-batean “Paula!” entzun nuen eta ni oso arduratsu, korrika joan nintzen nire amaren gelara. Ohe barruan aurkitu nuen nire ama, aurpegia zuri-zuria zuela. Hain txarto zegoen ikusi nuenean, beldurtu egin nintzela!

“Deitu sendagileari eta Andrew zaindu” aginduta, berehala joan nintzen sendagileari deitzen eta segituan etorri zen.

Ni logelako ate atzean nengoen belarria jarrita, dena entzuten. Sendagileak esan zion “sukar handia duzu, nonork zaindu beharko zaitu”.

Hiru egin geroago ama ohean lo aurkitu nuen eta beldurrez sendagileari deitu nion. Sendagileak ama eramanez, “dena ondo irtengo da” esan zidan.

“Lehenengo aita eta orain ama, ez dut merezi” esanez garrasi egin nuen.

Ordu batzuk beranduago gizon batek txirrina jo zigun, eta “etorri nirekin” esan zigun.

Etxe handi batera eramán gintuen, kanpoan “Umezurtz Etxea” jartzen zuena. Barruan ume asko zeuden, bai mutilak eta bai neskak, gehiago neskak. Nire neba eta ni logela berdinean jarri gintuen, beste hiru neska eta mutil batekin. 1943ko abenduaren 10etik Kristin, Jenna, Elisabeth eta ni lagunik onenak gara.

Egunero sumatzen dut ama eta aitaren hutsune handia eta pentsatzen jartzen naizenean galdetzen diot nire buruari “zergatik ni?”. Horrela sei urtetan. Zenbat urte gehiago izango diren honela galdetzen diot nire buruari...
1945eko maiatzaren 7ko egunerokoa.



Alize Olazar Intxausti

DBH 2. maila

*“Hau izan zen nire bizitzaren aldaketa, baina ni pozik nago,
gauza txarragoak ere badaudelako!”*

NIRE BIZITZAREN ALDAKETA

Ni Alize naiz, orain 13 urte ditut. 11urte nituen udan asko argaldu nintzen eta, horregatik, medikuarengana eraman ninduten. Bertan lehen motako diabetesa nuela esan zidaten. Egun horretan eguneroko bat idazten hasi nintzen eta hau jarri nuen bertan:

2011ko urriaren 12a.

Orain ospitalera noa kotxean. Diabetika naizela esan didate. Baina, ez dakit zer den. Urduri nago.

Heldu gara. Medikua etorri da eta esan dit nire gorputzeko organo bat ez dabilela, hau da, pankreasa, eta ez dabilenez insulina jarri beharko dudala oraindik aurrera. Uztada estiloko orratz bat ere jarri didate, eta bertatik odola atera didate eta geroxeago plastikozko poltsa bat, zerbaitekin barruan jarri didate, baina momentu horretan txisa egiteko gogoia etorri zait eta zorabiatu egin naiz, horregaitik kubo batean txisa egin behar izan dut!

Gurpildun ohe batean eraman naute logelara. Dibertigarria izan da ospitaletik ohe batean ibiltzea. Nire logelaren zenbakia ikusi dut, 201, eta behean wifia dagoela jartzen zuen orri bat, eta horregaitik Nintendo DSI-arekin tuentira konektatu naiz.

Nire ama kafe bat hartzera joan da eta ni bakarrik sentitu naiz. Gelakiderik ere ez dut. Geroago afaria ekarri didate eta ez zait ezer gustatu. Afaldu eta gero injekzioa jarri eta buelta bat eman dut. Nahiko logura izan dut eta oheratu egin naiz eta momentu horretan konturatu naiz ez naizela txarren dagoena, ume asko negarrez egon dira. Batzuk min dutelako egiten dute negar, baina beste batzuk bakarrik sentitzen direlako.

2012ko urriaren 13a.

Gaur oso goiz esnatu naiz. Leihotik eskolako lagun bat ikusi dut. Atzo jarri zidaten orratza kendu didate. Gosaldutik eta gero injekzioa jarri eta aspertzen hasi naiz. Lanak egiten hasi naiz, baina, lanak egiten nituen bitartean neska bat etorri zait esaten ospitalean lanak egiteko lekua dagoela ere, eta bertara joan naiz. Bertan hiru bat ume daude: lehenengoa zazpi urteko neska bat da, minbizia du, oso ondo margotzen du; bigarrena hamahiru urteko mutila, Eder deitzen da eta bi urte daramatza ospitalean ebakuntzatik ebakuntzara; eta hirugarrena hogeita bat urteko neska bat da. Arraroa egin zait hain zaharra izatea zeren eta oso argal dago eta oso txikia baita. Bera da txarren pasatzen duena. Bakarrik dago ospitalean eta beti baitago negarrez. Eguerdia heldu da eta bazkaltzera joan naiz nire gelara. Afaria baino txarragoa zegoen!

17:00ak dira eta Naiaren deia jaso dut. Ea nola nagoen galdetu dit eta beharbada barikuan, bertan banago, bisita bat egingo didatela gelakoek esan dit.

Gero ordenagailuak dauden gela batera joan naiz eta gaur ere tuentira konektatu naiz ea lagunik dagoen bertan. Denek galdetu didate ea ondo nagoen eta zelakoa den ospitalean egotea. Egia esan ez da dibertigarria.

20:00an afaldu dut. Gero "karakol eskailerak" deitzen diren eskilaretan goraino igon eta gero ohera joan naiz. Beste eguneko mutila negarrez egon da gaur ere.

2012ko urriaren 14a.

Gaurko goiza atzokoaren antzekoa izan da, baina nire osaba eta bere neska-laguna etorri direnez, eskolatik eskapatu naiz eta beraiekin egon naiz jolasten. Ikusten dudak guztietan bezala saskiko partidura laster eramango nauela esan dit (orain dela 2 urte esan zidan lehen aldiz). Gero nire osaba agurtu eta bazkaltzera joan naiz. Bazkaldu ondoren nire krokodiloak jarri (etxeko zapatilak) eta Athleticeko txandal bat jantzi dut eskaileretara joateko eta bertan telebistarako txartela erosi dut. Baita eskaileretan baloiaz jolastu eta momentu horretan Joseba (Kattalin, nire lagun baten aita) ikusi dut eta ez dut jakin zertan dagoen ospitalean.

Arratsaldean atzoko berdina-berdina egin dut.

2012ko urriaren 15a.

Gosaria da ospitaleko janari gozoena: esnea, colacaoa eta ogia. Goiz honetan ezin izan naiz eskolara joan. Medikuekin joan naiz ikastera nolakoa izango den nire bizi berria. Nire medikua Amaia deitzen da; neska ile horia, handia da eta medikua izateko letra onekoa. Baina Amaia ez dago bakarrik, Paloma ere badago; erizaina da eta berak erakusten dit makinak nola erabili eta batzuetan opariak ematen ditu.

Nahiz eta medikuekin egon, goiz oso aspergarria izan da. Arratsaldea dibertigarria izan da. Bi ordu egon naiz telebista ikusten eta berriro ere norbait ikusi dut: Gatibukoak.

Ez da ezer gehiago gertatu gauera arte. Gelakideak ere ez dira etorri. Beno insulina txarto jartzen didatela enteratu naiz eta baita betiko mutila negarrez dagoela ere, baina ezer gehiago.

2012ko urriaren 16a.

Goiz honetan berriro joan naiz eskolara, baina, medikuarekin ere egon naiz. Zertxobait gehiago aurreratu dut ikasketetan.

Arratsaldean sorpresa bat izan dut. Nire izeko etorri da eta opari bat ekarri dit: dortoka. Berarekin egon naiz arratsalde osoa eta zapatua denez buelta bat ematera joaten utzi didate. Momentu horretan oso ondo sentitu naiz. Lehen aldia da kalera noala aste honetan. Bertan libre sentitzen naiz, baina, ospitaleari buelta bat ematen bakarrik utzi didate. Gero, izeko joan denean, ordenagailuen gelara joan naiz eta Ederrekin jolastu naiz.

2012ko urriaren 17a.

Azkenean heldu da etxera joateko eguna. Gogo handia dut, bihar Naiaren urteak direlako eta bertan egon nahi dut zorionak esaten lehena izateko.

Gaur domeka izan denez, ez naiz joan eskolara. Eguna jai hartzeko esperantza nuen baina medikuarengana joan beharra izan dut. Bertan mezu txar bat eman dit. Astelehenean joan beharko naiz etxera klase bat falta delako. Orduan triste jarri naiz. Naiari deitu diot esateko eta buelta bat eman dut ospitale kanpotik. Txartel berria ere erosi dut telebistarako.

Euria denez, gogo txarrez egon naiz eta oso goiz joan naiz ohera, baina, afaldu eta gero nik bakarrik jarri dut insulina eta oso-oso harro sentitu naiz neure buruaz. Min apur bat egin arren ez da hain txarra.

2012ko urriaren 18a.

Heldu da Naiaren urtebetetzea eta etxera joateko eguna. Bildur apur bat ematen dit baina egin beharra dago.

Azken klasea eman eta gero denda batera joan naiz Naiarentzako oparia erostera. Zaldi bat erosi diot, asko gustatzen zaizkio eta. Gero aparkalekuan Kattalinen amuma eta izeko ikusi ditut eta orduan esan didate Kattalinen aitona gaixo dagoela.

Bagoaz etxerantz! Arratsaldean eskolara goaz baina bakarrik bisita bat egitera. Etxean bazkaldu dut. Nola igertzen den zein den etxeko janaria eta zein ospitalekoa! Gainera nire janari gogokoa izan da, hau da okela.

Ai ze urduri nagoen! Eskolan gaude eta nire gelara iritsi gara. Lotsatu egin naiz atea ireki dutenean. Nire amak esan dit eskolan ondo egongo naizela, zeren-eta, nire tutorearen ama ere diabetika izan zen eta nire tutoreak, Mari Car-ek zaintzen zuelako.

Gauean Naiari oparia ematera joan naiz eta asko gustatu zaio.

Hau izan da nire ospitaleko bizitza. Orain badakit Gatibukoak zergaitik egon ziren bertan; Alex Sarduik perretxiko pozoitsuak jan zituen. Nire lagun Kattalinen aitona oso txarto egon zen eta orain hilda dago. Eta beti bezala nago: osabak ez nau eramane oraindik partidu batera ere ez.

Hiru urte hauetan ohartu naiz nire bizitza ez dela hain gaxa. Bakoitzak bere arazoa du bizitzan eta niri haxe tokatu zait. Orain dela gutxi nire lagun baten ahizpari ere aurkitu zioten eta horrek erakutsi dit ez naizela bakarra.

NIRE BIZITZA ORAIN HAUXE DA, NAHI DUDAN BAKARRA DA JENDEA OSO EZBERDIN EZ EGOTEA NIREKIN.





Maite Sarrionandia Juaristi

DBH 2. maila

*“Nire amamarentzat idatzitako poesia bat,
hor dagoenean ere gogoan izango dudalako”*

URTEAK IGARO AHALA

Udaberriko loreak
zabaltzen diren antzera
mundura etorri zinen
arratsalde hotz batera
denbora igaro ahala
zindoazen ederrera
gaztea zinen oraindik
urteak zeuden sobera

Baina udaberria be
bukatzen joan zenera
udaren antzera helduz
bizitzaren gorenera
denetarako kapaza
edertasuna sobera
momenturik onenean
gazte ta heldu batera

Udaren atzetik sartuz
udazken triste luzera
zuhaitzen hosto ximelak
erortzen ziren lurrera
ta abandonatu zinen
zeu be orbelen antzera
kondenatu egin zinen
negu hotz amaigabera

Negu amaigabe hartan
etxetik atera gabe
konturatu gabe hiltzen
eta bizitzaren jabe
behin maitatutakoaren
poztasunaren edabe
aspaldi izandakoaren
maitasun garraren labe

Hil kanpaien doinu latzak
eman zuen abisua
heriotzak kendu zizun
zure bihotzeko sua
gaztetako oroitzapen
eta doinu argitsua
ilunduz joan zen eta
zeruan galduz muxua



Samuel Nita

DBH 2. maila

“Nire zaletasuna margotzea da”

BERNARDEN BIZITZAREN ISTORIOA

Bazen behin Bernard izeneko mutiko bat. Bernard Ipar Afrikan bizi zen, herrixka batean. Bernard beltzarana zen, 16 urte ingurukoa, begi distiratsu eta berde-berdeak zituen. altua zen eta arropa zaharra, zikina eta apurtua zeraman. Bere gurasoekin bizi zen, beno aitarekin bizi zen, ama beste gizon batekin joana baitzen. Aita beti mozkortuta zegoen eta egunaren amaieran lortutako dirua eskatzen zion. Diru gutxi bazen, aita jo egiten zuen eta diru gutxi ematen zion parte bat berak gordetzen zuelako jan ahal izateko eta bere ametsa bete ahal izateko; hau da, Espainiara joan eta han ikasi ahal izatea. Bernardek bere herrixkaren alboan egiten zuen lan, gizon aberatsei zapatak garbitzen eta hartuak eramaten. Bernard bizi zen herrixkan ezin zen ezer lapurtu jendea oso txiroa zelako eta ez zuen aberastasunik.

Urte batzuk pasa ondoren, Bernardek azkenean lortu zuen dirua Espainiara joan ahal izateko. Goiz batean alboko herrixkara joan zen eta han auto bat lortu zuen eta gizonari ordaindu ondoren esan zion Afrikako Iparraldeko portura eramateko .Bi egunez autoz ibili ondoren, portura iritsi zen. Portuan beste hainbat afrikarrekin txalupaz Espainiara abiatu zen. Bidai hartan Bernard pentsatzen ari zen nola egongo zen bere aita, zelan egongo zen... Berak, nahiz eta bere aita jo, maite zuen, bere aita baitzen. Bidaia oso gogorra izan zen hotz, ekaitz... eta abar, pasatu behar izan zituen.

Txalupan haiekin haurdun zegoen emakume bat ere zegoen bere bi semeekin. Egun batzuk pasa ondoren emakumeari mina etorri zitzaion. Txalupako jendeak emakumeari laguntzen saiatu ziren umea hil ez zedin. Umea osasuntsu eta minik gabe jaio zen eta emakumea oso pozik zegoen, bere hiru umeak ondo zeudelako eta Espainian bizitza hobea eskaini ahal zuelako, hau da, ikasketa hobek, janaria, arropa, bizimodu hobea ...

Egun batzuk pasa ondoren azkenik Espainiara heldu ziren, bera eta txalupako gainontzeko afrikar guztiak. Onena zen denak osasuntsu eta minik gabe iritzi zirela eta ekaitzei eta arazoei aurre egin ahal zieten.

Espainiara heldutakoan, lehenengo egunak kalean eman zituen: zakarrontzietatik janaria jaten, kartoien gainean lo egiten, jendeari dirua eskatzen ... Egunak oso gogorrak izaten ziren eta pasatzen zen jendeak txanponen bat edo janari apur bat ematen zion. Pertsona batzuk uste zuten dirua tabakorako erabiliko zuela edo beste gauza baterako eta horregatik ez zioten dirurik ematen.



Egun batean pentsatu zuen eta galdera hau egin zion bere buruari: “ZERGATIK NAGO HEMEN EZER EGIN GABE , ESKATZEN?” Horregatik lana bilatzea erabaki zuen. Denbora asko iragan ondoren; taberna baten lana aurkitu zuen. Han lan egin zuen urte batez eta horrela diru nahikoa lortu zuen unibertsitate batera joateko eta karrera bat ikasteko.

Unibertsitatera joatea lortu zuen eta han lagun bat ezagutu zuen eta lagun minak egin ziren. Bere lagunak Mikel zuen izena eta nahi zuen guztia lortu ahal zuen, bere gurasoak lanpostu ona baitzuten. Oso lagun onak ziren baina gauza batek banatu zituen: Mikel ohitura txarrak hartzen hasi zelako; hau da, edaten, erretzen ... eta horregatik Bernard beragandik aldendu zen. Min handia eman zion Bernardi bere laguna horrela ikusteak eta horregatik aukera zuenean berari laguntzen saiatzen zen.

Urteak pasatu eta Bernard mediku bihurtu zen bere herrixkari laguntzeko eta han bizi zen jende gaixoari laguntzeko. Bernardek lortu zuen bere ametsa eta horrela bere herrixkari lagundu zion eta bere aita gaixoari ere.

“BIZITZAK BANATZEN DITU KARTAK BAINA ZUK JOKATZEN DUZU PARTIDA!”

Bernardi bizitzak ez zizkion aukera onak eman baina berak gogor ekin zion eta gauza handia lortu zuen.

Bere lagunari, Mikeli, bizitzak aukera asko eman zizkion baina berak ez zituen aukerak aprobetxatu eta bide okerrara jo zuen.



Ane Olaeta
DBH 2. maila

“Saski baloia eta dantza gustatzen zaizkit”

BIZITZA NORAEZEAN

Uda zen, eguzki eder eta biribila ikusten zen leihotik, argi izpiak sartzen ziren eta bertan Miren aurkitzen zen, bere pentsamenduetan. Mirenek hamahiru urte ditu eta gehienetan bere amarengan pentsatzen zuen ohean zegoenean, bere ama hilda zegoen eta. Amak, Ana zuen izena, oso andre ederra zen eta Mirenek bederatzi urte zituen hil zen. Bere aita oso lanpetuta aritzen zen beti, lanean egoten zelako eta ez zuen izaten astirik berarekin hizketan aritzeko ere ez. Bere ahizpa txikiak zazpi urte zituen, Esti deitzen zen eta ez zuen berarekin hitz egiten. Miren Valencian bizitzen zen, etxe handi batean. Bere etxeak hiru pisu zituen eta denak ziren beraientzako, kanpoaldean piztina bat eta lorategi eder bat zuten.

Bat-batean ohean zegoenean Esti sartu zen bere gelara eta hau esan zion:

- Egun on Miren! Zatoz armosua hartzera, aitak esan du hitz egin behar dugula.
- Bai, oraintxe noa.-erantzun zion neskak.

Orduantxe, Miren bere gelatik irten, hamar bat eskailera jaitsi eta sukaldera iritsi zen, bertan zeuden bere aita eta bere ahizpa jesarrita, mahaiaren inguruan berari itxaroten. Hizketan zeuden eta Miren iritsitakoan biak isildu eta begiratzen geratu zitzaizkion. Miren jesarri eta esan zion aitak:

- Egun on! Zelan egin duzu lo laztana?
- Egun on! Nahiko ondo baina amets arraro bat izan dut, oso jende arraroa agertzen zen. Hobeto ez badugu hitz egiten ametsari buruz ... - erantzun zuen.
- Ongi da -esan zion aitak segituan- baina gauza bat esan nahi dizuet bioi, oso gauza garrantzitsu bat da, horregatik entzun arretaz mesedez -eta horrela jarraitu zuen aitak-. Beste egunean, Madrilgo enpresa batek mezu bat bidali zidan eta mezu horretan esaten zuen lanpostu bat libre zegoela eta norbait behar zutela bertan lan egiteko, orduan beraiek badakite ni lan horren atzetik nabilela orain dela urteetatik eta galdetu zidaten ea lan egin nahi dudan enpresa horretan. Nik beti nahi izan dut bertan lan egin, oso

lanpostu ona delako eta asko gustatzen zaidalako lan hori eta zuek ere badakizue, asko hitz egiten dudalako honi buruz etxean. -amaitu zuen aitak.

Alaba biak aho zabalik geratu ziren, ez zekiten zer esan eta bata besteari begira geratu ziren. Segundo batzuk geroago Mirenek haserrez esan zion:

- Aita, zuk uste al duzu ideia ona dela? Noski, zuri ez dizu axola guk bertan zer egingo dugun beti zaudelako lanean, baina guk hemen lagun asko ditugu eta bertara joatea, lagun berriak egitea eta eskola berri batera joatea ez da oso dibertigarria izango. Gainera, badakizu guk ez dugula hitz askorik egiten jende berriarekin eta asko kostatzen zaigu lagun on bat egitea.

- Badakit oso zaila izango dela baina horretara ohitu egin behar zarete, eta gainera arin ohituko zarete, ikusiko duzue. Benga neskak, pentsatu nigan momentu batez aukera polita delako eta erreflexionatu, niretzako oso zaila da hau esatea zuei.-esan zuen aitak.

Orduantxe, Miren altxatu, hartzen ari zena bertan bera utzi eta bere logelarantz abiatu zen ziztu bizian oso haserre. Bere ahizpa atzetik joan zitzaion. Aita sukaldean geratu zen ez zuen nahi neskekin haserretu.

Miren, logelan zegoenean bere amaren argazkia hartu eta argazkiaren aurrean, amari kontatzen zion behin eta berriro aitak esan ziona. Eta hau esan zion:

- Zu hemen egongo bazina hau ez zen gertatuko. Nik ez dut nahi Madrilera joan bizitzen, oso hiri handia da eta jende arraro asko egongo da, nik hemen geratu nahi dut nire herrian, nire lagunekin, nire ikastolarekin eta nire familiarekin. Badakit aitak beti izan nahi duela lan hori baina oraingo lana ere oso ona da eta aldaketa hau egitea ez zait ondo iruditzen. Gainera, lagun berriak egite zaila da niretzako.

Neskatilak gauza gehiago esan zizkion. Baina ordu pare bat geroago, bueltak eta bueltak eman zizkion buruari eta pentsatzen zuen aitak lan hori behar zuela, aukera bat eman behar zion aitari. Dena argi izan zuenean, eskaileretatik jaitsi eta aitaren bila joan zen, baina aita ez zegoen sukaldean ez salan. Orduan, kanpoaldera joan eta bertan zegoen, belartzan etzanda zeruari begira. Miren beraren ondoan etzan eta esan zion:

- Begira aita bi aldiz pentsatu dut eta uste dut aukera bat eman behar dizugula Estik eta nik, zuk guri aukera asko eman dizkiguzulako. Nahiz eta gu ez konbentzitu bidaia horrek.

- Benetan zabilta? – esan zion aitak harrituta-

- Baietz aita, benetan nabil, eta goazen lehenbailehen, bestela iritziz aldatuko dut. – esan zuen Mirenek.

Eta aitak pozaren posez besarkada handi-handi bat eman zion bere alabari eskerminak emateko. Miren eta aita lorategitik altxatu eta biak batera etxearen barrualderantz joaten hasi ziren. Biak Estirengana joan ziren berri ematera.

Esti logelan zegoen, bere kasko berriekin musika entzuten, eta bere aita eta Miren sartzerakoan ez zuenez ezer entzun, berak musika entzuten jarraitu zuen. Baina Miren berarengana joan kaskoak kendu eta esan zion:

- Esti! Kendu kasko horiek, obsesionatuta zaude, beti beraiekin! Beno, ez gatoz horretaz hitz egitera baizik eta goizeko gaiari buruz hitz egitera. – pare bat minutu eta gero Mirenek jarraitu egin zuen- Zuk nahiko zenuke Madrilera joan?

- Niri ez dit asko inportatzen baina lehenbaitlehen bagoaz askoz hobe. – erantzun zuen ahizpak.

- Ongi da neskak, asko eskertzen dizuet bioi. Orain bertan abioi bat hartuko dut eta bihar hemendik alde egiteko prest egongo gara. Eta ez arduratu ezertaz, dena edukiko duzue: etxea, lagunak, ikastola... Bihar bertan joango gara, horregatik zuen maletak prestatu eta lagunengandik agurtu -esan zuen aitak-.

Iritsi zen egun hura, oso goiz jaiki ziren denak eta aireporturako bidea hartu zuten. Bertaratu, hegazkinera igo eta bat-batean hirurak lo geratu ziren.

Madrileko aireportura heldu baino apur-bat arinago Esti itzartu egin zen, eta leihotik begiratzen geratu, eta ikusi zuen Madrilerira iritsi zirela, orduan aitari eta Mireni itzartu eta hirurak egon ziren ikusten zelan heltzen ziren Madrileko aireportura.

Aireportuan zeudela, maleta bila joan eta taxi bat hartu zuten beraien etxeraino eramán ahal izateko.

Aireportutik etxerainoko bidea ez zen oso luzea, Miren harrিতa geratu zen bertako etxeekin eta dorre altu-altuekin noski. Eta heldu ziren etxera, bertan kanpoan zeuden. Etxea oso handia zen, Valentziako antzekoa, baina honek kanpoan piztina, lorategi eta golfeko kanpoa zeukan. Etxearen barrura abiatuta, oso apainketa modernoa zeukan eta espazio handia zeukan gainera.

Denbora pasa ahala, Miren eta Esti ohitzen joan ziren denetara. Mirenek Esti zaindu behar zuen aita lanean zegoen bitartean, baina egun batean Miren kalera joan zen. Kanean zegoela, banku batean jesarrita aldizkari bat irakurtzen, bi neska hurbildu zaizkion eta batek esan zion:

- Kaixo, hemengo al zara? Nola duzu izena?

Miren oso lotsatuta zegoen ez zekien zer esan baina bat-batean esan zion:

- Kaixo, ez, ez naiz hemengoa Valentziakoa naiz, orain dela bi aste etor nintzen hona. Miren deitzen naiz.

- Orduan berria zara. Ez duzu lagunik hemen ezta? - esan zion neskak.

- Ez, ez daukat lagunik, eske ni oso lotsatia naiz. - esan zion Mirenek buru makur.

- Egon trankil, gu zure lagunak izango gara. Gustatzen al zaizu kantatzea? Eske hemendik hurbil kantatzeko akademia bat dago eta gu bertan gaude. - galdetu zion neskak.

- Bai, niri asko gustatzen zait kantatzea baina nire aitak ez dit uzten musikako klaseetara joaten, ez kantatzen, ez ezer! Esaten dit oso gaztea naizela hemendik bakarrik egoteko eta nire ahizpa zaindu behar dudala. -esan zuen Mirenek atsekabeturik-.

- Egon lasai, hitz egin zure aitarekin eta segur aski ulertuko dizula. Beno, joan egin behar dugu Miren eta galdetu zure aitari akademiarena. Aguuuur! - esan zion neskak azkenean-.

Miren etxeranzko bidean zalantzan zegoen, ez zekien zer egin, edo esan bere aitari edo ezkutuan joan. Bueltak eta bueltak eman zizkion hiru eta lau egunetan gai honi buruz. Orduan jaten zeudela hirurak, komentatu egin zuen Mirenek musika klaseei buruzko gaia. Hau esan zuen:

- Aita, gauza bat esan behar dizut. Beste egunean neska batzuekin topatu nintzen kanean eta beraiekin hizketan egon nintzen apur batean. Esan zidaten kantatzeko akademia bat dagoela hemendik hurbil eta ea nahi dudán joan. Al naiz joan?

Aitak aurpegi arraroaz begiratu eta oso argia izan zen:

- Ez Miren. Badakizu niri horiek gauzak ez zaizkidala gustatzen.
- Noski, ez zaizu gustatzen ni kantatzen edo musika praktikatzen ikusteak, amak ere egin zuelako eta ez duzu beraz oroitu nahi berriro - esan zuen Mirenek haserre-.

Miren mahaitik altxatu eta oso haserre, atea ireki eta korrikan joan zen kanpoalderantz. Aita eta Esti mahaian geratu ziren eta orduan Estik hau esan zion aitari:

- Begira aita nik gauza bat esango dizut. Mireni gustatzen zaion gauza bakarra kantatzea da. Bera zugatik Madrileraino etorri da zu pozago ikusteko, eta zuk hori egingo diozu? Ez dit iruditzen ondo ari zarela. Bakoitzak bere ametsak ditu, eta zurea ona etortzea zen eta Mirenena kantatzea da. Eta nik edozer egingo nuke irribarre handi bat ikusteko beraren aurpegian. Egin nahi duzuna, azkenean beti egiten duzu hori. Baina nik hau esaten dizut badaezpada.

Esti ere segituan mahaitik altxatu, bere platera, mahai tresnak eta basoak hartu eta harraskara eraman zituen. Aita mahaian zegoela oroitzen zegoen Estik esandako guztia eta ez zuen pentsatu Estik horrelako esplikazioak emango zizkionik.

Egunak pasatzen eta pasatzen joan ziren eta Miren eta aita oraindik haserre zeuden. Estik behin eta berriro esaten zion bere aitari, usteko Mireni akademia horretara joaten, eta azkenean aita Mirenengana joan eta esan zion:

- Bueno Miren, pentsatzen egon naiz eta zure ametsa bada akademia horretara joatea, ba joan egingo zara.
- Benetan? Eskerrik asko aita, benetan - esan zion Mirenek pozaren-posez, eta besarkada eder bat eman zion-.
- Beno, bihar bertan joango gara. Horregatik, hasi zaitez prestatzen abestiren bat. - esan zion aitak irribarrets-.

Hurrengo egunean, Miren, Esti eta aita akademia horretara joan ziren eta andereño batek esan zieten lehenengo azterketa goiko gelan zela eta Miren hurrengo izango zela.

Miren oso urduri zegoen; bertara sartu eta sei epaile zeuden berari begira. Galdera batzuk egin zizkieten eta gero abesti bat kantatu behar izan zuen. Bitartean Esti eta aita kanpoan zeuden itxaroten eta bat-batean Miren irten zen atetik.

- Miren! Zelan? Zer esan dizute? Hartu dizute? - galdetu zion ahizpak grinatsu-.
- Baaaii! Esan didate gaur bertan hartuko nautela! Ze poza! - esan zuen Mirenek pozaren posez-.

Eta hirurak barre algara batean zeuden eta besarkatu ziren elkar.

Denbora pasatu zen, zazpi urte, eta Miren, Esti eta aita ez ziren elkar ikusi orain dela zazpi urtetik. Mirenek eta bere lagunak kontzertu bat izan zuten eta Esti eta aita bertara joan ziren Miren ikustera.

Esti eta aita berandu zihoazen, bost minutu beranduago heldu ziren, baina oraindik Miren ez zen agertu. Heldu eta hamar minutura Miren agertu zen, ez zuten ezagutu ere egin, oso eder zegoen eta oso handi. Kantatzen hasi zenean ahizpa eta aita harrituta geratu ziren. Eta esan zion Estik aitari:

- Esan nizun aita, Mirenen ametsa hau zela, eta ametsagatik borrokatu du.

Eta aitak irribarre handi batez erantzun zion.



Elena Unceta-Barrenetxea

DBH 2. maila

“Koadrilan ibiltzea gustatzen zait”

ZORIONTASUNA: BI ZENTIMOTAN KILOA

Autobus gorrian sartu zen. Londresekoan ez, Bilbokoan alegia. (Garrantzitsua da autobusaren jaioterria aipatzea, oso desberdinak baitira Londresekoak eta Bilbokoak, biak gorriak izatearren).

Horrela, bada, Bilboko autobus gorrian sartu zen, eta ez Londresekoan.

- Otxarkoagara.- esan zuen.
- Euro bat eta hogeï!- erantzun zion gidariak, zakar.

Astelehena zen, astelehen astelehenegi bat, egunean aditzen zituen ehunka bezeroei kotoizko berbaz zuzentzeko. Euro bat eta hogeï, euro bat eta hogeï, euro bat eta hogeï, euro bat eta hogeï, errepikatu zuen gizonak, xuxurla batean. Eskua poltsikoan sartu, eta hamaika txanpon txiki atera zituen bertatik. Eskuak dar-dar egiten zioten, salatari; baina ez hotzagatik. Apurka-apurka, esku batean biltzen joan zen autobuseko txoferrari ordaindu behar zizkion euroa eta hogeï zentimoak.

Laurogeita hamalau zentimo, laurogeita hamabost, euro bat, euro bat eta hamar, euro bat eta hamabost, euro bat eta hogeï. Txanpon guztiak eman zizkion gidariari, geldiro. Sobera zituenak jakako poltsiko batean gorde zituen.

Etxera heltzean, Begori emango zizkion, sukaldeko apalean zegoen zorroan gorde zezan. Eta hurrengo egunean berriro eskatuko zizkion, Bilboko erdialdera jaitsiko zuen autobus gorria ordaintzeko. Begok esango zion ondo portatzeko, ez egiteko ezer kalean, ez egiteko berba ezezagunekin. Eta berak baietz egingo zuen buruaz, Begoren hitzei kasurik egin gabe.

Eta joango zen Bilboko erdialdera. Gran Viara, jendea kalean nola itotzen den ikustera, jendea kalean nola galtzen den begiratzera, jendea kalean nola konpontzen den kontenplatzera. Eta egun hartan ere, autobus gorria hartuko zuen etxera bueltatzeko. Bilboko autobus gorria, eta ez Londresekoa. Eta esango zion Begori Bilboko autobusak gorriak zirela, Londresekoen pare, baina Londresekoengandik oso ezberdin. Eta, gordeko zituen poltsikoan (giltzapean) edukitako zentimoak, sukaldeko apalean zegoen zorrotxoan. Eta hurrengo egunean ere gauza berbera egingo zuen, Bilbora joan, bankuan eseri, munduari begirada bat eman, eta etxera bueltatu Bilboko autobus gorrian. Begori kontatzeko jendeak kea botatzen zuela hiri hartan. Horrelaxe bizi baitzen, gizontxo hura. Egunerokotasun finean: *egunetik egunera bizitzari ilea nola zuritzen zitzaion begiratzera mugatzen zen bizimodu sinple baten*. Begorekin, autobus gorriekin, gauean irteten ziren kilkerrekin. Baina Begorekin batez ere, bere arreba kuttunarekin. Txikitatik egon zen Bego bere ondoan, belaunean min ematen zuen bakoitzean merkromina emateko; eta gauean, beldur zenean, argia piztuta uzteko; eta kilkerak autobus gorrietan ezkututzen laguntzen.

Horrela, bada, bigarrenez konprobatu zuen zentimoak poltsikoan ondo gorde zituela. Autobusean barne joan zen, hutsik zegoen eserleku baten bila. Leihoaren alboan zegoen batera hurbildu, eta bertan eseri zen. Hain lagun zuen makulua bere ondoan jarri zuen, eta geldi egoteko agindu zion:

- Ondo portatzen ez bazara Begok zigortu egingo zaitu, eta ez dizu txokolatezko izozkirik emango.

Kristalera begiratu zuen, eta gizon zaharkitu bat ikusi zuen bertan, gardenki islatuta. Txapela zeraman buruan, neguko hotzak ideiak izoztu ez zekizkion.. Aurpegiko zimurrak, igarotako denboraren lekuko, patxadatsu zeuden etzanda agurearen azalean, umeez aldrebesten dituzten alfonbren toleaturen antzera. Begiak bustita zituen, kaiek ere hotzaren biktima, malkoak lapurtzea zuen helburu neguko haize bortitzak. Ezpainetan, aldiz, irri txiki bat, eguneroko zoriontasun xumearen ordainetan, goizero-goizero, Begok ogiarekin batera okindegitik ekartzen zion plazer merkea. Ezagun egin zaion gizontxoari kristalean islatutako pertsona, baina azkenean konturatu zen soilik beraren islapena zela. Bereak ziren zimurrak, malko izoztuak, irribarrea.

Barre egin zuen. Begotxuri kontatuko diot etxera iristean.

Jakako botoiak askatu zituen, geldiro, munduko patxada guztiaren jabe bezala. Bat, bi, hiru. Lehenengoa, bigarrena, hirugarrena. Eskua poltsikoan sartu, eta zentimoak atera zituen. Kontatzen hasi zen: hamabost, hamazazpi, hogeita bi, hogeita hamar, berrogei... Begori emango zizkion denak:

- Sukaldeko apalean dagoen zorrotxoan gordeko ditugu.

Eskuak traidoreegiak ziren, eta bortitzago hasi ziren dardarka. Hain bortitz, zeren txanpon guztiak erori zitzaizkion lurrera. Larritu, eta guztiak batzen hasi zen, makurtuta. Bere parean zegoen andre bat altxatu eta beste eserleku baten jesarri zen, zizpuru egingez. Gizontxoak zentimoak batzea lortu zuenean, guztiak kontatu zituen, txanponen bat galdu batzuen jakiteko:

- Bi zentimo, bi galdu ditut, bi zentimo, bi, Begori esan behar diot, bi zentimo galdu ditudala esan behar diot, orain, lehenbailehen...

Bi zentimo. Esan egin behar zion. Bi zentimo galdu zituela errepikatzen zuen behin eta berriz, behin eta berriz, behin eta berriz, burua astinduz, eskuen dardara ezin disimilatuz. Bere etxearen aurreko geldiunean jaitsi, eta lasterka batean abiatu zen etxera, makulua ia ezin eramanik. Momentu baten irrist egin eta erori egin zen. Zutundu, eta are azkarrago joan zen. Etxera heldu eta atea ireki zuen:

- Bi zentimo, Bego, bi zentimo galdu ditut!- Begok ez zuen erantzuten.
- Non zaude? Bego?! Bi zentimo galdu ditut, etorri hona, etorri nigana. Bego!-

Logelara joan zen. Ez zegoen han.

- Bego! Bi zentimo!- Egongelan ere ez.
- Bi zentimo jausi zaizkit autobusean! Autobus gorrian!- Sukaldera heldu zen.
- Bilboko autobusak ere gorriak dira, Londresekoez aparte. Bi zentimo erori zaizkit gaur, Bego. Bilboko autobus gorrian, Bego.-

Bego lurlean zegoen, begiak itxita zituen. Isilik zegoen. Ilun zen mendien atzealdetik, eta kilkerrek ongietorria eman zioten euren kantua.

- Itzartu, Bego, kilkerak abesten dabilta autobus gorrietan.- Bego lurlean zegoen. Begiak itxita. Isilik zegoen, mutu jada.
- Itzartu, Bego, ireki begiak. Ez egin lo, Begotxu. Bi zentimo galdu ditut.-

Baina Bego ez zen esnatu...Begok ez zuen gehiago hitz egin...

Eta mutil gaixoa bakar-bakarrik geratu zen Begori hizketan. Baina ez zen inoiz konturatu Bego hilda zegoela, beren berekoikeriak itsututa baitzegoen.



Laiene Ojinaga Ereño
DBH 2. maila

*“Gaixotasuna, zu gogorrago bihurtuz,
bizitzako zailtasunak gainditzeko erronka bat da.”*

NIRE BIZITZAKO GORABEHERAK

Bizitza nik pentsatzen nuena baino arinago pasatzen da. Lehenengo haurra izaten zara eta handik egun batzuetan nerabezaroan zaudela konturatzen zara. Egutero esnatzen naiz zerbait berezia egin edo gertatuko zaidan esperantzarekin. Ez zait gauza berezirik gertatzen, ordea. Bizi izan dudako urteetan ez dut ezer garrantzitsurik egin eta damu dut, nire ametsa norbait garrantzitsua izatea baita mundu honetan. Baina ezin izango dut nire ametsa bete, minbizia baitaukat. Oso gaizki ari naiz pasatzen, ezin baitut burutik kendu edozein momentutan hil ahal naizela. Gainera kimioterapia onartu dudanez ile barik ari naiz gelditzen eta ezin dut jasan niri bisitatzen datozen bakoitzean niregatik negarrez hastea. Nire azkenengo momentuak primeran nahiko nituzke igaro, baina primeran pasa beharrean hemen nago, ospitalean, ohe batean etzanda, noiz hilko zain, denbora guztian hainbat kimioterapiako pilulak hartzen. Gainera hainbat galdera arraroak etortzen zaizkit burura: “Zergatik jaio naiz? Zertarako etorri gara mundu honetara? Zein da nire patua mundu honetan?”

Gutxi balitz, batzuetan negar egiteko gogoia ere sartzen zait, nik bizi izan ditudan momentu tristeak gogoratuz. Egia esan bizitza laburra izan da eta ez hain polita. Oso txarto sentitzen naiz. Imajinatu nola nagoen, psikologo batekin bainago eta bera etortzen zait goiz guztietan ni nagoen ospitalera, nik ditudan arazoak gainditzeko laguntzeko. Nire arazoak inguruko jendearekin esker dira, baina nik daukat erru gehien, nik onartu baitut jendearen isekak, traizioak, tratu txarrak,... niri min egitea. Bizi izan ditudan momentuetan egin didaten gauza txar guztiak nire barnean gordetzen baintuen. 10 urte gutxi gora behera jendearen isekak barnean gordetzen eta nik neuri min egiten, badakizue zer den hori? Hori bakarrik ez, jendearen isekaz aparte nik neure buruari egiten diot min. Hainbat gauza entzun eta jasan ditudanez, azkenean esan didaten

gauzak nik sinesten hasi banintzen. Apurka-apurka atzeratzen hasi nintzen hainbat gauzetan, adibidez gimnasian.

Taldeko partiduetan gero eta gutxiago jolasten nuen, gogo barik. Beti egoten nintzen erlojuari begira noiz amaituko zain. Niri ez pasatzeko esaten nien eta baloia ateratzen zuten bakoitzean buelta erdi ematen nuen edo bestela aurkariekin nahasten nintzen. Oso gaizki pasatzen nuen. Hezkuntza fisikoa egiten genuen bakoitzean zerbait gaizki egiten banuen iseka egingo zidatela pentsatzeaz batera, larri eta urduri jartzen nintzen, hasieran burla egiten baitzidaten. Denborarekin ez zidaten isekarik egiten, baina, nik utzi egin nuenez jolasaldietan futbol, saski,... jolasteari ez nuen ikasi ondo jolasten eta urteak joan ahala gero eta gogo gutxiagorekin egiten nuen kirola.

Lagunen kontuetan ere atzeratzen nintzen. Hasieran bakarrik uzten ninduten eta denbora guztian negarrez egoten nintzen. Ez neukan inor hitz egiteko, hortaz egun guztian bakarrik egoten nintzen etxera joan arte. Gero eta beldur gehiago ematen zidaten nire lagunak, zerbait txarto egiten nuen bakoitzean zerbait txarra egiten baitzidaten.

Momentu horien ondorioz, gaur egun ez dakit ezetz esaten, dena uzten diet, maisu edo andereño batek zerbait galdetzen didaten bakoitzean oso urduri jartzen naiz, gaizki erantzuten badiet, zerbait txarra esango edo pentsatuko duten negatibik beldurrez. Gainera, ez zait batere gustatzen jendearen aurrean gauzak azaltzea. Gutxi balitz, beti nago triste eta gai horiei buruz hitz egiten hasten garen bakoitzean negar egiteko gogo sartzen zait, egin eta sentitzen ditudan gauza txar guztiak gogoratzen baititut,... Egia esan, orain, gauza guztiei alde negatiboa ateratzen diet. Askotan saiatu naiz aldatzen gehiago ez sufritzeko, baina ezin izan dut lortu. Gauza hauek txikitik konpondu behar nituen, aurre egin behar nien nire lagunei, baina orain beranduegi da damutzeko, ez baitut horrekin ezer lortuko.

Nire penak alde batera utziz, gaur arratsaldean nire gurasoak etorri dira bisitan. Argazki-album bat erakutsi didate. Txikitako argazki-album bat. Zelako oroitzapen politak!

Atzo izan bazen moduan gogoratzen dut Euskal Herritik Alemaniara joan ginen eguna. Sei urte edukiko nituen garai hartan gutxi gora-behera. Hasieran, Larrabetzuko etxola txiki baten bizi ginen, biztanleriarengandik urrun. Nire aitak mehatzeetan egiten zuen lan, egunean 12 ordu eta miseria bat ordaintzen zioten. Ez ginen baserri batean bizi, janarirako eta arropetarako juxtu heltzen baitzitzaigun dirua, eta basoan, kasualitatez, aurkitu zutelako nire gurasoek etxolatxo bizi ginen bertan. (Ni jaio nintzen etxola aurkitu eta hilabete batzuk geroxeago). Bestela kale gorrian geratu beharko ginen bizitzen. Nire ama nirekin geratzen zen etxolatxoan eta noizbehinka zuhaitz-adarren bila joaten ginen, sua eginez berotan mantentzeko. Bestela etxean gelditzen ginen nik aurkitu nuen argazki makinarekin argazkiak ateratzen, txistek kontatzen eta batzuetan nire amak gramatikako klaseak ematen zizkidan, ez baitzuten dirurik niri eskola ordaintzeko. Harriekin, hostoekin, zuhaitz-adarrekin eta belar sikuarekin ikasi nuen alfabetoa, ez geneukalako koadernorik ezta boligraforik ere.

Gauetan ordea ohera joan baino lehengo izarrei begira geratzen ginen eta konstelazioak erakutsi zizkidatenez, konstelazioak aurkitzen egoten ginen, batzuen izenak. Momentu hura oso erromantikoa zenez, batzuetan etxolara sartzeko esaten

zidaten. Ni etxolan nengoen bitartean, momentu hura aprobetxatzen zuten gauza politik esateko eta noizbehinka muxutxoren bat ematen zuten. Asko maite zuten elkar. Bikote paregabea osatzen zuten. Gaueko hamarretan sartzen ginen ohera. Txatartegian aurkitu genituen koltxoi apurtuetan egiten genuen lo, zuhaitz-adar handi bat erabiltzen genuen kuxin bezala eta txatartegian aurkitu genuen manta zikin bat gaueko hotzetik babesteko erabiltzen genuen. Ematen duena baino erosoagoa zen. Oso pozik eta oso gustura nengoen horrela bizitzen, nahiz eta txiroak izan. Oso batuta geunden. Elkar babesten genuen. Ez geneukan ezer galtzeko. Nire bizitzako momenturik hoberenak pasa nituen Euskal Herrian.

Baina gauzak aldatzen hasi ziren nire aitag lana galdu zuenean. Alemaniara joatea erabaki zuten, bertan lana soberan baitzegoen. Hortaz, gelditzen zitzaigun diruarekin Alemaniara joan ginen, bizitza berri bat hastera. Oso pozik nengoen, baina aldi berean oso triste, oso gogor egiten baitzitzaidan pasa genituen momentu on eta txar guztiak Euskal Herrian geratuko zirelako, eta geure buruetan ere, baina oroitzapen moduan. Beldur pixka bat ere baneukan, galduta banengoen nire pentsamenduetan. “Orain zer egin behar dut? Non egingo dugu lo?” pentsatzen nuen.



Hegaldian oso urduri nengoenez, hegazkineko leihatilatik hodeiei begiratzen hasi nintzen, lasaitzeko asmoz. Zertxobait lasaitu nintzen, baina ez guztiz, ez bagenekien non egingo genuen lo, ezta non lortu genezakeen lanposturen bat ere, eta horrek egonezina sortzen zidan. Nire amari besotik gogor heldu nion eta berak jakin zuenez oso urduri nengoela, lo egiteko kanta bat abestu zidan. Segidan gelditu nintzen lo. Bidaia oso labur egin zitzaidan, begiak itxi nituen momentuan oraindik ez ginen Euskal Herritik ere irten eta begiak ireki nituenean Alemanian geunden.

Aireportutik irten orduko kartel bat aurkitu genuen: “Zerbitzariak behar ditugu, langabezian bazaude hau da zure lana” jartzen zuen eta kartela hormatik kendu eta segituan bertan jartzen zuen helbidera jo genuen. Etxe hura erraldoia zen. Nabari zen bertan jende diruduna bizi zela eta diru asko ordainduko zigun burutapenarekin sartu ginen etxe hartara, baina ez genuen imajinatu txarrena hasteko zegoela. Emakume dotore batek jaramon egin zigun. Mimika erabiltzen hasi ginen eta oso astiro ahoskatzen genituen hitzak euskaraz, berak ulertuko zuen esperantzarekin, euskaraz ez zekiela pentsatu baikenuen, oso arraroa baitzen aleman batek euskara jakitea. Bat-batean emakume dotore hura barre egiten hasi zen, euskara ulertzen baitzuen eta barregarri gelditu ginen, zirkuko pailazoen modura ibili baginen berak horrela ulertuko zuen esperantzarekin. Emakumeak ulertzen zigula konturatu ginenean, pailazoarena egiteari utzi eta nire aitag kartela erakutsi zion. Antza denez, segidan ulertu zuen zer nahi genuen, lo egingo genuen gela erakutsi baitzigun. Logelan zegoen tiradera batetik uniforme bat atera zuen. Uniforme hura nire amarentzako zen, lanerako. Orain etxe

hartako zerbitzaria zen. Nire amak, uniformeak emakume dotoreak atera zuen tiraderan sartu zuen hurrengo egunerako. Egun horretan hasten baitzen lanean eta ez zuen zikindu nahi. “Aurrerantzean zu zerbitzaria izango zara eta zure alaba ikastolara joango da. Diru gehiago lortu nahi baduzue, zure senarrak, nahi badu, sukaldari lana egin dezake, janaria prestatzen badaki, jakina. A! ahaztu baino lehen, zure alabaren ikasketak nik neuk ordainduko ditut, lasai egon zaitezke.” esan zuenean emakume dotoreak, pozaren pozez saltoka hasi ginen. Ezin genuen sinetsi, lehen etxola zahar batean bizitzen eta handik urte batzuetara etxe dotore baten lanean soldata on batekin eta ni lehenengo biderrez ikastolara joango nintzen. Amets polit bat zirudien. Nork imajinatuko zuen horrelako aldaketarik!

Oso urduri nengoen, emakume dotoreak (ahaztu egin zait esatea, Erika du izena) ikastolako zuzendariarekin hitz egin ondoren, lehen aldiz ikastola baten (Schulpforta) hasiko nintzelako ikasten. Zirrara handia ere egiten zidan jende berria ezagutzeak. Nolakoa izango zen ikastola eta nolako itxura eta jarrera edukiko zuten hasi nintzen imajinatzen. Arazoa zen, ez nuela oso ondo alemana menperatzen eta horrek bai arduratzen ninduen. Erikak arduratuta ikusi ninduenean, niregana hurbildu eta zer nahi nuen galdetu zidan. Nire arazoa kontatu ostean, berak, orduan, lasaitzeko esan zidan, ezagun bati deitu ziolako eta arratsaldean etxera etorriko zelako niri alemana irakastera. Pisu handia kendu zitzaidan hitz horiek entzunda. Orduan berriro ere gauza politak pentsatzen hasi nintzen.

Bainua hartu, arropa garbiak jantzi eta, komunean geundela aprobetxatuz, nola garbitzen ziren haginak erakutsi zigun. Segidan han bertan lan egiten zuen jendea aurkeztu zigun. Oso harrituta geunden, nola eduki zezakeen pertsona batek 10 zerbitzari, 5 sukaldari, 13 zaintzaile, 5 bizkartzain eta giltzain bat? Eta oraindik arraroena, nola ahal du pertsona batek, hainbat jende eduki berarentzako lanean eta oraindik gehiago nahi? Gainera, nondik ateratzen du dirua jende guztiari ordaintzeko, arropa dotoreak erosteko,...? Nik uste nuen baino diru gehiago eduki behar duela hasi nintzen pentsatzen. Burutapen horiek alde batera utziz lotara joan nintzen. Inoiz baino hobeto egin nuen lo. Hodei baten gainean etzanda nengoela iruditzen zitzaidan, ohea hain zen biguna eta leuna...

Hurrengo egunean, oso pozik nengoenez, oso goiz esnatu nintzen, ezin bainuen lorik egin. Nire aita esnatu nuen, gosari gozo-gozo bat prestatzeko. Halaxe egin zuen. Primeran zegoen. Gosalduta ostean, Erikak lotara joan baino arinago eman zidan ikastolako uniformeak jantzi, bizkar zorroa hartu eta eskaileretatik behera joan nintzen ziztu bizian haginak garbitzera, pozaren pozez. Komunean nengoela aprobetxatuz aurpegia ere garbitu nuen. Amaitu eta segidan ikastolarantz joan nintzen, ziztu bizian Erikaren bizkartzain batekin, oso txikia banintzen bakarrik joateko, eta gainera, lehenengo aldia baitzen. Nahiko nekatuta heldu ginen biok eta oraindik goiz zenez eta ez zegoenez irekita, kanpoko atearen alboan eseri nintzen. Erikaren bizkartzainak ikastolara heldu eta segituan utzi ninduen bakarrik. Ordu erdi bai egon nintzen zain, bakarrik... Zuzendaria heldu zenean, indarberriturik jaiki eta berarekin batera sartu nintzen barrura. Ez zuten beste ikasleek denbora asko behar izan ikasgelan azaltzeko. Andereñoak ni aurkeztu ninduenean, nire gelakideak niri arraro begiratzen hasi ziren, pertsona arraro bat banintz bezala eta belarrira gauzak esaten ere hasi ziren, oso seguru nengoen nigatik egon zirela zerbait txarra esaten. Hiru jesarleku egon ziren hutsik. Nigandik hurbilen zegoen jesarlekuan eseri nintzen eta albokoak aurpegi txarrarekin begiratu zidanez, hurrengo jesarlekura joan nintzen. Bertan ere gauza bera gertatu

zitzaidan. Hortaz, azkenengo jesarleku librean eseri nintzen. Leku hartan eseri nintzenean, ez zen inor kexatu, ez baneukan inor alboan. Ez nuen espero horrelako ongi-etorririk egingo zidatenik. Hainbat gauza imajinatu nituen, baina ez nuen espero hain txarto pasatuko nuenik. Leku hartatik irten nahi nuen. Gure txabolara itzuli nahi nuen! Baina hori hasiera bakarrik izan zen.

Denbora joan ahala, nire gurasoak gero eta urduriago zeuden, lanean asko exijitzen baitzien eta nire egoera ikusiz haserre zeuden. Denok asko geunden sufritzen, eta sarritan geure artean iskanbilak sortzen ziren.

Alemaneko eskola partikularrei esker, asko aurreratu nuen ikastolako klaseetan, baina ikaskideen jarreraren ez zegoen aldaketarik.

Alemanian, 10 urte egon ginen bizitzen, baina minbizia neukala konturatu ginenean, gurasoek lana utzi egin zuten eta aurreztuta zeukaten diruarekin ospitalera eramanez ninduten.

Argazki guztiak ikusi ostean, esan didate nire gurasoek etxe bat erosi dutela Euskal Herrian (bizi ginen txabolatxoaren alboan), bertan lana aurkitu dutelako eta ni sendatu arte hotelean geratuko direla, ni oso pozik jarri naiz. Berrirori zait bizitzeko gogo. Gaixo honetatik libratu beharra daukat. Ni jaio nintzen herrira itzuli nahi dut. Bertan bai sentitzen naizela ondo, gustura,...

Orain ahal dudana guztia egingo dut senda nadin. Ez dut nahi nire bizitzako momenturik txarrenak gogoratzea berrirori, eta oraindik gutxiago, ni jaio naizen lekua behin bakarrik ere nire begiekin ikustea. Bai horixe egingo dut, hitza ematen dut!

“Itziar zara ezta? Barkatu, baina proba batzuk egin behar dizkiogu jakiteko non duen tumorea, geroxeago jarraituko duzue hitz egiten” entzun nion esaten medikuari, atea irekitzen zuen bitartean. Espero dut arin jakitea non dudana tumorea eta ez egotea leku txar batean, bestela ezingo naiz Euskal Herrira itzuli denboraldia batean edo beharbada inoiz ere ez. Hori ezin da horrela izan, ezin dut bukatu horrela. Lehenbailehen itzuli behar dut Euskal Herrira, bizi berri eta zoriontsu bat bizi nahi dut, ez esperientzia triste eta desatsegin batekin hil. Beno, oraingoan positiboki pentsatu beharra daukat, eta ahalegin guztiak egingo ditut berrirori Euskal Herriko arnas garbia arnasteko...



Iranzu Barandika

DBH 3. maila

“Euskaraz bizi nahi dut”

BAI, BENETAN BEREZIA DA!

Ni al nintzen arraroa? Denak beti kexuka eta ni, aldiz, besteentzat traba bat zenaren eske nenbilen: neba bat.

Ikastetxean beti hitz egiten zuten nire lagunak eta gelakideek haien neba-arrebei buruz. Beti ziren kexu eta nik ez nuen zergatia ulertzen; batzuetan, gozokiak kentzen zizkietelako; beste batzuetan, zirikatzen ari zirelako, baina beti zituzten egundoko liskarrak. Gozokiena tontakeria hutsa zen, egia esan: nori egiten dio kalte elkarbanatzeak? Klasea bukatu orduko gehienak korrika irtetzen ziren jolastokira ogitartekorik handiena nork jan aukeratu ahal izateko. Nire ogitartekoa, ordea, ez zen ez handiena. Ezta txikiena. Bakarra zen.



1996ko uda zen eta amak aste batzuen buruan Iker ekarriko zuen mundura. Neba bat izango nuen hainbeste eskatu ondoren! Izena ere polita zuen: Iker. Amak izena aukeratzen utzi zidan eta hain da polita ezin izan zidala ezetz esan. Iker. Ongi aukeratu nuen, bai. Dena den, uda osoa igaro nuen amaren sabelarekin hizketan. Kantu goxoak abesten nizkion eta amak kontatutako ipuin politenak irakasten nizkion. Bere lehen arropak erosi genizkion eta nik hasiera batetik esaten nien gurasoei ezinezkoa zela gorputz bat horren arropa txikietan sartzea. Amak ez zidan horretan jaramonik egiten eta orduan jostailuak aukeratzen nizkion, gehienetan nik ere gustuko nituenak, biok batera jolastu ahal izateko. Nire bizitzako udarik onena izan zen, zalantzarik gabe.

Bi aste baino ez ziren geratzen Ikerren aurpegi txiki zimurra ikusteko. Bere gorputz niminoa ukitzeko irrikitan nengoen eta bere eskutxo gorriak samurtasunez laztantzeko. Ile beltza izango zuen ziurrenik; nik txikitan izan nuelakoa. Aurpegi biribilarekin imajinatzen nuen, begi berde handiekin eta ezpain potoloekin. Pentsamendu horietan guztietan murgilduta nengoen, herriko plazan txori txikienak ikaratzen aitzak inoiz baino pozago deitu zidanean. Iker jaio zen. Besterik ez zekien; ez zekien nolakoa zen, arazorik izan zuten... ezer ere ez. Jaio egin zen eta hori zen garrantzitsuen: abuztuaren 29 hartan beste familiakide bat genuen.

Minutu batzuk lehenago aitak erositako gozokiak bertan bera utzi eta autorantz abiatu nintzen zitzu bizian ospitalerantz joateko. Ordu laurdenen buruan nire burua ikusi nuen 312. gelara sartzen. Ama ikusi nuen ohe baten gainean berarena ez zen kamisoi zuri bat soinean zuela. Iker zuen besoetan eta hurbiltzeko esan zidan hauxe gehituz:

- Sara, Iker ez da uste genuelakoa. Desberdina da.
- Zergatik ama? Ezin izan al ditu nire kantu eta ipuin guztiak entzun?
- Bai laztana, entzun ditu. Asko maite zaitu jadanik baina bera beste arrazoi batzuegatik, berezia da. Ez da zure gelakideek duten bezalako neba bat. Oso berezia da eta denon artean lagundu egin behar diogu.

Hitz horiek nire buruan geratu ziren “oso berezia da eta denon artean lagundu egin behar diogu”. Egia esan, ez nuen ezer ulertu baina urteen poderioz egiaz ohartu naiz. Iker ez da inoiz ni bezalakoa izango. Bereizitako ikastetxe batera joan behar izan du eta ez da askorik hasi. Niri baino gehiago kostatzen zaio hitz egitea eta adimena erabiltzea. Ulertzen al duzu nondik noan?

Hamaika urte nituela, Ikerrek lau zituenean hain zuzen, gero eta argiago nabaritzen zen bere arazoa. Behin andereño Izaskunek, -euskarako andereñoa, oso zorrotza dela aipatu beharra dago- gure neba-arrebei buruzko idazlan bat idazteko eskatu zigun. Etxera heldu bezain laster idazten hasi eta afari ordua iritsi arte idazteari ekin nion. Gauza asko nituen kontatzeko eta horrez gain idazlan on bat idatzi nahi nuen. Hurrengo goiza iritsi zen eta Izaskun beti bezain kopetilun heldu zen ikasgelara. Nire izena ozen esan zuen eta idazlana denontzat irakurtzeko agindu zidan. Urduri nengoen, zer pentsatuko zuten nire nebaren arazoa kontatu ondoren? Lotsati ez tul egin nuen eta ahots apalez irakurtzen hasi nintzen. Idazlana oso ondo zegoen egia esan, alde hortatik ez nuen kezkarik. Dena den irakurtzen bukatu nuen burua zutik jarri eta ikaskideen aurpegiak ikusi nituen. Denak harrituta zeuden.

Ordur geroztik, lagunak ez zidaten jaramonik egiten eta desberdin tratatzen ninduten. Mehatxu egiten zidaten eta beti zebiltzaten Iker eta ni zirikatzen. Engainatu

ezezirik, baztertu ere egiten ninduten eta lagunik gabe geratzen hasi nintzen. Maialen nuen noizean behin futbolera jolasteko, baina besterik ez. Futbol partidak zirela eta lanak egiteko geratzen hasi ginen. Denbora aurrera zihoala, asteburuetan zinemara joaten hasi eta noiz edo noiz etxera gonbidatzen nuen lo egitera.

Horietako egun batean ohartu nintzen gainontzekoek ni baztertzen ninduten bitartean Maialenek hilabete guzti bat igaro zuela ni laguntzen, benetako laguna izaten. Ideia guztiak argi zituen, jatorra zen. Itzel pasatzen nuen harekin; gainera, Iker ere gurekin etortzen zen batzuetan.

Hilabete horiexek izan ziren nire ideia eta pentsamenduak aldatu zituztenak. Ideia propioak izaten hasi nintzen zentzua hartzen hasi nintzaion gertatutako guztiari. Nork pentsatuko zuen? Nire neba zen nire bizitzako oinarria; ziur nengoen. Benetako lagun bat oparitu zidan, nahiz eta bizitza guztia goitik behera aldatu nahiago nuen bizitza berri hau Iker bertan egongo bazen.

Egia zen nire neba berezia zela, argi eta garbi ikusten nuen; baina ez besteek uste zutenagatik, baizik eta niri ulertaraztea egin zidanagatik. Denak ziren haien neba-arrebetaz kexu eta ni ordea... inoiz gertatu zitzaidan gauzarik onena zela nekien. Benetako lagun bat oparitu zidan. Hari esker bizitzak bira bat eman zidan eta ez dut uste inoiz eskertu ahal izango diodanik. Bai, benetan berezia da!



Amaia Lauzirika
DBH 3. maila
“Bizitzaz gozatu”

BEGIRADEK GARRANTZI HANDIA DUTEN MUNDUAN...

Hego gabeko hegazti bat bezala sentitu nintzen, nire hegaldiak behin eta betiko bukatu zirenean. Egun hark, nire bihotza ziztada bakar batez pozoitu zuen. Jada, egun bat zaharrago ginen eta inor ez zen jabetzen.

Atzean gelditu da lasaitasunaren aurkako islada. Ez da gogoan dudan gauza mingarriagorik. Norbaitek ba al daki bizitzako gauzarik garrantzitsuena segundo bakar baten ukatzeak, zer eragiten duen? Nik badakit, ondo gainera. Egun hura, gogoan dut, eta oroimenean beti gordeko dut. Hamar urte pasa dira eta gauzek berdin jarraitzen dute beste herrialde batzuetan. Lotsagarria benetan. Ez al da inor konturatu hirugarren munduan gertatzen ari diren ezbeharrez? Bertokoek soilik eman dezakete baiezko erantzuna. Ni, bertan izana naiz.

Banekien nire bizitzan esperientzia berri bat probatzeko beharrezkoa nuela, eta nolabait egin beharra nuela. Nire amona Mariak ere, zerbait egin nahi zuen, baina berak bere esperientzia berriaren antolaketa eginda zeukan. Amonak Irakera joan baino zerbait gehiago nahi zuen: Iraken amaitu nahi zuen bere bidea. Nire ametsik garrantzitsuena, ordea, amonak berea betetzea zen. Mundu perfektu baten bila joaten nintzen bakoitzean, amonak eskaintzen zidan. Bere ile motz marroixkek, zituen begi berdeekin bat egitean, ahoa betetzen zioten hortz zuri haiek, irribarre goxoenen artean, gozotasuna eskaintzen zidaten. 2006ko uztailaren 20an amona eta biok, Irak herrialdera bidaiatzea pentsatu genuen ametsa egia bihurtzeko. Ni, apur bat beldur nintzen bertan aurkituko genuenarengatik, baina amonaren eskariak aginduak ziren niretzako. Beraz, ausardiaz bete eta lagundu egingo niola esan nion. Amonak irribarre goxo bat oparitu zidan berriz ere.

Heldu zen eguna. Maleta prest izanik, gure helmugara eramango gintuen txori erraldoi hura hartzera ausartu nintzen. Goizaldeko seiak ziren, eta freskura nabarmena zen kalean. Autobusa hartu, eta aireportura abiatu ginen. Dena zen liluragarria, hegazkina, zerbitzariak... gehiago ezin eska nezakeen. Gainera hegazkinean, taberna txikitxo bat zegoen, bidaia luzea baitzen.

Zortzi orduko bidaia egin ostean, eta nire hankak loak hartuta nituenean bertara iritsi ginen. Hotela izugarria zen: igerilekua, futbol zelaia, saskibaloikantxa... Dendena zegoen bertan! Baina, nire amonak ez zituen oporrak igaro nahi horrelako toki batean. Nik, egia esan, ez nuen barruntatzen amonak nahi zuena. Baina bi hitzez azaldu zidan, labur: bizimodu gogorra bilatzen zuen. Amonak begirada jaitsi eta aitona armadako gerlari bat zela esan zidan. Gerlari onenetakoa gainera. Berataz zeruetako jaun bat balitz bezala hitz egiten zuen. Aitonak, amonari beti lagundu izan zion garai hartan. Bizitza, bihotzaren taupadek lanean irauten duten une bat da eta amonak, bere taupada guztiak aitonarekin igaro nahi zituen. Amets hori, amets bezala agertu zen amonagan. Honelako txikieriek egiten dute amona benetako emakume. Baina, ez pentsa bidaia honek, aitonarekin ez zeukala zerikusirik. Beraz, herrira jaitsi ginen.

Pobrezia nabaria zen bertan. Pobreziak eta herri triste baten begiradek, nire bihotza bonbardatu zuten guda bat sortu balitz bezala.

Amonak, keinu egin zidan eta, hilerriranzko bidea erakutsi. Zer galdu ote zuen amonak bertan? Baina bera emakume berezia eta gizakirik jakintsuena zenez, atzetik joan nintzaion isil-isilik. Beharbada, amonak bihotzean gordetzen duen kutxa gogorrean, nire galderen erantzun guztiak aurkituko nituzke.

Ate erdoildua ireki, eta bide estu, beldurgarri eta harritsu bat zeharkatu genuen, begirada jaitsi gabe. Nik ez nekien zertan ari ginen, nora gindoazen, zer egin behar genuen. Hotzikara beroenak ere ezin lasai nindukeen. Bihotzak aurrera bultzatzen ninduen, bere taupaden jabe izanik. Bidean, hainbat hezurrek nire zapatila beltzak ukitu zituzten. Baina amona, lasai zegoen, ez zuen ezerk izutzen. Begirada zuhur eta ilunaz bere bideari ekiten zion hitzik esan gabe. Ez zidan erantzuten, ezta keinurik egiten, baina, zerbait aldatu zen susmoak nire barnean kalaka egin zuenean. Amonak bira eman eta hitz hauek esan zizkidan, “*ezerk ez du balio bihotz zauritu batek baino gutxiago*”. Ez nuen ezer ulertzen, amonaren esaera arraro haiek, nire usteak kolokan jartzen zituzten.

Bide estu hartatik jarraituz, norbaiten hotsak entzun nituenaren susmoa izan nuen. Beldurra jada, nire jaun eta jabe zen. Irudimenak esperientzia gaizto bat oparitu zidalakoan nengoen. Baina sentitzen nuen guztia gezurra zela sinestear nengoen... amona korrika hasi eta bat-batean, behe laino fin eta beltz hartan desagertu zen, arrastorik utzi gabe.

Hark ez zuen ni atzetik joatea nahi, beraz, burua tente jarri, eta nire bihotzen taupadetan islatutako Beldur izeneko pertsonaia harengandik alde egin nuen. Beranduago, aurkituko nuen amona. Bi pausu atzera eman nituen, eta birritan pentsatu gabe, sakelean neramatzan gozokietako bat ahora sartu nuen. Limoizko azukre puxka hark zapo mingotsa utzi zidan ahoan.

Momentu hartan nire pentsamendu guztiak amonaren inguruan biraka zebiltzan. Banekien, guzti hura askorentzat erokeria hutsa izan zitekeela, baina, hala gertatu zen.

Bakarrik, oinez nindoala, hilobi batzuekin tupust egin nuen, izen gabeko hilobi batzuekin. Bueltako bidearen arrastoa ere desagertu zen, eta nik, irtenbide gabeko bide bati ekin nion. Gora begiratu, eta eguzkiaren azken izpiek argitzen zuten hilerrian, 13 urteko neska batek ez zekien zer egin. Baina, supituki, izendatutako hilobi baten kontra jo, eta erori egin nintzen. Nire belaunak, busti ez ninduen odol pixka gainean jarri, eta altxatu egin nintzen.

Hilobi hura, polita zen benetan, inoiz ikusitako hilobi ederrenetakoa. Jada ez nintzen beldur, eta bertan idatzirik zeuden hitzek honela esaten zuten :”Maite Etxegarai, 19 urte. 1960. Nire amonaren jaiotza urtea. Baina, izena eta abizenak ezberdinak ziren. Amonaren ama, Maria Zugarra zen. Beraz aurrera jarraitu nuen.

Bide estu hura utzi, eta landa garbi eta berde batean barneratu nintzen, noraezean. Bi mila eta bi hitzetik, amonaren zortzi aukeratuek, nire pentsamenduak akabo egin zituzten. Oraingoan, entzuten nituen ahotsak, ez ziren ilusio baten eraginez sortutakoak, benetakoak ziren. Herrian nengoen. Nola iritsi nintzen ez nekien, baina halaxe egin nuela bai. Berriz ere, pobreziaren herrialdea zapaldu nuen, ezer gabe, soilik sakelean neramatzan limoizko gozoki azukretsu haiekin. Neskatile bat hurbildu zitzaidan, eskua luzatuz. Nik, sakelean neukan azken limoizko karameloa eman nion. Hartu eta, irribarre izkutuenaz eskerrak emanez, ihes egin zuen beldurturik.

Gauza ulertezinen munduan nengoen, eta amona ez zen inon agertzen. Gauak eguna jan zuen eta hotelera abiatu nintzen. Logelan sartu eta amona bertan lo zegoela ikusi nuen. Ez nekien nola heldu zen bertaraino; zentzugabe jokatu nuelakoan nengoen.

Ohera sartzera nindoala, amona iratzartu eta keinu egin zidan. Zirikatu egin ninduen beharbada, baina, jolas haren guztiaren atzean, gauza beltz bat ezkutatuta zegoen, amonak bihotzean guda erraldoia zeukan ezkutatuta. Ez nion hilerri huts hartan gertaturikoari buruz galderarik egin, baina jakin-minak, irentsi egiten ninduen.

Nire oporraldien zentzua desagertu zen egun hartan. Hurrengo egun guztiak gure hotelean pasa beharko nituela pentsatzen nuen, beraz, igerilekutik logelara, eta logelatik igerilekura nenbilen, amona herrira jaisten zen bitartean. Amonak, bakardade zoriontsua adoratzeko zuen. Baina dena ez zen zirudien bezalakoa...

2006ko uztailaren 27an, gure oporrak bukatzeaz zeuden, eta ni, amonaren eztulak gero eta nabariagoak zirela konturatu nintzen. Zerbait gertatzen zitzaion galdetzean, aldiz, buelta eman, eta ihes egiten zuen. Banekien amona gaixorik zegoela...Banekien. Amak, amona betiko ez zela izango errepikatzen zidan behin eta berriro, baina nik ez nuen ideia lauso hura garbitu nahi. Nire amona, betirako izango zela uste nuen, eta oraindik ere, uste dut. ZER IZANGO NINTZEN AMONA GABE? Nire buruan, galdera horrek, erantzunik ez zeukan, eta ez du izango.

Gauerdiko hamabiak ziren, eta ohikoa zen bezala, oheratu egin nintzen, egun neketsu bat izan bainuen. Oso neketsua, amonari erizaindegira lagundu niolako. Niretzat oso zaila zen amona osasuntsu zegoela sinestea, jada, 79 urte bere jabe zirelako. Amonak txantxa balitz bezala, bere osasun arazoak erizainarekin banatzen zituen.

Harrigarria benetan! Nire amonaxo maitea, txikitan nire zaintzilerik gustukoena, ama balitz bezala maite nuen, eta gaur ere maite dut. Erizainak, geldi egoteko esan zion behin eta berriz, baina amonak, barre egin eta ezezkoa erantzuten zion beti. Baina oraingoan, ezberdina zen, amonak isil-isilik erizainaren hitzak entzun, eta buruarekin baiezkoa ematen zion. Amona gaixo zegoen, larri benetan, baina, amaiera oraindik urrun zegoen berarentzat.

2006ko apirilaren 6ko egun hartan, amonaren begirada behin eta betiko aldatu zen. Minbizia zuen. Gaur egun minbiziagatik ez da jende asko hiltzen, baina hiltzen diren gutxi horiek, sufrimendu zuri-beltz batek sortutako tristurak janda joaten dira. Nire amonak aldiz, zailtasun hau, lasai asko gaindituko zuela pentsatzen nuen. Nire barnean isilpean zeuden berba horiek, egia bihurtuko ziren esperantza nuen. Nire bizitzako egunik gogorrenetako bat izan zen hura, gogorrena ez esatearren. Nire bihotza ziztatu zuena. Amona erizaindegian utzi behar izan nuen gaua igarotzen. Berak gorroto zituen erizaindegiak, baina ez zegoen beste irtenbiderik. Bi mila aldiz agurtu genuen elkar, eta Iraken genuen logelara bueltatu nintzen.

Tristura nire jabe zen, eta loa galarazten zidan. Hilerrira bueltatzera bultzatu ninduen. Herriko kale zikin eta huts haiek zeharkatzen nituen bitartean, berriz ere, arteragoko egunean topo egin nuen umearekin aurrez aurre aurkitu nintzen. Bere begiradak oraingoan, laguntza eskatu zidan. Egia da, bai, begirada bakar batez, mila hitz marraztu daitezkeela bihotzean. Begitxo ilunak, eta irribarre landua zuen umetxo eder hark, nirekin eramatera bultzatu ninduen. Umea eskuartean hartu, eta hilerrira eraman nuen. Pausu isil haien artetik, berriz ere, hilobi haren aurrean gelditu nintzen. Argazkitxo bat, nabaria zen ezkerraldean.

Dena ulertu nuen jada. Amona haurra zenean, justiziak bere amarengandik aldentzen derrigortu zuen. Hilobian zegoen gorpu hura, nire birramona zen, dudarik gabe. Bere aurrean eseri, eta amonaren arazo guztien erantzuna nire begien aurrean nuela ere ezin sines nezakeen. Umetxoa nire beso artean lo gelditu zen, eta bere amets goxoak nire besoetan marrazten zituen irribarre ezkutu batez.

Goiza zen, eta amona bisitatzera joateko beharrezana izan nuen. Zerbait gertatzen zen, eta berehala jakiteko irrikan negoen. Gelako atea jo eta ireki nuen. Amona bertan zen, itxuraldatuta, zaharkituta. Bakardadearen islada zen. Oraingo honetan, eskua hartu eta honela hitz egin nion: "Zure barneko arazo guztiek, arrazoi nabarmenaren ispilu bilakatuko dira orain niretzat, maite zaitut". Begiak itxi zituen eta bere birikien arnas landuak, desagertu egin zirren, berriz eztul egin eta begietara begiratu zidan. Amona jada, ez zen gaztea eta bere sentimenduak kanpora ateratzea kostatzen zitzaion. Gero eta barnerago zeuden bere hitzak, eta ahots-kordek, soinua kendu zioten bere hitzei. Ez zegoen soinurik, hitz haietan, amaieraren seinale hotz hark ni ere mututu ninduen. Malko bat jariatu, lurrak narra egin zuelakoan, amona besarkatu, eta behin eta berriz errepikatu nuen irribarre sentikor hura. Nire alboan zegoen haurtxoak, amona besarkatu zuen baita, eta musu eman zion. Emakume nagusi hark, kalean aurkitu nuen umetxoa ezagutzen zuen. Ez zen asko falta gure hegazkinak bueltako bidea egiteko. Amonak, umetxo hura nirekin eramateko erregutu zidan, eta neure burua balitz bezala zaintzeko eskaria egin. Niretzako, amonaren nahiak, agindu ziren. Beraz, umetxoa hartu, eta amona Iraken utzi nuen, beste irtenbiderik gabe.

Maria, halaxe zuen izena nire amonak, eta gaur ere horrela du izena. Bere ametsa jaioterrian bere azken egunak igarotzea izan da beti. 1960. urtean jaiotako emakume hark, bere amets guztiak egia bihurtu zituen bere garaian.

Kaixo guztioi ! Leire dut izena, Euskal Herrian bizi naizen gazte bat besterik ez izan arren, nire bizitzan gehien maite izan dudana pertsona izan zaren zuk, ametsak egia bihurtu dituzu. Gaur egun, ikastola txiki bateko ikasle naiz, eta zure ahotsak entzuten ez ditudan mundu baten bizi naiz. Iraken aurkitu nuen haurra, zure eta nire erruz, umezurtzen etxe batean dagoen gatibu txikiarena da. Ahal dudana bakoitzean, limoizko azukrezko gozoki bat ematera joaten natzaio. Eta berak, bere irribarre politenaz eskertu, eta berriz ere korrika alde egiten du bakardadearen txokora. Eta nire barnean ahots batek dio Maria Iraken dagoela, pobrezia nabarmena den hiri hartan eta pertsona alaiena dela.

Minik sentitzen ez duen emakumearen papera du berak, eta zeru-lurren artean dagoen toki ezkutu haietan, irribarre bat izkutatzen duela egunero. Berdin zait, zure inteligentziak ipuin polit hau ulertu duen ala ez, nik ez baitut zuretzako idazten, irribarre batekin eskertuko didan neska-mutil horientzat baizik. Nire hitzen balioa, ez da ia igartzen eta zure erantzunen balioa are gutxiago. Pertsona da, Lur honetan, jaun eta jabe sentitzen den pertsona berekoiena. Mila eta bat ametsi uko egitera behartzen gaituen sistema honek, nire amonarengan ez du kalterik txikiarena ere izan. Horrelako pertsonengan nabaritzen da benetako ilusioa, benetako indar distiratsua, benetako egia. Nire berba hauek ez dute ezer aldatuko, baina nire pentsamenduak argitara ateratzeko pasarte sinpleena eta ulergaitzena kontatu dizuet. Nire bihotzak islatutako koloreak marraztuta geldituko dira behin eta betiko nire barnean. Berriz errepikatzen dut... Neure bizitza emango nuke amonarekin igarotako momentuak berriz errepikatzearren, baina jada, ezinezkoa da.

Amaiera arraroa jarri diot, ordea, nire ipuin txiki honi, baina nire arrazoen munduak ez dizu kasurik egingo. Beharbada guzti honen atzean, zure harridura aurpegiak beldurtuko nau, baina garrantzirik txikiarena ere ez du. Bi pauso atzera eman, begirada altxatu, eta aurrera segituko duen neska izan nintzen, naiz, eta beti izango naiz. Nire minbiziak barnetik hiltzen nau, munduko tokirik ezkutuenean bilakatu da eta amonak bere besarkada gozoena eskaintzen dit. Oroitzapen ezkutuen amets isilen hilerriak esnatutako besarkada gozoak sentitzen ditut. Ba al dakizu istorio honek amaiera zoriontsu bat duen? Bizitzak eskaintzen digun heriotzaren aurka ezin joka dezakegu. Hego gabeko hegazti bat bezala sentitu naiz, nire hegaldiak behin eta betiko bukatu direnean. Nire bihotza ziztada bakar batez pozoitu da.





Asier Gordo Badiola

DBH 3. maila

“Bizitza egin gabe datorkigu, eta bakoitzak zulatu behar du bidea”

AMETSAK AMETS?

Gau erdian esnatu ninduten leiho kanpotik zetozen orroen pareko haize boladek. Ekaina amaiera aldeko goizalde hura ez zen beste egun batzuetakoa modukoa. Ondo gogoratzen dudan amets batetik esnatu ondoren pentsakor geratu nintzen ohean etzanda, amestutako hark begiak ireki izan balizkit bezala. Ez nekiena da, amets hura istorio amaigabe baten hasiera eta tankera hartako pentsamenduen hasiera zenik.

Oso goiz jagi nintzen. Lo eginezina nuela eta pentsatu nuen burmuinari atsedean bat ematea ideiarik onena izango zela eta egonezin harekin, nahiz eta goizeko seiak izan, gosaltzera joan nintzen. Eskaileretatik behera nindoala leihotik ikusi nuen nola hodeiek eguzkia estaltzen zuten.

Uda latza igarotzen ari nintzen, esperantza guztia galdua nuen, lagunak galdu nituen gero eta isolatuago egoteagatik. Ez nintzen ondo sentitzen eta batzuetan depresio gogorrak izaten nituen. Nerabezaroa ote? Bai hori izango zen seguruenik, baina ez zegoen txarto pasatuko ez nuen egunik.

Egunean zehar betikoa egin nuen, udako egun bero eta atsegin baten egin daitekeena. Baina ezberdin sentitzen nintzen. Ez, ez nintzen bat-batean pozik jarri; zerbait arraroa sentitzen nuen. “Bart gaueko ametsa ote?” galdegin nion neure buruari. Ezinegon handia sortzen zidan aurreko gauean neure buruan proiektatu zen film hark.

Baso ilun bat zen, gaua bezain beltza, misteriozua eta beldurgarria aldi berean. Aurrean, baso erdian, etxe bat ematen zuen eraikuntza bat zegoen. Adorez beteta aurrera egitea erabaki nuen, nahiz eta neure barruan neukan zerbaitek aurrera egitea eragozten

zidala sentitu. Hurbildutakoan eta etxe bat zela ikusterakoan, barrura sartzea erabaki nuen. Atea ireki eta...

Hurrengo goizean iratzartzerakoan lasaiago sentitzen nintzen. Ni beti izan ohi nintzen mutil lasaia eta ez nien garrantzi gehiegi ematen egun batetik bestera gertatzen ziren gauzei; horrela, bada, aurreko eguneko ametsa jadanik erdi ahaztua nuen. Hala ere, hutsune bat sentitzen nuen. Amets haren amaiera ezagutzeko jakin-mina nuen. Zer esan nahi ote zuen ametsak? Momentu batez ahaztea erabaki nuen eta kalera irten nintzen jan ostean, eta arazoak arazo, lagun batzuekin pasatu nuen arratsaldea. Oraindik ere txarto sentitzen nintzen. Noiz arte iraungo zuen infernu hark? Gogaitzen hasia nintzen egoeraz. Etxera heltzean, ideiek berriro bonbardatu zuten nire burmuina. Ohera joatea onena izango zela pentsatu, eta hala egin nuen.

Etxe hark, erortzeko zorian dagoen zubi batek bezainbeste konfiantza eskaintzen zuen. Hain zen zaharra eta klasikoa, ezen beldurrezko filmetako etxe bat ematen zuen; dena den, handik zehar gelak miatzen jarraitu nuen, guztiak zer zentzu zuen argitzeko. Gela haiek arakatuz eta arakatuz, azkenean harrituta utzi ninduen gela bat aurkitu nuen, liburuz betetako eta liburutegia zirudien gela bat. Argitsua zen eta oso dotorea, jauregi baten gela baten antzekoa zen. Hango altzarien forma leunek eta borobilek 200 bat urte eramaten ninduten denboran atzera, iraganeko aberatsen etxeetara hain zuzen ere. Bazirudien bertan ez zela inor bizi izan denbora luzez, hautsez beteta zegoen gela. Apalategietako ostadarraren koloreak osatzen zituzten liburuek oso giro epela eta lasaia sortzen zuten, gustura egotekoa, baina, hala ere, ez nintzen bertan seguru sentitzen. Bertako liburu batek nire atentzioa erakarri zuen...

Argitu zuen eguna. Izerdi patsetan esnatu nintzen. Ametsak aurrera jarraitzen zuen eta, egia esan, ez nekien poztu edo ikaratu; alde batetik, nire jakin-mina ordurako ase zegoen, baina beste alde batetik amets haiek kikilduta ninduten. Gertaerei garrantzia kentzeko edo, "Ametsak, amets dira, haietako edozer ezin da gertatu benetako bizitzan. Ez ezazu txikikeria horiengatik burua jan, lasaitu zaitez. Ametsak benetako mezu bat izatea? A zer nolako txorakeria!" Eta egia esan, bueltaka izan nuen neure buruan ideia hori, hau da, amets hauek esanahi bat izateko posibilitatea. Baina ez, ezinezkoa zen, hura bakarrik pelikuletan gertatzen zen, ez zen posible, edo behintzat hori nahi nion neure buruari sinestarazi.

Egun hartan ez neukan ezer egiteko gogorik. Oso txarto sentitzen nintzen azkenaldian errutina bihurtu ziren arazo guztiengatik. Bizitza zer zen pentsatzen hasi nintzen, ea merezi zuen krisialdi guzti hura sufritzea. Txarrerantz nindoan. Egun hartan ametsak zirela eta ez zirela, ez nuen lasaitasun momenturik izan, etxera heldu bezain laster, gauero bezala, ditxosozko korapilo hura sortu baitzitzaidan. Bazegoen neuronak erretzen zizkidan elementu bat. Zer zen liburu hura? Zergatik begiztatu nuen lehen begiradan?

Azkenik, egunero bezala, hoberena arazoak alde batera uztea erabaki eta oheratu egin nintzen. Baina egoera berezia eta arrotza zen. Ez zen kuriositatea soilik, beste zertxobait zegoen amets egitera bultzatzen ninduen, eta konturatu gabe, lo geratu nintzen.

“Bizitza eta honen gorabeherak ” zioen eta misterio kutsu izugarria ematen zion liburu beltz hari. Une batez, gelak nigan sortutako beldurra ahaztea erabakita nuen liburu misteriotsuak zioena ezagutzeko irrikaz. Apaletatik hartu eta irakurtzen hasi nintzen. Hitz artean ibili nintzen murgilduta tarte luze batez.

“Bizitza. Zer da bizitza? Bizitza guztia da, bizitza da bizi sentiarazten gaituena. Batzuetan gogorra da, merezi ez duela dirudi, ematen du dena txarto doala, txarto sentitzen gara eta zergatik bizi garen galdetzen diogu geure buruari.”

Zuzen nenbilen? Zoratu egin ote nintzen? Goiz hura galderen goiz bihurtu zen, ametsek zerbait irakatsi nahi zidatela benetan sinesten hasi nintzen. Besterik gabe, burmuinari jo eta ke azkeneko jakinduria tantak ateratzen igaro nuen eguna, logika bat bilatzeko.

“Horrez gain, ea zulo sakon horretatik inoiz irtengo garen pentsatzen dugu, etengabe hondorantz goazen bitartean, ea bide horretan, erorketa horretan, bertan heltzeko adarren bat aurkituko dugun, alboan dagoen bide batetik berriro ere gorantz egiteko gai izango garen. Ez dugu gorantz egiteaz besterik pentsatzen, hura da gure helburua-eta. Baina, dena dela, beherako bidean jarraitzen dugu, gorantz egiteko esperantza guztiak galdurik. Zerbait aldatuko den galdetzen diogu geure buruari, ea ekaitza eta gero eguzkirik izango den, ea gerra eta gero bakea izango den, mina eta gero poztasunik sentituko den. Ez gara inon seguru sentitzen gure baitan izan ezik. Nahi gabe ere geure buruari min ematen diogu, berez jasaten duena baino gehiago. Ez diegu besteei gure arazoez hitz egiten, ez dugu inorengan konfiantza izaten, beste batzuek bezala min emango digutela pentsatzen dugu. Gure etorkizuna idatzita dagoelakoan gaude, etorkizuna beltza dela eta ezin izango dugula aldatu.

Baina ahaztu egiten zaiguna da, behera egiten duen guztiak gora egin beharko duela, ekaitza eta gero noizbait beti irtengo duela eguzkiak, gauza txarrak eta gero onak datozela. Beti lortzen dela oreka bat, buruhausteen atzetik atsedena datorrela. Etorkizuna ez dela grisa, urdina baizik, eta beti dagoela esperantza, txikia bada ere, aurrera egiteko eta irabazle irteteko. Ez gara konturatzen askotan gauzak ez direla guk pentsatzen ditugun bezalakoak, eta hausnarketari tarte bat utziz gero, jabetuko gara ez direla hain txarrak; ez dugula zertan negar egin behar barre egin dezakegunean. Eta batez ere, pentsatu behar duguna da, gure etorkizuna ez dagoela idatzita. Gogoratu mundua zuk sortzen duzuna dela, zuk erabakitzen duzu zure etorkizuna zelakoa izango den.”



Gau luzearen ostean umore honez iratzarri nintzen aspaldiko partez. Ezpainenetan barretxo bat marraztuta, bizitzan tristurari aurre hartzea erabaki nuen, ez nintzela berriro depresioen gatibu izango. Konturatu nintzen ez nuela zertan bizitza txarra eduki behar eta pixkanaka-pixkanaka hobetzen joango nintzen, bizitzak balio handia zuela ohartuz, eta nire bideari ekinez.

Amets haiek, hain bereziak izan ziren haiek, hasieratik transmititu zidaten halako zer berezi bat, eta azkenean euren esanahia ulertu nuen. Ametsek bazuten esanahia. Ulertu nuen azkenean!

Ekaina amaierako gau hartan ikasitakoa ez dut inoiz ahaztuko, amets haiek irakatsi zidaten bizitza honetan etorkizuna ez datorrela aurretiaz programatua, bizitza eta mundua norberak sortzen duena direla.

Uda hura nire bizitzako udarik onena izan zen, “ni” berri bat sortu zen.

Eskaileretan behera nindoala, leihotik begiratu eta ikusi nuen nola eguzkia hodei beltzen artetik irteten zen.



Iker Urlezaga Arazosa
DBH 3.maila

“Negua, udaberria, uda nahiz udazkena, etxera heltzen azkena”

LO-KULUXKA MOMENTU ONEAN



“Ni mutil koxkor bat baino ez naiz gorputzez, baina nire gorputz txiki hau indarrez betetako arima sendoaren maskara faltsu bat baino ez da. Pirata talde bat osatu, eta zazpi itsasoetako altxorak lortuko ditut”. Beep... Beep... Iratzargailu madarikatua!

Hogei urte ditut eta lanik gabe. Egiten dakidan gauza bakarra amets egitea da. Bada garaia amets hauek alde batera utzi, eta egia bihurtzeko. Arropa batzuk hartu eta itsasontzi bat erostera abiatuko naiz.

Hori bai, itsasontzi ederra! Itsasontzi horrekin pirata ahalguztidunek ere igaro ezin dituzten itsasoak zeharkatuko ditut, itsasoa eta bere munstro arriskutsuak nire maskota bihurtuz. Arazo txiki bat aurkitzen dut,

baina ez du garrantzi handirik, bost mila euro balio ditu, eta nik ba..., hamar..., hogei..., hogeita hiru euro eta hamar zentimo ustel, ziztrin, kalamidade, zikin baino ez ditut.

- Aizu gizon! Ze ontzi eros dezaket hogei euroren truk?
- Baa... pixka bat ustelduta, konponketa apur batzuk egin beharko dituzu, baina zuretzako ontzia, debalde!
- Eskerrik asko jaun agurgarria!

Gizon horrek bere aurrean, ni, Jokin, piraten hurrengo erregea bere aurrean ikustean, ontzia ematea beste aukerarik ez du eduki. Egia esan, nik uste dut ontzi ustel hau gainetik kentzeko eman didala. Dena delakoa, konpontzera noa.

Ontzia prest dago, baina orain jendea behar dut nabigatzeko. Grr..., Grr... Gose naiz, eta tripa hutsik ezin dut pentsatu, horregatik, bidaia hasi baino lehen, mundu guztia eskura duen eta debalde den *buffet libreria* noa, amonaren etxera!

Tripa beteta, ontzia prest eta jatekoz goraino horniturik! Bidaia hastear da!

Itsaso ziztrin eta madarikatu honetan ez dago ez irla ezta arrainik ere. Hiru egun daramatzat nora joan ez dakidala; bada ordua abentura bat jasateko edo horrelako zerbaaaaa! Zer da hori? Inoiz ikusi dudan arrain handiena da! Eta ni bezala, gosez dirudi. Ura irensten hasi da, korronte handi batek bere ahora tira egiten dit. Ezin dut gehiago!

Bere aho barruan nago; oso ilun dago hemen barruan, arrain honen barrualdetik nabil autobidea izango balitz bezala, errepidea hodi bategatik aldatuz, eta euria edo eguzkia egin beharrean, urin likatsu batzuek nire itsasontzia suntsitzen dutelarik. Zer da hau? Hilda al nago? Edo oraindik urdailera sartzeaz? Infernua ere ez dago hau gaindituko duen torturarik. Uste dut jada gelditu naizela, nik uste dut urdailean nagoela. Ea labana bat aurkitzen dudan, edo ezpata bat, agian.

Itsasontziak gure ikastolako zaintzaile bizardunak baino urte gehiago dituen kutxa bat zekarren barnean, kutxa horretan eskuz eginiko ezpata bat aurkitu dut. Orain bai, urdaileko pareta hauek zeharkatzen dituen ezpata honekin, aurrera egingo dut. Uste dut bide errazena bihotzera heltzea dela. Eta horretarako zain bat bilatzea da onena. Ebaki hau, ebaki hori, zer da hori? Hori ere ebaki, eta oraindik ez dut zain ziztrin bat ere aurkitu. Zoritzarrekoa ni, munduko itsaso ederrak deskubritzera irten, eta arrain erraldoi baten sabelean hilko naiz! Zoritzarrekoa ni! Esperantza guztia galduta neukan, baina, esperantza hori, San Pedrok zaindutako zeruko ateak baino gorago igo zitzaidan. Zer eta bihotzera heldu nintzen; orain, bihotzeko arteriak ebaki eta salbu izango naiz. Txakurraren putza! Gure ama hizkuntza euskarak urteak adina bihotz ditu infernuko arrain honek, Satan berberak ekarria dirudi. Eta bihotz bakoitzak bi arteria eta bi zain dituela jakinik, hemendik Aita Santuak ere ez nau ateratzen. Grrr... Gosea berriro, itxaron, odolak ez al ditu gorputz guztira mantenugaiak eramaten? Nik hainbeste faltan botatzen ditudan mantenugaiak odoletik lortuko ditut. Ebakitxo bat hemen eta tragoxka bat han, indarberritu naiz. Mantenugai faltarengatik behintzat, ez naiz hilko. B plana pentsatzen ari naiz orain; animalia hil beharrean, digestio aparatua zeharkatuko dut uzkira heldu arte. Beherago joango naiz, horrela hesteak zulotu eta bidaia bizkortuko dut.

Uzkitik zikin-zikin ez irteteko, baltsa bat egingo dut. Eta horretarako gorputzeko biltegira joango naiz: urdailera eta hesteetara. Bihotzean hartu ditudan arteriak, oinarria izango dira. Amazoniako zuhaitz handiak bezala. Zain eta kapilarrak, hari sendoz

eginiko sokak. Eta azkenik birrikak, nire bela handiak izango dira nabigatzeko. Nire baltsa handia prest dago urdaileko urin gastrikoak zeharkatzeko. Ziztu bizian, uzkiraino! Piloro jauna, ez nazazu arrotz gisa hartu, eta eraman nazazu heste meharreraino ziztu bizian. Txakurraren putza berriz ere! Nire baltsa hain da handia, urdaileko balbulatxoetatik ezin naiz pasa. Jokin, pentsatu, pentsatu..., aldaketa batzuk egingo dizkiot baltsari. Punta zorrotzagoa egingo dut, punta gutxienez pasatzeko, eta triangelu formaz baliatuz gero, eta zabalagoa izango da, oreka egoki mantentzeko. Sentitzen dut piloro jauna, nire baltsa honek min egiten badizu, pasatzeko behar handia daukadalako da.

Ea ba, hasi zaitez pasatzen bigarren aldiz! Oraingoan bai! Pilorotik pasatzea lortu dut. Orain, mundu osoko parke baten ere ez dagoen errusiar mendia zeharkatzen nago. Gora, orain behera, orain itzuli osoa. Baina ez daukat denbora alferrik galtzeko. Hesteetako “bultotxo” hauek Biologiako klasean andereño aspergarri horrek hainbeste aldiz errepikatu zizkigun mikrobiloak izango dira. Mikrobiloetan elikagaietako mantenugaiak odolera pasatzen dira. Lurrikara bat? Dena mugitzen ari da, ni hesteetako paretetara hurbiltzen ari naiz indar handiz, pareta zeharkatzen ari naiz. Mikrobiloek mantenugaitzat hartu naute, eta odolera pasatu naiz. Hau bai harrigarria! Nirekin batera, plasma eta eritrozito, leukozito eta tronbozitoak ari dira bueltaka. Hau da, globulo gorriak, hemoglobinarekin bitartez oxigenoa garraiatzen dutenak. Globulo zurriak, infekzioak erasaten dituztenak eta plaketak, odolaren koagulazioan parte hartzen dutenak. Orain, uste dut gorputzaren V8 motorrera hurbiltzen ari naizela, bere sistole eta diastole mugimenduek berunik gabeko gasolina leku guztietara eramaten dute. Bai, orduan bena edo benula baten barnean nago, bihotzeko sarreran itxaroten. Orain bai, aurikulara sartu naiz, balbula mitrala ireki eta bentrikulura pasa naiz. Bizkor, sistolea! Zirkulazio txikian nago, gorputzeko patata-zakuetara bidean. Lagun bat galduko dut bertan. Karbono dioxidoa, baina beste lagun bat etorriko zait, oxigenoa. Baina hau guztia, albeolo eta inguratzen dituzten kapilarrei esker. Orain berriro, motorrera sartu naiz, eta orain pistoiaren pareko indarrarekin, bultza nazazu gorputz guztira.

Orain bai, zirkulazio nagusian nago, zelulatxoetara mantenugaiak eta oxigenoa eramaten, edozein pertsonak bere landareei ura botatzen dien bezala. Baina oztopo bat dago, karburadorea duena izena. Ni, odol honetan, arrotza naiz, eta bere lana ni irenstea da, odola garbitzeko. Asmatuko zenuten jada, baina badaezpada beste arrasto bat emango dizuet, babarrun handiak dira. Bai, giltzurrunez ari naiz. Ureterretan barrena depositura heldu naiz, baina okerreko depositura, denbora gutxi barru, ureterretik kanporatuko nau.

- Riiiiing! Riiiiing!

- Aaaaaah! Aaaaaah!

Biologiako klasean nago, lo geratu naiz bere azalpen aspergarriak entzuten nengoela. Baina hori ez da txarrena, nire gorputz osoa baino handiagoa den negatibo bat jarri dit andereño Rottermeiller halakoak! Dena txarto irteten al zait? Zer egin dut nik hau gertatzeko? Nik dakidala, ez diot nire arima Satani saldu, eta elizara ere joana naiz noizbait. Ijitoren batek begikoa botako zidan?

Nire tristezia murgilduta nengoen gau hartan, baina azkenean loak hatu ninduen.

- Riiing! Riiing!

Beste egun madarikatu bat, Jainko madarikatu batek eginiko mundu madarikatu honetan. Galtzontziloak zulotu, esnea sukalde osoan zehar banatuta, autobusa galdu, eta zer eta klasera sartu baino bost minutu lehenago azterketa dagoela esan didate.

Andereño Rottermeillerek azterketak zuzendu ditu. Gaztelaniaz taladro hitzarekin ezagutzen den makinak eragindakoa baino dardara handiagoa daukat. Arriaga Gartzia, Jokin. Azterketa honetako emaitza, 10 bat. Zer? Hau bai poza! Azkenean klasean lo geratzea ongi etorri zait errepasso bat egiteko.



Katalin Ibarzabal Galarza

DBH 4. maila

*“Gauza batzuk gogoratzuz, beste batzuk ahaztuz eta
beste batzuk asmatuz, horrela bizirauten dugu”*

KRISTALAREN BESTALDETIK

Urteak igaro dira Joxeren tabernara iritsi nintzenetik. Sei mila zerbeza inguru sentitu ditut, lau mila Coca-Cola eta whiskyrenbat edo beste. Hala eta guztiz Joxek zerbitzatzen duen edari bakoitza ezberdina dela esango nuke, bakoitzak jabe ezberdinak dituelako eskatuak diren momentutik, eta jabe bakoitzak istorio bat du. Garagardo asko eskatzeko arrazoi ugari daude, eta arrazoi horiek ahora eramaten nauten momentuan jakiten ditut. Ospakizunetarako zerbezetatik bikote baten haustura gainditzeko hartzen diren whiskyetaraino, umeek hartzen dituzten mostoetatik, gazteen kalimotxoetaraino. Hainbat jende ezagutu dut, adin, sexu eta arraza ezberdinekoa. Bakoitza istorio batekin, ahaztezina den istorioarekin.

Egun hotza da gaurkoa. June eta bere ama atetik sartu eta kafesne eta Cola Cao bat eskatu dituzte. Junek Cola Cao-a eskuartearen hartu du eta gogor eutsi nau, apurtu nahiko banindu bezala. Eskuak berotzen ditu, hotzak dauzka, baina arima sutan. Ume zintzoa izan dela uste du eta Olentzerok aurtan oparirik ere ez dio ekarri... Gainera ama negarrez ikusi zuen bart, lanik ez duelako. Juneri ez zaio horren ideia txarra iruditzen lanik gabe egotei, izan ere ama beti dago etxean eta sarriago ikusten du. Ahora hurbildu nau, poliki, putz eginez, badaki eta laba dirudiela esne honek. June ume ona da, zintzoa, ama triste ikusteak arima urratzen dio. Orain bere aurrean eserita dagoela ama, gorputza hor duela badaki baina burua galduta du; June bere lehengo ama nahi du. Ama langilea eta lehen erosten zizkion jostailuak nahi ditu. Olentzerok ekarri ez, eta datorren urtera arte itxaron beharrak negar batean hastea eragin dio. Ama ez da konturatu.

Gogoratzen zaitut. Ezagutzen ditut ezpainok, dastatu ditut, dastatu nauzu noizbait. Baina noiz? Ez dut zure aurpegia ezagutzen, ez eskuak, baina ziur nago

dastatu zaitudala. Hurbildu nazazu berriz ezpainetara. Badakit, badakit, nor zaren. Orain ez duzu barrerik egiten, horregatik ez zintudan ezagutzen. Hamaika aldiz eskatu duzu mostoa tabernan eta izotzekin ahoan alde batetik bestera lasterka ikusi eta entzun zaitut, “Ama, ama!” oihukatzen. Ume zarenetik ezagutzen zaitut Maialen. Zer gertatzen zaizu orain? Gaur bezalako egun gris batean zerk ekarri zaitu hona babestera? Zerk eragin dizu mostoko mahatsak, ardoko mahatsengatik aldatzea? Eta lehen gozatzeko edaten zenuen hori zergatik edaten duzu orain itotzeko? Zure ezpainetan sumatzen dut bakardadea, pena, agonia ... egizu negar Maialen. Trago batean edan duzu ardo guztia eta malkoetan izuri duzu. Harritu nau zure ezpainetan irakurritakoak, neu ere tristatu nauzu. Ez dut zure ezpainetara hurbildu nahi berriz, sufrimendua baino ez didazu transmititu. Ez dut berriz sentitu nahi. Baina gogorra izan zaitezen esan nahiko nizuke, aurrera egin dezakezula, zure alabarengatik bada ere bularreko minbizia gaindituko duzula.

Joaten ikusi zaitut, begiak lausotuta tabernako atea ireki duzu, Joxe agurtu gabe. Laster ikusiko gara, eta zure irriak dastatuko ditut berriz, edo zure alabarenak, Ainhoa txikiarenak.

Hara, hara! Gaurkoan ere ardo gorritz bete duzue mahai ingurua. Herriko nagusiak, herriko esperientziadunak, kontalariak, karta jokoan trebeak. Baina gaurkoan ez dakit nor den triste dagoena ... Edo airean dagoena ez da tristezia? Ez, ez da. Dezepzioa da. Gure Martin da dezepzioz josita dagoena. Gaur ez dut nik zure ardo gorria Martin baina hemendik ikusten zaitut goibel. Zure semea beti izan da tipo jatorra Martin, ez zaitez arduratu. Ziur nago; apustu egingo nuke, zuk orain musean jokatu dituzun harritxoek bikoitza ez dela horrela gertatu. Txikitatik ezagutzen dut zure semea, ColaCao-tik kalimotxora pasatzen ikusi dut, ez du laguna salatu. Gogotsu jipoitu dute eta ez diote kondena jaitsi baina ez du laguna salatu. Guardia Zibilak aspalditik jarraitzen zuen semearen laguna eta ezin izan da gehiago ezkutatu. Atxilotu egin dute baina ez da semearen errua izan Martin.

Lasaitu zarela ikusten dut, nire berdina pentsatu duzu. Semea bihotz onekoa ez ezik lagun paregabea da; ea laster etxean daukazu. Gabon gauean izaten duzuen ahulki huts hori norbaitek bete behar du, berari barre egitea tokatzen zaion une hori norbaitek bete behar du, zure ilobak aita bat behar du. Segi karta-jokoan Martin, oraingoan karta onak dituzula nabari da eta.

Gaurko eguneko lehen edaria eta garagardoa da. Hotza dago, baina oso ona. Garagardoak alaitzen nau, alaien edaria da, berriketarako edaria, jaien hasierako edaria. Gaurkoan jai baten hasiera da ere; Peru, Aintzane eta Leire datoz. Umoretsu datoz, urte berria ezin hobeto hasteko asmoz. Peruk trago batean garagardo erdia edan du, pozik dago azkenik amak buelta bat emateko esan baitio. Dena gainditu du eta mutil jatorra da, gaiztakeriaren bat edo beste egin dituen arren merezia du bueltatxo. Peruk ordea badaki ez dela horrela izango, ez dela bueltatxo bat izango. Berak jai gogoa du, gaztea da eta debekatuta dauden gauzak egitea atsegin du. Ez zaio burutik pasa amak izango dituen kezka guztien zergatia bera izango dela; ondo pasatzea du helburu, lagunez

inguratuta. Ez da inolako tristeziarik sumatzen ingurumenean, denak alai daude ahaztezina dirudien gau bati hasiera ematen..

Barreka daude denak, irriak irrien truke eskaintzen. Hainbeste ezbehar eta tragedien ostean neuri ere ondo datorkit zoriontasuna sentitzea. Gazte baten zoriontasuna denean hobe.

Joxe eguneroko edalontzi garbiketak egiten ari da. Eskuetan hartu nauenean labaindu egin dut, eskuak xaboiz beterik zituelako. Lurrera erori eta zazpi mila zatitan apurtu naiz. Joxeri ez dio askorik axola izan, erratza hartu eta poltsa batean sartu nau. Nik segituan pentsatu dut ez dudala inoiz ezpainik sentituko, istorio gehiago entzungo, jende gehiago ezagutuko. Baina noizbait beste edalontzi bat izango naiz, edo botila bat eta orduan jende gehiago ezagutuko dut. Laster arte.



Lurdes Ondaro Mallea
DBH 4. maila

“Irakurtzea arriskatzea da. Garana eta doguna babesik gabe uztea”

BOTETAKO SUGANDILAK

“Ez zarete umeak jada, eta gizonen moduan portatu behar zarete” zioen Bassirouk gure aurrean oinez, lehenengo eskuinera tipi-tapa tipi-tapa, filaren muturrera heltzean orpoen gainean buelta erdia eman eta ezkerrean tipi-tapa tipi-tapa. *“Gizonek ez dute negarrik egiten, gizonak ez dira emakumeen antzera negarti hutsak. Eta garrantzitsuena, gizonek ez dute gupidarik.”* Tipi-tapa tipi-tapa. *“Gizonek borroka egiten dute. Gerlariak dira, odolzaleak.”* Tipi-tapa tipi-tapa.

Azkenean ibiltzeari utzi zion, eta nire parean geratu zen. Lasaitasunez, gozatzen ari balitz bezala, hamar bat segundo hartu zituen ni aztertzeko. Goitik behera eta behetik gora miatu ninduen. Ondoren, irribarre. *“Soldadua, etorri nire ondora.”* Arnasa sakon hartu, eta bere ondora joan nintzen. Handik, nire kideak ikus nitzakeen. Haien aurpegiak ez ziren batere gozoak. Begiradei eutsi ezinik, lurrean iltzatu nituen begiak. Sugandila bat zebilen gure hanken inguruan. *“Soldadu, aukeratu bat eta tiro egiozu.”* Orduan indar guztiz begiak itxi nituen, horrela amesgaiztotik esnatuko nintzelakoan. *“Zer esan dizut? Ez duzu gogoratzen? Edo ez duzu entzun? Ba nik esango dizut: tiro egiteko! Bigarren aukera duzu, ostantzean, neuk egingo dizut zeuri tiro, aditu? Badakizu zer egin behar duzun.”* Lepoan neraman erriflea hartu, eta tiro egin nuen, nori begiratu gabe, begiak lurretik altxatu gabe. Berehala, gorpu baten hotsa lurrera erortzen. Tiro hotsak edo gorpuaren zaratak beldurtuta, sugandila ihesi zihoan.

Hamar urte inguru izango nituen orduan.

Gau hartan bertan egin nuen ihes. Denak lokartu zirenean, ilunpetan motxila egin (beharrezko gauzak bakarrik hartuz) eta isil-isilik irten nintzen. Oihuka irten banintz ere ez zatekeen inor konturatuko, denak drogatuta zeuden eta, baina senak isilik ibiltzeko esaten zidan.

Gauero, entrenamendu eta misioak burutu ondoren edaria eta drogak ematen zizkiguten. “Gizonek, euren eguneroko lanak amaitu ostean honela dibertitzen dira.” Eta bakarrik uzten gintuzten.

Kanpamenduaren amaieran basoa hasten zen. Ez nuen dudarik egin eta zuzenean sartu nintzen. Gure entrenamenduetako bat basoan ibili eta orientatzea zen, inolako arrastorik utzi gabe. Eguneroko lana zen hura, beraz goiza heldu orduko handik urrun egon beharra neukan.

Egia esan zorteko nengoen, ilargi betea ageri zen eta zeruan, ibilaldia asko erraztu zidalarik. Hala ere, piztiekin kontuz ibili behar nintzen. Behin entrenamenduetako batean, ni eta Ketu, nire lagunik onena, taldetik aldendu eta galdu egin ginen. Onena kanpamendura itzultzea izango zela pentsatu genuen. Hala ba, gelditu eta zuhaitzei entzun genien. Zuhaitzek hitz egiten baitute entzuten jakinez gero. Ondoren, buelta hartu eta kanpamendurantz abiatu ginen. Bidean, begi horidun piztia handi batek ikusi gintuen eta atzetik etorri zitzaigun. Orduan, errifleak generamatzanez, tiro egin genion eta seko hilda geratu zen. Tiroen zaratak erakarrita edo, taldekideak etorri eta eurekin itzuli ginen kanpamendura. Astebetez egon ginen zigortuta, sukaldean laguntzen.

Baina nik orduko hartan ez nuen lagunik ez erriflerik alboan, eta gaua zen. Beraz, oso kontuz ibili beharra nuen adaxka edo hosto iharturen bat ez zapaldu edo lur mugikorretan ez jausteko. Bestela, nireak egina zuen.

Argitu zuen egunak eta itzuli zen ilargia berriro ere. Ziur nengoen bide onetik nindoala, baina egunak joan egunak etorri gizakiaren arrasto txikiena ez ikustean, arduratzen hasi nintzen. Gutxi ez balitz, jana eta edana agortzen neuzkan, eta nekea egunetik egunera gero eta handiagoa zen.

Halako batean, hogeita zazpi ilargi eta beste horrenbeste eguzkiren ostean, kea sumatu nuen urrunean. Gure herrixka izan zitekeela eta, barrutik indarrak atera eta aurrera egin nuen abiada batean.

Heldu nintzen azkenean. Gure herrixka zen hain justu. Haatik, han ez zen egun batean gertatu zenaren arrastorik nabari.

Egun madarikatu hartan oskarbi jagi zen eguna. Mutikoak herrixkaren erdigunean, plaza antzeko batean bilduta geunden, ahuntzak zaintzera larreetara joateko. Halako batean, kamioi bat heldu zen herrixkara soldaduz beteta. Egin zuten lehen gauza agure bati tiroa bota eta “*Beste horren moduan amaitu nahi ez baduzue, hobe duzue gure aginduak betetzea*” esatea izan zen, mehatxuka. Beste guztia oso bizkor pasa zen; mutikook kamioira sartu gintuzten, eta beste guztiak bertan utzi. Kamioitik atzera ere mehatxuka hasi ziren, ume gehiago nahi zituztela esanez, itzuliko zirela berrien bila.

Baina hura antzinako kontua zen herrixkan. Umeak olgetan zebiltzan herrian zehar, eta mutiko batzuk koxkortzen hasiak ziren jada. Berriz soldaduak laster agertuko ziren seinale.

Etixerantz abiatu nintzen. Heltzean ikusi nuena ez nuen inondik inora espero: han ez zen inor. Ez zegoen inor, hutsik zegoen, eta denbora luzea egona zen horrela, guztia

hauts geruza lodi batek estaltzen zuen eta. Ez dakit zer gertatu zen orduan, baina urte guzti haietan malko bat isuri gabe, negarrez hasi nintzen. Lehenengo malkoa astiro-astiro jaitsi zen masailean behera. Malko honi beste batek jarraitu zion, eta beste batek, eta beste batek. Bost ozeanoak barruan nituela zirudien, kanpora irten nahian. Halako batean negar anpulu artean sugandila bat ikusi nuen, eta beste ezer hoberik gabe, bere atzetik abiatu nintzen.

Sugandilak herrixkaren kanpoalderantz gidatu ninduen. Nola ahaztu ote nuen! Kine atsoa beti egon zen han eta beti egongo zen. Sartu bezain laster igarri zidan nor nintzen eta besarkada luze bat eman zidan, bere kontra estutuz. Segituan, ohi zuen moduan hizketari eman zion. *“Erasoan ez zintuzten mutikoak bakarrik eraman. Zuek joan ondoren, beste kamioi bat azaldu zen, eta herriko emakume guztiak errenkadan jartzeko agindua eman zuten. Handik, ederrenak aukeratu eta beraiekin eraman zituzten. Zure ama ere tartean zegoen. Soldaduek erabakiaren berri ematean, zure aita gainera oldartu zitzaien eta bertan akabatu zuten.”*

Kineri eskerrak eman eta alde egin nuen. Ez nuen herrixka hartaz ezer jakin nahi. Kanpamenduan egin ohi genuen lez, misio bat ezarri nion neure buruari: ama aurkitzea. Nik ihes egin banuen militarren eskuetatik, berak ere egin zezakeen. Eta bere bila abiatu nintzen, noraezean. Oraindik hala nabil, sugandilen antzera, noraezean.



Malen Akordagoitia Madariaga

DBH 4. maila

“Ezin dugu etorkizuna eraiki iragana ezagutu gabe”

ORAIN ALDITIK IRAGANERA

Bost urte dira egoera kezkagarri honetan sartu garenetik, bost urte herri honetako familia askoren bizimodua guztiz aldatu denetik. Etxea bertan behera utzi, kalean bizi, janaria ezin ikusi, ezin ezer erosi. Bizimodu arrunt baten bila dabilen familia asko dago, zoritxarrez, gero eta gehiago.

Gazteenak dira kezkatuena daudenak, kezkaturik baino beldurturik. Ez dakite, euren etorkizunak irtenbiderik izango duen, lan egin al izango duten, ezta familia bat mantendu al izango duten ere ez.

Adinekoek ere ez dute egoera erraza denik uste, baina eurek bizi izan duten egoera bat da, beharbada edo seguruenik, eurek igarotakoa askoz zailagoa eta gogorragoa izan zen.

Telebistan, irratan nahiz egunkarian krisiari buruzko albiste bat agertzen den guztietan, amonak maiz kontatutako pasadizoez akordatzen naiz.

Txiki txikitatik amonak beti narratu izan dizkit berari txikitan gertatutako milaka istorio. Batzuk barregarriak eta politak; beste batzuk, aldiz, oso tristeak eta sinestezinak.

Amonak beti gogorarazi dit gerra osteko garaiak ez duela zer ikusirik gaur egungoarekin, konparatu ezin diren bi garai oso desberdin baitira, nahiz eta gero eta antz handiago hartzen ari diren.

Nire amona, 1943ko urriaren 2an jaio zen Argatxa baserrian. Garai hartako baserri asko familia desberdinen bizileku ziren eta etxebizitza partekatzen zuten.

Zorionez, nire amonak ez zuen gerra ezagutu baina haren ondorioak bai, izugarri gogorrak, alegia.

Ez ziren erabateko askatasunean bizi, astean hainbat alditan Guardia Civil-a etortzen zen etxea behatzera, eta susmagarri ziren gauzak eskuratzera. Interesgarriak ziren ondasun asko ere ostu egiten zituzten, askotan familia osoa kalean utzita, etxerik barik eta hazienda barik. Eurentzako baliogarria zen guztia hartzen zuten, familiak kale gorrian utzita.

Susmagarriak ziren pertsonak ere ihes egin behar izaten zuten beste herrialdeetara, hemen geratuz gero exekutatu edo preso eramaten baitzituzten.

Iheslari asko, Ameriketara joaten ziren baita Australia edo Frantziara ere. Euren xedea familia mantendu ahal izateko adina diru irabaztea zen.

Urteak igaro ahala, bai Espainiatik eta baita beste kanpoko hainbat herrialdetatik ere hainbat pertsona etorri ziren pobreziatik eta langabeziatik eskapatzeko asmoz, bide batez gure Industria hornituz.

Herri aberatsa izan gara, geure kabuz egin dugu aurrera, herri honek beti izan duen aberastasuna berreskuratuz. Ordutik, aro berri batean murgildu ginen, emigrante izatetik gure herria immigrantez hornitzera pasatu arte. Jendea bere etxea eta familia itsasoaz beste aldean utzi eta lanaren bila etorri izan dira hona, bizimodua aurrera atera nahian.

Historia aldi edo ziklo desberdinetan banatzen da, baina ziklo horiek, borobilak balira bezala, errepikatuz doaz.

Azken urte hauetan, egoera berriz ere aldatzen hasi da, lehengo tankera, alegia. Gaur egun, hemen eta mundu osoan, krisi-ekonomikoaren eragozpenak jasaten ari gara. Aurreko urteetan hona etorritako imigrante asko, euren herrialdeetara bueltatzen hasi dira.

Zoritxarrez, imigranteak ez dira herritik irten behar duten bakarrak, gazteak ere arrazoi berdina dela medio beste herrialde batzuetara ihesi doaz, lanaren bila, euren etorkizuna eraikitzeko asmoz, atzean ez geratzeko eta egoera triste honi aurre egiteko.

Kate honetatik askatuko garela argi dago, gure arbasoak askatu ziren moduan, aurrera eginez eta ez etsiz, beste egoera berri eta zoriontsuago aldera.

Gure herritik irtendako guztiak, berriz itzuliko dira etxera, beste askok euren herri txiroetatik ihes egingo dute geurera etortzeko eta elkar biziko gara euren herrian egoera hobetu arte, euren eskubideak errespetatu arte.

Horrela dio Historiak, horrelakoa da mundua, baita bizitza ere. Ez dago ezer hori aldatuko duenik; norbere jarrera onaren bidez, bizi egoera aldatu eta hobetu egin daiteke, auskalo!

Baina egoera ideal hori gertatu arte, munduak berdin jarraituko du, aurrera egitera bultzatzen gaituen arrazoi nagusienetariko bat mundu hau aldatzea baita.

Inoiz ez da iragana ahaztu behar, beti itzultzen baita!



Sara Herault

DBH 4. maila

*“Besteen zorionaz gozatuz,
areago gozatzen da norberaren zorionaz”*

AMAMAREN MAITALEA

Amama Carmen bakarrik sentitzen da. Orain 10 urte alargun gelditu zen eta alaba bakarra du: nire ama. Oso ondo konpontzen zen aittitte Marzelinorekin eta zoriontsu bizi izan ziren bera hil zen arteko egun guztietan. Dena egiten zuten batera, paseoan irten, ilobekin egon; baina gehien gustatzen zitzaiena bidaiatzea zen. Mundu osoa ezagutzen zuten, bidaiari nekaezinak zirelako. Orain amama bere etxean bakarrik bizi da eta ez du nahi gurera bizitzen etorri, gurekin hobeto egongo dela esan arren. Nire ama askotan saiatu da konbentzitzen baina berak ezetz, bere etxean bizitza osoko oroitzenak dituela, ez duela molestatu nahi, gustuko duela bere auzoa...

Amak ahal duenean berarekin egoten da. Medikuarenera laguntzen du, gurekin pasatzen ditu oporrak eta bisitan joaten gatzazkio astero baina nik ez dut alai ikusten. Askotan berarekin solasean gaudenean begiratzen eta ikusten ez duten begiak ditu eta bere oroitzapenetan galdurik gelditzen da. Momentu horietan ez du hitzegiten ezta entzuten ere. Mundu honetatik kanpo dago orduan.

Amak uste du zeozertan bete behar duela bere aisialdia eta Helduentzako Unibertsitatean matrikulatzea aholku emango dio. Egunkarian irakurri du matrikula zabalik dagoela eta amama informazioa eskatzen joan da. Bilboko Alde Zaharrean bizi da eta klaseak han bertan dagoen Burtsako eraikinean ematen dira, amamaren etxe ondoan, hain zuzen ere. Amamak ez ditu goi mailako ikasketak, bere garaian “Secretaria de Dirección” ikasi zuen eta lanean hasi zen baina ezkondu zenean utzi zion lanari. Amak beti entzun dio karrera bat egitea gustatuko litzaiokeela, Kazetaritza edo Artearen Historia, baina sasoia pasatu zaiola esaten du. Orain aukera dauka eta probatuko duela esan du, zorionez.

Irailan hasi da eta lehenengo hiruhilekoa amaitu da. Klaseetara joan denetik dena aldatu egin da. Egunero joaten da eta lagunak egin dituela esaten digu. Ikasgai interesgarriak ditu eta Informatika ere ematen du. Internetarekin ederki moldatzen da eta nirekin Tuentitik hitzegiten du. Oso pozik ikusten dut. Aittitte gabe bere kabuz gauzak egin ditzakeela konturatu da, eta zegoen putzu ilunetik irteten hasi da. Ikasteaz aparte, museoak bisitatzeraz, hitzaldiak entzutera, baletera eta beste ikuskizunetara joaten da gelakoekin. Bere moduan, 60 urtetik gorako gizon eta emakumeak dira hara joaten direnak, gehienak jubilatutakoak, eta horregatik, aisialdia erabiltzen dute horrelako gauzak egiteko. Andre bati buruz askotan hitz egiten digu. Miren du izena eta orain dela bi urte senarra ere hil zitzaion. Oso atsegina dela esaten digu amamak. Klasera joan baino lehen berarekin geratzen da gosaltzeko eta, batzuetan zinemara ere berarekin joaten da.

Amama Carmen aldatzen hasi da. Zergatik esaten dut hori? Aittitte desagertu zenetik ezkontza edo horrelako ospakizunetarako baizik ez du jantzi berririk erosi, baina orain astero zeozer desberdina ikusten diot eta ileapaindegira ere joaten da. Gona bat, belarrietakoak edo beste zerbait berria erosten du eta inoiz baino politago dago. Aittitte hil zenetik ez zen makillatzen baina orain egunero ematen du kolorete apur bat, rimmela eta ezpainenetako margoa. Batzuetan, gure etxera afaltzen gonbidatzen dugunean, ezin duela esaten digu, lagunekin afaltzera doala. Nik uste dut nobioa duela. Zein ondo!

Ikasturtea amaitu da eta kurtso amaierako jaia ospatuko dute bertan. Senideak gonbidatuta daude eta eguna heldu denean hara hurbildu gara ama eta biok. Ospakizun polita izan da. Aretoan sartu garenean amama andre batekin dago jesarrita. Oso lagunak direla dirudi elkarri egiten dizkioten konplizitateko keinu eta barreengatik. Miren izango da seguru. Irakasleek kurtsoa agiria banan banan entregatu eta gero lunch-a egon da eta amama bereziki pozik ikusi dut.

Dena amaitu denean etxerantz joan gara hirurok eta amamak bere etxera laguntzeko eskatu digu, gauza garrantzitsu bat esan behar digulako. Ailegatu garenean egongelako sofara jesartzeko agindu digu. Kafea atera du eta amak eta biok elkarri begiratu diogu eta harridura aurpegia jarri dugu. Zer esango ote digu?

Jesarri eta jarraian ezkonduko dela esan digu boteprontoan. Amak senargaia nor den galdetu dio. Amamak ez dela senargaia, emaztegaia baizik eta bere ikaskidea Miren dela aitortu digu. Berarekin ezkontzeko eskatu eta baietz erantzun diola.

Aho zabalik geratu gara biok. Baina segundu bat izan da bakarrik. Ama altxatu da eta besarkada handia eman dio amamari asko pozten dela esanez. Berak kontatu digu orain ez dela bakarrik sentitzen, amankomunean gauza asko dituztela eta oso ondo pasatzen dutela elkarrekin. Mireni ere bidaiatzea asko gustatzen zaiola eta Egiptora joango direla uztailean.

Ezkondu baino egun batzuk lehenago Miren eta bere senideak ezagutzera joan gara. Miren oso andre atsegina da, amamak esan digun bezala.

Nik galdetu diet zergatik egin nahi duten ezkontza eta ez diren elkarrekin bizitzera joaten eta kitto. Maiteminduta dauden beste bikote askok bezala nahi dituztela gauzak egin erantzun didate.

Bilboko udaletxean ospatu dute ezkontza eta alkateak ezkondu ditu. Maite ditugun guztiok han egon gara haien pozarekin gozatu dugu. Zoriontsu ematen dute eta zoriona merezi dute.

Zorionak amama! Zorionak Miren!



Ane Iturriarte eta Alain Agirre

DBH 4. maila

*Aske sentitzeko eta norberaren sentimenduak
adierazteko hainbat modu daude.*

Artearen zuhaitza osatzen duten adarrak oso zabalak dira.”

EGUNON PRINTZESA

Maiatzak hamalau. Goizaldeko laurak.

Ez dakit zer dudan aurrean; atea bikoitz ikusten dut. Negargura, barregura ... Sentimendu guztiak nahasten ditudan sentsazioa badut ere, giltzak poltsikotik atera eta etxean sartzea lortu dut. Irribarrea ezin dut ahotik ezabatu nahiz eta jakin egiten dudan soinu txikienak ere, ama esnatuko duela. Hollywood-eko aktore sentimendua ez dit inork kenduko eskailerak igotzen ditudan bitartean, bertako filmetan lapurrek egiten duten bezala. Pijama jartzeko indarrak jada geratzen ez zaidala, ohean sartzen naiz oraindik diskotekako musikaren bibrazioa buruan dudalarik. Ez dit askorik kostatzen loak hartzea, eta inoiz izan dudan ametsik sakonenean murgildu naiz.

Garrasiak datoz beheko solairutik. Nire begiak goizeko eguzkiaren argi-izpiekin irekitzen hasten dira, eta garrasiek nire iratzartzea gero eta arinagoa egiten dute. Ingurura begiratzen dut. Izugarrizko burukomina dut, eta aurpegia eta begiak bortizki laztantzen ditut. Zaratak humore txarrez esnatzea eragin ondoren, eskailerak jaisten ditut “zombie” antzean. Berriro. Berriro dira aita eta Esther. Aitaren bikotekide berria gurekin bizitzera etorri denetik, duela hiru hilabete gutxi gorabehera, ez diote eztabaidatzeari uzten. Nazkatuta nago. Kokoteraino.

- Nahikoa da! Isil zaitezte.

- Ruth ... Barkatu laztana. Ez zintugun esnatu nahi.

- Ba lortu duzue. Utz nazazue bakean. Ezin dut gehiago. Ezin ditut zuen garrasiak jasan. Ama jada ez dagoela badakit, eta hori gaintitzen laguntzea baino, badirudi zuen arteko arazoak ni baino garrantzitsuagoak direla.

Aitaren ahotik hitzik atera baino lehen logelara jo dut negarra begian dudalarik. Atea itxi bezain laster, burua egur hotzaren gainean jarri dut malkoek nire aurpegian ibaitxoak sortzen dituztela. Amaren falta inoiz baino gehiago sentitzen dut. Jada lau urte dira gure artean ez dagoela eta bere beharra inoiz baino gehiago sentitzen dut. Badirudi, aita bere bizitzako emakumeaz guztiz ahaztu dela. Ez duela berarekiko oroitzapen goxorik; eta batez ere, nitaz guztiz ahaztu dela. Institutuko psikologoak jakinarazi zigunez jasotakoa jaso zenean, hemen da tristura, bizitzeko gogo-eza: depresioa.

Halako batean, nire mugikorrak soinu txiki bat egin eta Whatsapp-eko mezua irakurri dut. <Egunon printsesa>. Ez dut dudarik, Leo da. Leo. Azken urte honetan, bizia salbatu didan pertsona bakarra. Momentu txarrenetan, besarkada eta musu bat emateko prest dagoen pertsona bakarra; eta nirea dela pentsatzeak, sabelaldean izugarrizko zirrara sortzen dit. Badakizue, tximeletak tripan.

<Zatoz nire bila. Goazen urrun.> Hori da bidali diodan mezua. Bueltarik gabe, nire sentipenak argi adieraziz.

Ohe gainean etzanda nagoela, harriak entzuten ditut lehioaren kontra danbatzen. Bera da. Eguzkitakoak kendu eta musu bat botatzen dit bertatik. Irribarre bat lortu du. Ordu erdi honetan prestatutako poltsa sorbalda gainean hartuta banao. Banao atzera begiratu gabe; inor konturatu gabe.

Gure ezpaineek berriz ere egin dute topo, desberdintasun handiena, inoiz baino indar gehiagorekin egin dutela; urteetan elkar ikusi ez bagenu bezala.

Eguzkitakoak jarri, kaskoa jantzi eta motor gainean egin dugu ihes. Helmugarik gabe, urrun. Burua bere bizkarrean dudala, aireak nire ile kizkurduna laztantzen du. Errepidea gure etxea balitz bezala gabiltza kilometroak eta kilometroak eginez. Basoak, etxeak, herriak, ibaiak... Bat-batean, parking batean gaude. Motorra geldi dago, eta Leok aurpegia laztandu ondoren, buruan daraman zapia, begiak eztaltzeko moduan jarri dit. Oinez eta oinez gabiltza. Bide luzea, harri txikiak oinpean ditugula. Atzean geratu da errepidea, eta konturatu naizenerako, oinutsik nago. Arnasa sakon hartu, eta gatz-usaina nagusitu dela nabaritu dut. Irribarrea ia berez irtetzen den momentuan nagoela, zapia kendu eta itsaso urdina begi aurrean ikusten dut. Eguzkia nagusi da, eta elkarren eskuak hartuta, itsasertzerantz goaz. Olatu txikiak gure hanken kontra apurtzen diren bitartean, dena kontatu diot. Aupegia bere esku epelekin hartu dit, eta filmetako eszena erromantiko bat balitz bezala, elkar musukatzen genuen bitartean, uretara erori gara. Hasieran hotz zegoen ura, gero eta beroago bihurtzen hasi da. Gure azalek elkar urratzen dute, eta pixkanaka gainean daramatzagun arropak galtzen goaz.

Iluntzen hasia da, eta hondartzako jatetxean, pare bat pizza afaldu ondoren eta diru gutxi dugula poltsikoan, buelta bat ematera abiatu gara. Nire ametssetako printzea. Printze urdina.



Oinak nekearen ondorioz galduko ditudan sentzazioa dudan puntura iritsi garenerako eseri gara harri hotzen gainean.

-Begiratu hara.- dio nire mutilagunak ilusioz ni begiratzuz.

Urrunean, izugarrizko kala bat ikusi dut. Txikitako oroitzapenak olatu batek ekarriko balitu bezala etorri zaizkit. Ingurura begiratu, eta urtero lege zegoela konturatzeko astia eman dit. Lehengusuekin izozkiak erosten nituen postua; izeba Mariarekin egiten nituen gazteluak; edota zortzi urte nituenean, Enekorri eman nion lehen musuaren kobazuloa. Bertan zegoen kala. Duela lau urte, amaren errautsak bota genituen kala. Dardara batek nire gorputza igarotzen du.

Begiak itxi eta egokiena zer den pentsatzen saiatu naiz, baina Leoren ilusioak irabazi du. Motorraren atzetik pare bat oihal eta manta atera, nire motxila hartu eta bertarantz abiatu gara. Praka jada lehorrak, belaunetaraino igota, ur izoztutik heldu gara harri hotzetara. Mantak, hura kanpamendu bat balitz bezala jarri, eta bertan etzan gara biok, nire lo-zakuaren barruan, gure gorputzek transmititzen duten epeltasuna baino ez dela gure bero-iturri bakarra. Kalako harrien artean dagoen zulo bat dugu gainean. Izarrek argizatzen duten zeru urdina da gure sabai. Musuak, laztanak, besarkadak dira elkarri eskaintzen dizkiogun opariak. Loak hartzeak ere pena izugarria ematen dit. Batetik, printzesa-ipuin batean nagoen sentzazioa dudalako; eta bestetik, izarrek eskaintzen diguten show-a galtzeko gogorik ez dudalako.

Zerbait bustia sentitzen dut nire ezkerreko masailean. Gainera, eguzki-izpiek, nire aurpegia islatzen dute alboan dugun harrian. Baina, denak ez du enkajitzen. Ezkerraldeko masaila dut bustita, baina Leo nire eskuinean dago etzanda, bere besoak nire sorbalda inguratzen baitu. Bat, bi eta hiru zenbatuz begiak ireki, eta... ¡Ene! Gainean nuen kaioa ere izutu da bota dudan garrasiarekin. Arnasestuka, berriro etzan naiz. Pare bat laztan egin ondoren (jada esnatuta dagoen Leori), gosaltzera abiatu gara. Berriz ere prakak belaunetara igota, hondartza zeharkatu dugu.

Itsasertzean dagoen kafetegira sartu baino lehen, poltsikotik atera dugu daukagun dirua. Nik 13'25 euro atera ditut. Leok aldiz, 10'20 euro. Nahikoa beste egun batez irauteko. Kafetegian sartu gara. Hutsik dagoen kafetegira. Txokolatea eta txurroak gosaltzen ditugun bitartean, barra atzean dagoen gizona hurbildu zaigu.

-Zu ez al zara Arkaitzen alaba?- dio gure ondoko aulkian eseriz.

-Bai,- diot harrapatu ote nauen sentzazioarekin- nola zenekien?

-Urtero etortzen zineten hona. Beti eskatzen zenituzten olibak eta patata frijituak. Zuen amak ere beti eskatzen zuen marrubizko izozkia, etxeko espezialitatea.

-Bai...-diot amaren irudia izozki katilukada bat aurrean duela etortzen zaidala burura.

Gizona berriz barrarantz itzultzen den momentuan, telebista piztu du. Bat-batean, premiazko albisteen tarte hasi da. Nire sorpresa, nire argazki bat agertu denean izan da. Ene bada. Aita. Nire desagerpena argitaratzen zuen albistea. Burua jaitsi dut hau ikusi ondoren. Leok bazekien, eta gizona barrutik atera baino lehen, eta txurro pare bat eskuan hartuta, ihes egin dugu berriz ere kalara.

Euria barra-barra. Bakarrik, harri hotzaren gainean eserita. Txori bat kaiola batean bezala sentituaz. Negargura, tristezia... Dena pasatzen zait burutik. Ur-tanta erraldoiak sarten dira harrien arteko zulotxoetatik. Hotz naiz. Motxilan nituen pare bat plastikozko poltsa jarri ditut gainean ditudan harrien gainean. Ez dute askorik egingo,

baina baliteke uretatik babesten lagunduko digun tresna bakarra izatea. Bat-batean, Leoren ahotsa entzun dut. Oso bustita badator ere, bere larruzko jaka epela sorbalden gainean jarri dit. Pare bat pizza dakartza besapean. Hoztu baino lehen jan ditugu, zati bat etorkizunerako utziz; ez dakigulako zenbat denboraz egongo garen hemen.

Humore txarrez gaude biok. Kontu hau handi datorkigu bioi, eta horren prezioa ordaintzen ari gara; batez ere ni. Jada ez daukat Leorekin denbora gehiago egoteko gogorik. Etxera bueltatu nahi dut. Aita ikusi. Esther bere garrasiekin jasan. Amagan pentsatzen jarraitu. Nire logelara bueltatu nahi dut; nire ordenagailua, arropak, ohea eta batez ere, nire hartzatxoa faltan botatzen ditut. Burumakur. Horrela nago oraintxe bertan, burumakur.

-Goazen hemendik.- Diotsat Leori begietara begiratzuz.

Trabak eta pegak jartzen dizkit mutilagunak, baina nik argi dut nahi dudana; inoiz baino argiago.

Gauzak poltsetan sartu, eta Leoren gainean, ohial lodi bat jarri dut.

-Maite zaitut.- dio nire begietara begira- Lasai, dena ondo irtengo da.

Arkaitzen ertzera hurbildu eta ezin dut sinetsi ikusten ari naizena. Motxila eta poltsak lurrera erori zaizkigu bioi aurrean duguna ikusi ondoren. Negarra dut begietan. Mina bihotzean. Leok atzetik besarkatzen nau. Itsasoa inoiz baino haserreago dago. Itsas-maila, ia oinetara heltzen zaigu. Zerua gris kolorekoa da, eta negarra dario; baita trumoi eta tximista ere. Ez dago ihes egiteko biderik. Ez dago atzera-martxarik. Itsasoak irentsiko bagintu bezala gaude biok. Izututa, kaka praktetan egiteko moduan. Mundua bukatuko balitz bezala.

Bat-batean, Leok begietara begiratu dit azkenengo aldiz. Musu bat eman, eta barkamena eskatu dit. *<Maite zaitut printzesa>*. Bat batean, gerritik hartu eta itsasorantz bultzatu nau berarekin batera. Nire penetan itoko banintz bezala, hainbat gauzak hartu dute lekua nire neuronetan:

Ama; errautsak bota genituen eguna; Leo; Aita eta Esther garrasika; kala; Hondartza; Amaren marrubizko izozkia; musuak; laztanak; besarkadak; itsasoa; harrizko kaiola; kafetegiko gizona; negarra; haserre; maitasuna; ni neu...

Arnasestuka. Arnasa ezin hartu; airez faltan. Horrela esnatu naiz nire bizitzako amets gaiztoenetik. Bustita nago; baina izerdiz. Oinak izoztuta ditut. Bat-batean, begiak ireki ditut. Lehioa irekita dago, eta eguzki-izpiak nire aurpegiaren kontra jotzen duten bitartean, txoriek eskainitako kontzertu batekin altxatu naiz. Ohearen ertz batean eserita, ingurura begiratu dut. Nire logelan nago. Nire arropak, ordenagailua eta amaren argazkiak bertan daude. Baita Leok oparitutako hartzatxoa ere. Izugarrizko burukomina dut; buruak 60kg pisatuko balizkit bezala. Baina irribarrea sortuko didan zerbait laztandu dut: Leoren larruzko jake beltza. Burua biratu eta bere argazkia ikusi dut nire mugikorreko pantailan. Mezu bat heldu berri da: *<Egunon printzesa>*.



Irati Omagogeaskoetxea
DBH 4. maila
“Irakurtzea gustatzen zait”

SASI GUZTIEN GAINETIK

Egun bat gehiago. Edo egun bat gutxiago esan beharko nuke. Jadanik, ez dakit zer pentsatu ezta nola jokatu goizero ohetik jaiki eta kobazulo zikin honetan aurkitzean. Nire familia nitaz oroitzen delakoan, aurrera egiteko beharrezkoa dudan indarra ateratzen dut benetan gaizki sentiarazi arren. Nire emaztearen urre koloreko adats luzea, bere begi berde ederrak, bere ezpainak, ... bizitzan aurrera egiteko nire arrazoa da bera! Eta orain, hain urrun izateak asaldatu egiten nau, sumindu, barrutik erre.

Goizero bezala, 7:30ean etorri da Karmele gu denok esnatzera. Ordu erdi bat barru ekarriko digute atzoko ogi puska gogorraren eta zereal birrinduen razio bana. Anartean, bakoitza gure karioletan gaude txori gaixoen antzera harrapaturik, askatasunik gabe. Eskuinaldean, Inazio kantari dabil bere eguneroko umore onarekin. Bestaldean, Amaiur bere seme-alaben argazkiak musukatuz dabil eta haren aldamenean, Juanito, bere aurpegi alaiarekin 21 egun bakarrik geratzen baitzaizkio etxera itzultzeko. Hori bai hori zortea duena!

Niri, ordea, oraindik hiru urte geratzen zaizkit hemendik irteteko. Laster izango da urtebete harresien artean sartu nindutela. Urte bat oraindik. Denbora emeki pasatzen da zereginik ez duzunean, oroitzapenak soilik dituzunean.

Urtero joan izan nahiz euskal presoen aldeko manifestaziora bai familiarekin, bai lagunekin, ...Non nahi zela han nengoen ni, haien alde bihotza emateko prest, gure herriaren parte direlako eta beraiek gabe ez ginatekeelako ezer izango.

2011ko urtarrileko egun hura ez zen oso desberdina izan besteen aldean, ezaugarri xehe bategatik izan ezik. Arratsalde hartan, berriez gain ikusten ez ziren gertaera triste eta ahaztezin horietako bat bizitzea tokatu zitzaidan.

Zortziak eta laurdenak, eta gure gosaria? Horretan antza denez ez dute presa handirik! Hortik etorriko da laster Karmele, berriketan gurutzatzen duen lehenengoarekin. Etxe horretako andrea hil egin dela, beste honetako semea ezkondu egin dela, hemengo lapurra harrapatu dutela, ... Zer axola digu guri horrek? Zertarako balio digu preso bagaude? Bai, esan dut. Preso nago, preso gaude gu guztiok. Baina hori ez da arrazoia sentimendu edo ezagupenezko pertsonak ez izateko. Kartzelan egotearren gutxiago al gara? Nire abiapuntutik hori da jende askok uste duena, presoak gaizkileak garela. Hemen dauden pertsonen erdiak ez daki preso egotearen arrazoi zehatza, argudio argirik gabe izan direlako epaituak.

Orduan, nola iritsi nintzen hona? Hogeita bat urteko mutiko zintzo eta kirolaria nintzen, pixka bat gezurtia beharbada, baina hori ere neurrian. Eta hemen naukazue orain, egindakoa larrutik ordaintzen, nire akatsak hausnartuz, egindakoaz damututa.

Baina urtarrileko arrats hartan gertatutakoaren ondoren, eta legea nire aurka zegoela ikusirik, ez zuten ni hona sartzeari beste erremediorik izan. Zigor gogorregia delakoan nago, lau urte kartzelan! Eta horiek data finkoak, gero, beti bezala egonaldia atzeratzen dute epaileek.

Zer izango ote da nitaz? Lagunak ahaztuta, lanik gabe, eskerrak nire Maite hor egongo den beti! Edo hori espero dut behintzat.

Gertatutakoaren ondoren ez nuen asko itxaron beharrik izan. Laugarren egunean bertan joan nintzen polizia-espexera. Zerbait egitekotan azkar eta isiltasun osoz egin behar nuen, dena ondo planeatuta.

Beraz, ondo jokatzeko nentzela buruan sarturik, nire plana burutzen hasi nintzen. Banekien nor izango zen nire biktimak, justiziaren alde lan egiten zuen gizon hura, bai. Lagundu beharrean, manifestazioetan jendea jipoitzen zuen hori ... Bere aurpegia nire baitan geratu da betirako.

Zertarako saiatu gertatu zenaren erruduna polizia hura izan zela frogatzen? Nire ama izan bazen sinetsi zidan bakarrik, bera ere aita eta biokin egon zelako. Aita ... bere hilketaren erruduna aurkitu eta hil arte ez dut amore emango!

Pelikula beldurgarri bateko protagonista izatea tokatu zitzaidan goiz hartan. Kaletik nindoan nire betiko arrokekin, ezer arrarorik jantzi gabe. Polizia-espexera heldutakoan, labana ondo heldu eta atzeko atetik sartu nintzen kontu handiz. Harreran, ez zen inor aurkitzen eta beraz, aurrera jarraitzea erabaki nuen. Poliki-poliki ibiliz, bulego nagusira heltzea lortu nuen. Zorionez, ez zegoen inortxo ere barruan. Ordenagailu-zentrala piztu eta nire biktimak zenaren datuak bilatzen hasi nintzen. Hamar minutuko urduritasuna zegoen bitartean. Azkenean, aurkitu nuen baliagarri zitzaidan informazioa. Morroi hori, Alfredo deitzen zen eta 44 urte zituen. Defentsa kontuetan nahiko jakintsua zen.

Bat-batean, norbait entzun nuen ni nengoen gelarantz oinez eta zer egin jakin barik mahai azpian ostendu nintzen. Eta zuzen nengoen, bulego-nagusira sartu zen. Nor zen ikusteko, burua pittin bat atera nuen. Une hori izan zen eguneko bortitzena. Bera zen! Alfredo!!

Labana eskuetan nuelarik, zarata izpirik egin gabe, bere atzean kolokatu eta labana zamatik sartu nion. Ondoren datorrena hobe da ez kontatzea, pentsatzeak soilik zorabiatu egiten bainau.

Azkenean etorri da Karmele gosariarekin. Irribarre alai batekin egun onak emanetz pasa dit platera ate azpitik. Eskerrak heldu den, ia-ia 8,30 dira-eta!

Gaurko goiza benetan arraroa izan da! Oroitzapenetan murgiltzea onuragarria izan zait. Kontua da bukaera falta dela, baina hoberena airean ustea da. Bakoitzak imajinatu dezala gogokoen duena!

Nik, aldiz, hemen jarraituko dut. Egin nuenaz damutu gabe, nire aitaren hiltzailea akabatuta, herri baten askatasuna aldarrikatzen ... Eta gaur gauean lasai egin ahalko dut lo, nire borroka irabazi dudala pentsatuz!

Eta bihar beste egun bat gehiago. Edo bat gutxiago, nork daki!



Nerea Arejita
DBH 4. maila
“Musika maite dut”

BIOLONTXELOAREN ARIMA

Elurra mara-mara ari zuen neguko arratsalde ilunean eman nuen lehenengo “re” lotsati eta dardaratsua. Barnean, zirrara ikaragarriak astindu zuen nire arima. Une horretan, gizakiena ez bezala ikus daitekeen biolontxeloaren arimak, estalki bien artean zubiaren azpian kokatutako zurezko zutabetxo horrek, eztanda egin zuen iluntasuna egunsenti bihurtuz. Johann Steiner “luthierrak” amaitu berria zuen lanari maitekiro egin zion so. Gizonaren aurpegiaren zimurretan zehar azken garaian jasandako nekeak ikus zitezkeen. Azken enkargua izango nintzen esku trebedun biolontxelogile bizar-zuriarentzat, berak bidaiarako prest zegoen kotxe barruan eztiki laga ninduenean susmatzen ez zuen arren.

Artega hasi nuen zuriz tindatutako Salzburgotik Berlinerako bidea, jabea izango zena ezagutzeko irrikan. Berlineko etxe dotoreenetarikoaren aurrean gelditu ginen, August Goldman bankariaren gotorlekuan. Laster jakin nuen Berlineko orkestran jotzen zuen Leopold seme nagusiarentzako oparia nintzela. Aiurri oneko gazte sentibera horrek beso zabalik hartu ninduen eta, nire zokoa izango zen egongelako bazter pribilegiatu horretan, tinko baina gozotasunez, lehenengo melodiak atera zituen nire muinetik.

Hurrengo urteak esne-mamitan igaro nituen, guztiek miretsia eta maitatua, belusa eta zeta lagun. Arthur Nikischen zuzendaritzapean Europako eszenatokirik garrantzitsuenetan jo genuen: Suitza, Belgika, Frantzia, Italia, Espainia... 1913. urtean, historiako lehen aldiz, sinfonia oso baten grabazioa egin genuen, Beethovenen Bosgarrena. Leopoldek, bitartean, txikitatik bizi izandako zorioneko burbuilan jarraitzen zuen emazte xarmagarria, aingerutxo ilehoria eta hirurok ondoan gintuelarik.

1914an egoera erabat aldatu zen Gerraren gainjantzi beltzak Europa osoa estaliz. Kontzertuak gero eta urriagoak ziren; giroa, gero eta goibelagoa. Leopoldek etxea kartzelatzat hartzen zuen eta nirekin emandako orduak gero eta bakanagoak ziren... Urte latzak, behin eta berriz pairatu behar izan nuen bere ahulezia, bere tristura. Musikaria Alemaniarekin batera itzaltzen zen ahaztutako baselizen kandelen antzera. Isiltasunaren erreinuan ahalegintzen nintzen nire muinetik nota koloretsuak ateratzen, eraikitako melodiek lagunaren eta Alemaniaren bihotzak bete zitzaten.

Leopold Alemania suntsituaren 1918ko negu zurian hil zen biriketakoak jota, nire arima ikatz koloreko kapela jantziz.

Garai latzak eta amaiezinak izan ziren horiek. Hasierako urrezko zokoa soto bilakatu zen iluntasuna egongelaz jabetu zenean; jesarlekuak eta leihoak estaltzen zituzten oihal higatuak antzinako belusen eta zeten arrastoak baino ez ziren. Egurrezko hezurak zurrunduta geratu zitzaizkidan; kordak eta arkuko ileak zimel, lorontzi ahaztutako loreen antzera. Bakardade gorria ezagutu nuen Leopolden emaztearen aldizkako fereka lagun bakarra nuelarik. Ez nintzen kikildu baina. Denboraz, malko iharrek atsekabez eginiko ernegazioari eman zioten pauso. Leopolden umea, Walter, nerabe eta nerabea biolontxelo-jole gaztea egingo zela amestea izan zen bakardadearen aurka egiteko arrazoi bakarra.

Hautsez betetako hogeitaz hamar urte luzeak amaitu ziren. Gazte zurbila urduri hurbildu zitzaidan hautsa iraganeko mamuekin batera uxatu nahian. Arkua eta kordak tenkatu eta atera zizkidan doinuek antzinako garaietako oroitzapenak ekarri zizkidan gogora. Nire poza laster lausotu zen baina. Aitak besteko trebezia eta sentikortasuna bazeukan ere, Walter tristeziak inguraturik zegoen. Ez ginen inoiz kanpora jotzen joan, ezta entzunaldi batera ere. Ilunpean ematen zituen egunak gortina atzetik kalera begira. Kale nagusiko erakusleiho eta ateetan “Judu zikinak” idatzitako karteltxoak agertzen ziren han-hemenka.

Walterrek eta amak zeuzkaten guztia maleta txiki eta urratu bitan sartzen zen. Maletatxoak mailadi azpian zegoen ezkutuko armairuan utzi zituzten, itxaroten.

1940ko udazkeneko ilunsentian lehenengo aldiz urte askotan igarri nuen hozkirria nire egurretan. Ataria itxi zutenean ezin nezakeen imajina bizitzan ezagututako etxe bakar horretara ez nintzela itzuliko.

Leku ezezagunera iritsi ginen. Auzo pobrea zen, hiriguneko etxeen dotoreziaren arrastorik ez. Kale amaierako etxe apal batean eskailera meharretan gora egin genuen, nekez joan zitezkeen ama-semea elkarren ondoan. Ezkaratzean aurkitu genuen familia poloniarra atsegina zen: gurasoak, ume koxkor bi eta neskatxa bizia eta liraina. Walterren eta amaren begietan tristura isila islatzen zen, zerbait txarra gertatuko zen seinale. Arima uzurtu egin zitzaidan diru apurra gogor hartuta atzera begiratu gabe alde egin zutenean. Jende inguratuta nengoen, baina babesgabe ikusten nuen neure burua.

Hurrengo hilabeteak ez ziren errazak izan. Luzaroan isiltasunera ohituta, bazkalondo eta afalondoko berriketaldi zalapartatsuek piztu beharrean, tristatu egiten ninduten. Non egongo ote ziren niretzat familia zirenak?

Sofia biolontxelo-jole aparta zen, bazekien nire arimatik onena ateratzen. Familiaren itxaropen osoa bere musikan zegoen; nitaz berbetan entzun zutenean ez zuten duda izpirik ere izan eta, urteetan gogor lan ostean lortutako aurrezkiak erabili zituzten hiriko biolontxelorik onena omen nintzen hau erosteko. Hans Müller irakaslearengana joaten ginen astean birritan perfekzioaren bila. Hans Europako musikaririk onenetarikoa zen, baina arazo politikoak zirela-eta erdi ezkutatuta zebilen. Momentu horretan Sofia zen errealitatetik alde egiteko zeukan bide bakarra eta horretan jartzen zituen gelditzen zitzaizkion indar guztiak.

Arratsalde horretan etxera heldu bezain laster jabetu ginen isiltasunaz. Nahiz eta guztiak mahai inguruan egon, inork ez zuen txintik ere esaten. Aitak nekatuta eta goibel ematen zuen; mutilak, bat-batean, hain ikaratuta zeudenez, askoz txikiagoak iruditu zitzaizkidan. Amaren begi malkoetan izua eta tristura ikus nitzakeen. Aitak zurrumurruan egin zion berba Sofiari:
-Walter eta Goldman andrea Auschwitzen daude.

Minutuak ordu bihurtuta, orduak egun... Egunak amaiezinak ziren 1944ko udaberri horretan. Etxean denak mugitzen ziren pauso isilaz, geldoaz, hitz egin beharrean begiradekin mintzatuz. Sofia gauerdian altxatzen zen nigana hurbiltzeko, eta hor, sutondoan, gauero ematen zion negarrari estu-estu besarkatzen ninduen bitartean.

Arratsalde astun batean Hans Müllerren deia jaso zuen. Bere etxerantz abiatu ginen presarik gabe, normaltasun itxura ematearren. Sofia ez zegoen berri onik entzutera ohituta eta izoztuta geratu zen, ez barrerik, ez malkorik; baina kolorge zeukan bihotza berpizteko moduko berria izan zen. Müllerrek bost tren-txartel zituen Frantzia aldera joateko. Hortik Ingalaterrara abiatuko ginen Sofiak Liverpooleko orkestran jotzeko postua zuelako. Azkenean bai, malkoak begietan agurtu zuen irakaslea besarkada handiaz. Etxerako bidean iraganeko oroitzapenak etorri zizkidan gogora: kontzertuak, argiak, txaloak, maitasuna, miresmena... Nire bizitza osoari erreparatu nion eta nire arimak bizirik ziharduela igarri nuen. Notarik goxoenak eta melodiarik ederrenak jotzeko gai nintzela sentitu nuen.

Kalean ez zegoen inor. Atarira heldu ginenean susmo txarra hartu nuen. Sofiak amen batean igo zituen eskailerak, ni lepoan ninderamala. Atea zabalik zegoen, dena hankaz gora. Barruan, isiltasuna baino ez.



Edurne Bilbao Aldamizetxebarria

DBH 4.maila

“Maitasunez itsututako begiek ez dute lagunik ikusten”

ARROSAK ETA LABANAK



Dena da iluntasuna, baina bat-batean, begiak ireki, eta dena zuri. Ez dakit zer naizen, nor naizen, ezta non nagoen. Nire bi begiek esaten didatenari jarraituz, ohe baten gainean nago, zertarako balio duten ez dakidan tramankuluz inguraturik.

Gela txiki hau begiekin inguratu, eta hainbat pertsona direla niri begira konturatzen naiz. Banan-banako errebisioa egin, eta bi sailetan banatzen direla esan dezaket. Alde batetik, jantzi zuria dutenak, eta bestetik, kolore ilunez jantzita daudenak. Denak dira oihuka, talde ilunekoak, elkarren artean besarkatuz, eta zurikoak, bata besteari hitz arraroekin mintzoka.

Talde iluneko andre batek honelako hitz hauek esaten dizkit: *“Alize maitea, azkenean izartu zara zorigaiztoko amets luzetik, azkenean!”*. Talde zuriko batek besteari: *“Díganle al doctor González que venga, que la paciente de la habitación 303, acaba de recuperar el conocimiento”*.

Talde zuriko beste kide bat sartzen da, eta zeudenak, artalde bateko ardiak balira bezala, artzainaren atzean jartzen dira. Artzaina niri begira dago, gelan ez da zurrumurru txikiena ere entzuten, denak dira adi haren hitzei, urrea balioko balute bezala. Halako batean, artzainak, Gonzalez delakoak, isiltasuna mozten du: *“¿Cual es su nombre señorita? ¿Cuántos años tiene usted? ¿Sabe lo que le ocurrió para encontrarse aquí?”*

Nik neuk, ezezko gordina eman diot buruarekin, hitzak guztien begiraden azpian atrapatuta izango banitu bezala. Medikuak, buruko probak egingo dizkidatela esan dio talde beltzeko andre zaharrenari.

Nire gorputza kaxa batean sartu ostean, Alize deitu didan andrea hurbildu zait eta hurrengo kontatu dit: *“Maitea, zure ama naiz, Arantxa. Medikuek esan didate ez zarela ezertaz gogoratzen, baina egon lasai, noizbait, haizeak eraman dizuna, eraman dizun moduan, bueltatuko baitizu. Noizbait, nolabait, nonbait, lehengo neska izatea lortuko duzu. Ai, Alize txikia, zer gertatu zaizu...”*. Negar malkoen itsasora ur tantak isuriz, besarkada handi batez inguratu nau amak, falta zitzaidan segurtasun hori eskainiz, harresi batez inguratuz. Sentsazio arraroa izan da, txikiago sentiarazi nauen besarkada bat, umeago, baina hala ere, era berean, handitu nauena; indarrez bete.

Ordu batzuen ostean, nire gela pixka bat baretu da, eta nire begiak pisua hartzen hasi dira. Horregatik itxi, eta ametsen mundura bidaiatu dut.

Konturatu naizenerako, begiak ireki, eta gelako leihora argia bueltatu da. Oraingo honetan bakarrik nago, bakardadean. Baina atea ireki da orduan, eta ama hurbildu zait, bisita bat dudala esatera.

Neska da, ilehoria, nahiko altua, polita dela esan daiteke. Kontu handiarekin sartzten da gelara, ahula den zerbait apurtzeko beldurra izango balu bezala. Bere begi beltzetan tristura nabaritzen da, errukia, baina era berean, begirada hotza dauka. Lore sorta bat dakar esku artean, eta nire mahaiaren gainean uzten dituen era berean, hitz hauexek esaten dizkit: *“Kaixo Alize, Alaiia naiz, zure lagunik onena, gogoratzen? Gertatu zitzaizuna gertatu aurretik bat ginen biok, eta berriz ere bat izatea lortuko dugu, noski Alize”*. Nik neuk, milaka galdera ditut buruan, eta irtenbide bako labirintoaren erdian kokatuta nagoela sentitzen dut. Hori dela eta, zer gertatu zitzaidan bazekien galdetu nion. Segundo batzuk hartu ditu berantzat, eta honako hau esan dit: *“Gelako Carlotaren gurasoen diskoteketako batera joan ginen bere urtebetetze festa ospatzera; musika bikaina zen, eta nahiz eta 17 urte izan, tabernako alkoholadun trago guztiak debalde ziren. Egoeran igartzen zen alkohola debalde zela, mundu guztia baitzegoen lainoetan. Gelakide guztiak zeuden festan, zu nirekin sartu zinen, baina Mikele eta Nagore ikustean, beraiekin elkartu, eta dantza pistara joan zinen. Momentu hori izan zen ikusi zintudan azken aldia. Ni neu Olatzekin gelditu nintzen, eta festa bukatzean, bere etxera joan nintzen. Orduan deitu egin zidaten auto istripua izan zenuela esateko, eta zorionez, ongi zaude”*. Lasaitasun puntu batekin esan ditu azken hitz hauek. Azkenik hau esan dit: *“Goizero etorriko naiz bisitatzera”*. Neska ona dirudi Alaiak, eta maite nauela. Azken besarkada eman, eta gelatik irteten da, berriz etorriko dela esanez.

Denbora bat daramat kontatu didanari buruan bueltak ematen, eta bat-batean irudi bat nire buruan, bi neska Asier delako bat niri aurkezten. Neskak Mikele eta Nagore direla suposatuta dut, eta amari bisitan etor daitezkeen galdegin diot.

Tok-tok entzun dut atean, eta amak aurrera sartzeko esan die. Mikele neska argala da, eta Nagore beteagoa. Biak dira politak, nahiz eta Nagore ederragoa izan. Ardura aurpegia dute, baina irribarre handi baten atzean gorderik. Nigana hurbiltzen dira, eta poltsa bat ematen didate. Poltsan eskutitz bat, jaka bat eta bonboi kaxa bat

daude. Mikelek eskutitza Asierrena dela esan dit, eta jaka nirea zela esan dio Asierrek. Nik, bakarrik nagoenean irakurriko dudala erantzun diot. Jarraian istripua gertatu zitzaidan gabea nondik ibili nintzen galdetu diet. Hauxe kontatu didate: *“Alaiarekin zeunden gurekin aurkitu zinenean, orduan gustuko genuen abestia hasi eta arrapala batean joan ginen dantza pistara dantza egitera. Orduan, Carlaren txikitako laguna, eta Nagoreren auzokoa, Asier hurbildu zitzaigun. Asierrek bi musu eman zizkizun, eta hitz egiten hasi zineten. Orduan, Asierrekin zindoazela trago baten bila esan, eta berarekin joan zinen, eta ez zinen berriz bueltatu. Hori izan zen ikusi zintugun azken aldia. Nagorek Asier goizeko 7ak aldera, etxera sartzen kusi zuen, bakarrik”*.

Hori izan da bi lagunek jakin duten guztia. Bakoitzari eskerrak eta bi musu eman ostean, agurtu egin gara.

Asierrek zerikusia dauka gertatu zaidanarekin, hortaz seguru nago. Bakarrik aurkitu naizen lehen momentuan, eskutitza inguratuta dagoen ohetik atera eta irakurtzen hasi naiz. Hurrengoa dio:

“Alize:

Egunak daramatzat ezagutu zintudan momentuko unea burutik kendu ezinik. Momenturo, orduro, segunduro, arnasten dudana uneoro, gau horretan pentsatzen dut. Eta orain ospitalean zaudela esan didate, ez duzula ezer gogoratzen.

Gogoratzen ez duzunez, momentu hori zureganaka ekarri nahi dizut.

Dantza pistan zeunden Mikele eta Nagoreekin, eta ni lagunekin nengoen dantzari. Nagore ikusi nuen momentu horretan ea nor zinen galdetu nion, zure alaitasunak bat-batean sorgindu ninduelako. Orduan aurkeztu gintuzten. Zuk, ahots goxoz, Alize zinela esan zenidan, eta hortik aurrera lotura handi bat izan zen bion artean.

Pare bat trago hartu ostean, 10 minutura dagoen hondartzara joan ginen, baina hortik aurrera ez dut ezer gogoratzen, arraroa ezta?

Hurrengo goizean, hondartzako hareatzen nengoen ni bakarrik, eta zure jaka zegoen nire alboan. Sexu-harremanak izan genituela ere uste dut. Badakit ez dela momenturik hoberena hau honela kontatzea, baina jakin beharra zenuela sentitzen nuen.

Mutil-laguna duzula esan didate, eta hori dela eta zurekin gai honi buruz hitz egitea gustatuko litzaidake, berriz memoria berreskuratzen duzunean. Osatu zaitez Alize, eta ezer behar baduzu, deitu nazazu, hurrengoa da nire zenbakia: 689752015.”

Karta irakurri ostean, nire aurpegia zuritu egin da, eta orduan, bat-batean, berriz ere irudiak buruan. Neu, tragoa esku artean dudala, aurpegi arraroarekin, tragoak betiko zaporea edukiko ez balu bezalako keinu bat egiten. Bestea, hondartzarako bidea, ni Asierren gainean, eskuak bere buruan ditudala, eta bere eskuak nire lepotik behera irristatzen, biok izerditan blai; eta azkena, nire mugikorra, eta bertan mutil bat eta ni musukatzen ateratako argazkia. Baina gutunean mutil-laguna dudala esan dit, eta zergatik ez da etorri ni bisitatzeraz? Asierrekin gertatutakoa jakingo ote du?

Momentu honetan, ez dakit zer egin, edota norengana jo. Ez dakit zer gertatu zitzaidan, eta Asier ere ez da ezertaz oroitzen. Ez dakit zergatik begiratzen diodan horrela tragoari, ez dakit zergatik Asierrekin egon banintzen nolatan hurrengo astean ospitalean ireki nituen begiak, eta bera goiz berean etxera bueltatu zen. Ez dakit nor den nire mutil-laguna dena.

Horregatik, behin nire lagun-mina zenarengana jotzen dut laguntza eskean, marapilo hau desegiteko beharra baitut.

Goizero bezala, burua deskantsatzeko pastillaren efektua pasatu ostean, begiak ireki eta bertan da Alaia, beti bezala.

Gertatutakoa kontatu diot, Asierrekin hondartzan gertatutakoa ere bai, baita bere gutuna erakutsi, eta momentu horretan, bere aurpegia aldatu egin da, ez dakit zergatik, baina hala ere, animoak eman eta bere iritzia eman dit gaiari buruz. Esan dit, seguruenik, hartu genuen tragoak substantziaren bat edukiko zuela. Mutil horrekin, badaezpada, berriz hitz ez egiteko aholkatu dit, bere ustez, probabilitatea dagoelako Asierrek sartu izana edalontzian, eta berak mutil-lagunik ez neukala esan dit, antza denez, inoiz ez bainau mutil berezi batekin ikusi.

Alaia joan ostean, pentsatzen hasi eta mugikorrean neukan argazkiaz gogoratu naiz, eta Asier edo nire “mutil-laguna” den aztertu behar dut. Ez dago beste modurik, hori dela eta, “tok-tok” berriz atean.

Lehenengo aldiz, Asier hemen da. Mutil handia da, eta indartsua. Bere besoak zuhaitz baten enborra bezain gogorrak dira. Hizketaldi luzea izan dugu, eta bihotz oneko mutila dela iruditzen zait, baina ez da argazkian musukatzen nagoen mutila.

Gau horretan gertatutako guztia kontatu dit, gogoratzen zuena, alegia. Nire mutil-laguna Beñat delako bat dela esan dit, mundakarra eta nire adinekoa. Esan didanez, badaki Asierrekin eduki nuen abentura, eta Asierri esan diotenez, egun hauetan Alaia deituriko neska ilehori batekin egoten da sarri Santa Katalinan.

Atea ireki eta hara non, Alaia. Asierrek esan dit bera dela nire mutil-lagunarekin ikusi duten neska. *Kauen!* Adarra jotzen ari ez zait ba Alaia!

Gelara sartu bezain pronto, Beñat ezagutzen duen galdetu diot, eta berak eroarena egin ez du ba! Baina azkenean, hanka, zulo batean sartu, eta erori egin da, egia guztia aitortzen amaitu du: *“Bai, badakit nor den Beñat, eta bai, zure mutil-laguna zen, Asierrekin gertatutakoa gertatu baino lehenago, baina orain nirea da, eta behin nahi nuena lortu ostean, egin ditudanak egin ostean, ez zuk ezta inork ere ez didazue Beñat kenduko! Nik bota nion zure eta Asierren edariari substantzia, bai! Zuk Beñatelako mutil batentzako gutxiegi balio duzulako!”*. Atea kolpe indartsu batekin utzi eta negarra dariola 303. gela utzi du, eta horrekin batera, bihotzean harentzat gordeta neukan lekuko atea.

Hitz hauek izan dira goizero ekartzen dizkidan arrosa eta hitz polit guztiak ebaki dituzten laban zorrotzak. Esku batetik arrosak eskaini, eta bestearekin lepoan sartu dizkidan laban mingarriak.



Aloña Aldamizetxebarria

BATX 1. maila

*“Gure ametsak egi bihurtuko diren
esperantza inoiz ez dugu galduko”*

AMETSA: ILUSIOA

*Ustekabean harrapatu nauzu
baina atsegin ditut ezustekoak.
Badakit ezin izan naizela erratu,
zure ibilkera nahastezina baita.
Kasualitatea izan ote den galdetzea ere soberan dagoela esan daiteke,
eta egia esan...
zor didazun txokolatezko musu hori jasotzeko gogoz gelditu naiz.*

***Musu hori itxaroten nagoen bitartean, olerki hauek idazten ari naiz nire koaderno
honetan, musu hori jasotzean koaderno hau zuri emateko.***

*Atsegin ditut kasualitateak,
kasualitate hutsa ez baita existitzen.
“Kalean topo egiten badugu,
nork aurkitu du zein, nik zu ala zuk ni?”
“Gure hitzak oharkabean bat etortzen badira,
zein izan da bestearen ahotsa errepikatu duena, ni ala zu?”
“Nire begiek oztopo gisa zure begiak aurkitzen baditu,
zein izan da haietan galdu dena, ni ala zu?”*

*Ez da inoiz ezer menturaz gertatzen, ezta ametsetan ere, eta horregatik daukat nik
kasualitatea hain gustuko.
Hori bai, kasualitateak balioetsi nahi badituzu egiten diguten azpizokoa ulertu beharra
dago...*

Zu ezagutzeak kasualitatea izan ala ez izan, gogoko dut. Zu nire pozaren arrazoia bihurtu zinelako...

Bai zure ondoan txiki sentitzen naiz, oso txiki... beharbada zure gustukoa ez naizela izango beldurrarekin egoteagatik, edota...

Ez dakit, ez dakit zergatik baina txiki sentitzen naiz...

*Txiki sentitu naiz gaur,
oso txiki.*

*Handitasunak bere hatzaparretan preso harturik,
handitasunean ezkutatzen saiatu arren,
zulo beltzek bezala irentsi nau,
txiki sentiaraziz,
oso txiki.*

*Zorabiatu naiz ia-ia nire txikitasunean,
mila bira eman ostean neure nahia topatu ezinik aurkitu bainaiz,
erraldoien
mundu
erraldoiak
jan egin nau.*

*Noraezean,
geltoki bako,
oin azpian itsatsirik eramandako hondar alea bezala,
kotxeko leihoan limurtzen den euri tantaren moduan,
nago,
nago oraindik existitzen banaiz.*

*Droga zara niretzat,
Bai,
adikzio hutsa.*

*Dosia eskuratutakoan,
ezin izango dut lorik hartu,
zainetan zehar,
garunaren sinapsi artean,
droga gehiagoren beharra sentituko baitut.*

*Gogorragoa da ordea, monoa.
Substantzia toxikoen gabeziak,
nire burmuina elikatuko duten hitzen,
keinuen abstinentsiak,*

*erotzen nau eta insomnioa are latzagoa da,
jasangaitza ia-ia,
hala ere, ez jasangaitza guztiz*

jasangaitzagoa baita, begiak ixteko gai izango banintz, agian, neurea zinela eta ni zeurea nahi ninduzula amestu ahal izango nuela pentsatzea.

Hainbeste motatako drogak dagoz munduan ta nik zu aukeratu zaitut? Zergatik? Egia esan beste drogak baino osasuntsuagoa zara, ala beharbada ez... zeren eta drogak min egiten dute bai, baina ez zu bezala, zeren eta zuk eguneroko mina egiten didazu... zein ote da droga mingarriena? Ez dakit...

Gaur amets egin gabe zurekin nago, eskutik helduta, tinko, banantzeko arriskuak beldurtuko bagintu lez. Pausatu ginen, algoi, elur edota irinezko gorputz bigun eta

hegalari haien gainean, arnas berritzeko edo, saltoka aritzeaz nekatuta apika. Isiltasuna hautsi nuen:

-Eta jauzi egingo bagina?

-Jauzi egin? Erotuta zaude.

-Ez duzu hegan egin nahi, ala?

-Ez dugu hegan egingo, jauzi egingo gara, lainorik ez dagoen zulo amaigabea, eta gureak egin du!

Ez zenuen nirekin batera hegan egin nahi izan; izan ere, erortzeko beldur duenak kostata lortuko du hegan egitea. Fobia; hori da arazoa.

Korrika joan nintzen nire etxera koadernoaren bila, olerki gehiago idazteko, sentitzen nuena idazteko.

Gaur,

atzera so egiterakoan,

ez dut ene itzala topatu,

ez dut ene orpoetara josia aurkitu.

Ilusio optiko bat zela pentsatu dut hasieran,

ezin zitekeela nigandik hain erraz banandu;

baina ez,

ez zen ilusioa,

alhora begiratu dudanean hor baitzegoen nire itzala zurearekin jolasean,

itzalek haien bidea ekiteko momentu aproposa baitzen gaurko goiz euritsua.

Bekaizkeria diet itzalei,

gorrotoa ia-ia,

eguzkia ezkutatu bezain laster lotsa galdu eta haien nahia jarraitzen dutelako.

Hobe ginateke itzalak bagina...

Zu nirekin ez jausteak min handia eragin dit, zeren eta norbait maite duzunean beragaz bat etortzen zara... kosta ala kosta... eragin txarra ala ona izan arren....

Malko bat jausten da, non ez den zure begirada islatuko.

Bigarren malkoak alde egin du eta zu ez zara konturatu ere egin.

Hirugarrenak bigarrenari jarraitzen dio, presaka, inork baino hobeto baitaki aurreneko malkoak ez direla almodarekin lehortzen, baizik eta bere buruaz beste egiten uzten zaiela.

Atzetik datoz gainontzekoak; amorrua dakartenak, loa galarazten dutenak; aspalditik gordeta zeudenak. Eta zuri ez zaizu axola. Ez zaizu ezer axola, zure harrokeriaz harro baitzaude guztiz. Baina jakin bakarrik sentitzea zer den ez dakiena dela azken batean bakarrik dagoena.

Niri behintzat galdu nauzu; begitik irteten uzten den lehenengo malkoak gainontzekoentzat bidea irekitzen duen bezala; ni, agian, galtzen lehena naiz, baina ziur egon azkena ez naizela izango.

Malkoak eragin dizkidazu... begi bietatik malkoak jausten dira, eta ez dira amaitzen. Zerutik ere malkoak jausten dira, tantaz- tanta, hodeietatik, penaz zeruko hodeiak busti dira...

Liburu artetik altxatzen dut begirada, leihora hurbildu eta kristalean itsatsi dut kopeta. Tak, tak, tak...Tantaz tanta, lerroz lerro bezala, erortzen dira hodei malkoak. Penaz busti dira kaleak, putzuz bete bihotz barrunbeaketa itota hiltzeko arriskuak beldurtu arren, itxaropenez jaitsi dut begirada liburuetara, betiko hitz aspertu eta monotonoetara.

Kristalean itsatsita dauka aurpegia euri tantek leihoaren aurka kolpatzean askatasuna gertuago dagoela sentiarazten baitiote. Begiak itxi ditu, ametsak horrela errealitatetik hurbilago nabari ditzakeela iruditzen baitzaio. Baina beti bezain urrun daude. Euriak aurpegia bustitzeko leihoa zeharkatu behar baita. Leihoa ireki haize freskoa sartzen utziz baina gaueko zorroak kanporatuz.

Hurrengo egunean, zurekin topo egin nuen eta eskutik heldu nizun beste eguneko lekura bueltatuz.

Leku horretara heltzean...

Zure eskua askatu eta besoak zabal-zabal eginda nituela besarkatu nuen atmosferaren freskotasuna, haize leunak aurpegia ferekatzen zidalarik. Sakon arnastu eta gorantz egin nuen so, zure begiak azkenekoz ikusteko. Ez nintzen erortzeko ikaraz, zeruko erregina sentitzen nintzen eta hori nahikoa zen ez jausteko; zure begirada umelak, ordea, zure eskua nirea estutzen ez sumatzeak, gure arteko distantzia handituz antzemateak beldurtu ninduen; eta erortzen hasi nintzen. Zu gabe erortzen.

-Lagundu!



Ania Arrien
BATX 1. maila

“Zenbat negar eta irri txikitatik, jarraitzen dute oraindik bizirik”

OROITZAPENAK

Maite dut, maite dut itsasoa. Urdin koloreko belarra, belar mugikorra, freskoa. Itsasoa da gure planetako gauzarik lasaigarriena. Hainbat ordu geratuko nintzateke arroka baten gainean berari begira. Oraintxe bertan nagoen leku berean, milaka ordu, milaka istorio nire aurretik nola pasatzen diren ikusten, milaka bizidun jolasean, milaka samin eta sufrimendu ihesean... Guztia itsasoa!!

Begiak itxi eta logelan agertu naiz berehala, ohean etzanda, gora begira. Belarrietan kaskoak jarrita ditut, musikaren nota bakoitza bihotzera heltzen den bitartean. Segundo bateko bidaia izan da, bidaia izan ote?

Udako oporretan nago, egun izugarri horietan. Sargori dago, 24 gradu inguru markatzen baititu etxeko termometroak eta logela barruan hain ondo nagoela ikusita bertan gelditzea erabaki dut gaurkoan.

Logela, trastez beterik daukat. Oraintxe bertan etzanda nagoen ohearen parean gau-mahai txiki bat dago, goian lanpara bat. Aurrez aurre, nire barneko istorio, esperantza, sentimendu eta kezkak azaltzeko mahai bat daukat, gainean ordenagailu txiki batekin, loroak pertsonen sorbalden gainean egoten diren bezala. Ordenagailuaren alboan txikitako argazkiez beterik dagoen apal bat aurki daiteke, guztiak kolore desberdinetakoak, marko desberdinekin, momentu atsegin eta saminekin...

Beste aldera begiratuta horma erdi okupatzen duen leiho handi-handi bat dago, oraindik txikitatik gordetzen diren hartz txikien gortinekin. Leihotik oso hurbil, marroi koloreko armairua ezin daiteke begi-bistaz soilik ikusi. Armairu handi bat da, bertan arropen mundu bat sortzeko adinakoa eta barruan gordetako oihala eta zapi horiek guztiek dituzten usainak nabari daitezke.

Eskuinera begiratu dut bat-batean. Atea ireki da. Eta halako batean nire kaskoen gainetik entzuten den ahots xume bat nabaritu dut, amaren ahotsa. Barruraino sartu eta ea alferkerietan nabilen galdetu ostean, ezer esan gabe atera da logelatik.

Nik, nire kontuekin jarraitu dut logela aztertzen dudana bitartean. Armairua alde batera utzi ondoren, begiak beste aldera joan zaizkit, txakurrarenekin gurutzatu arte. Alfonbra gainean dago etzanda, korapilo handi bat eginda eta niri begiratu ostean zaunka egin eta lo egiteko plantak egin ditu.

Orduantxe heldu da nire ordua, nire momentua barneko bitxilore eta arantzaz beteriko arrosak ateratzeko. Horretarako belarrietako kaskoak atera, ohe alboko mahaian utzi eta salto txiki baten bidez ordenagailurantz abiatu naiz, zerbait idaztera, barnea hustera. Ordenagailua piztu, leihatila ireki eta berari begira gelditu naiz hamar bat minutu nire atzamarrak mugitzen hasi arte. Ibilbide luzea, arina, burutik atzamarretarainoko bulkada. Pentsatutakoa idazten hasi naiz berehala, inguruan ditudan gauzetatik abiatuta eta istorio desberdinak kontatuz.

Lehendabizi ordenagailuaren pantailara iritsitako hitzak txakurrarentzat eskainita daude, Beltzirentzat. Gogoratzen naiz orain dela zazpi bat urte sartu zela gure etxeko ataritik gure aitaren besoetan. Oraindik bere irudia ikus dezaket nire barnean. Bere begi handi eta beltzekin eta nireetatik ordea negar tantak irteten zirelarik. Ni, sofan jesarrita nengoen aita sartu zenean eta buruari buelta erdia eman nionean ikusi nuen zer zekarren bere besoetan. Harriturik gelditu nintzen, gure etxean txakur, katu, arrain zein beste edozein animalia izateko posibilitatea eskasa baitzen, eta bisitalditxo hark poztasunez bete ninduen. Berarengana hurbildu nintzen aurpegia baino irribarre handiagoarekin eta begietatik ur tantak banaka-banaka erortzen zitzaizkidalarik.

Eskuetan hartu nuen kontu handiarekin, eta logelara eramanez nuen poz-pozik. Bertara heldutakoan, gauzak lekualdatzen hasi nintzen txakurrarentzat toki apropos bat bilatzen, egia esanda guztia desordenatzen.

Halako batean, bira eman eta txakurra bertan ez zegoela nabaritu nuen, joana zela. Orduan, korrika batean hasi nintzen amari oihuka txakurra desagertua zela esanez. Momentu hartan mundua gainera jauzi zitzaidan, barneko haserre guztia atera nuen eskailerapean botata ikusi nuenean. Inoiz baino luzeagoak egin zitzaizkidan eskailera haiek eta bere ondora iristean konturatu nintzen orduan bai joana zela txakur hura. Baina ez bueltatxo edo zerbaiten bila, baizik eta beste tokiren batera, hemendik urruti, inork gehiago ikusiko ez zuen lekuren batera.

Hurrengo egunetan etxean sartua egon nintzen nire buruari milaka buelta emanez, erruduna nintzela baztertu gabe. Katuak mihia jan izan balit bezala egon nintzen egun horietan, nire barnean, nire gogoetak egiten, bakardadean, isilik.

Kaixo, egunon esan zidan amak, eta normalean gurasoek ekartzen duten gosariaren ordean, berriro bizia poztu zidan biziduna zegoen bertan, beste txakur bat!! Eta hura da gaur arte nire ondoan bizi izan dena, nire Beltzi II maitea, aurrekoaren omenez jarri nion izena.

Nire pentsamenduetatik pixka bat atera, eta konturatu naiz, ordenagailuko teklak, bustita daudela, sentimenduz bustita. Hau guztia txikitako kontua da, baina beti gelditzen da arantzaren bat bihotzean sartuta, nagusitzen laguntzen dizun harri koxkorra.

Behin eta berriz gogoratzen dut, umetan zein inozoak izaten garen arlo guztietan. Lehen egunean etorri eta joandako animaliatxo horrengatik horrenbesteko maitasuna...

Kontu hau alde batera utzita armairuko ateak ireki ditut, eta orduantxe etorri zait udako lehen eguneko oroitzapen hura.

Iritsi naizen leku berdinetik abiatu naiz ordenagailurantz, lurrean utzitako sentimenduak banaka-banaka batuz, bidea eginez. Ez dut inoiz ahaztuko gau hura, lagunen arteko poztasun, algara eta bromaz nahastutako su bizia, Bilboko txosnetan batetik bestera genbiltzala tragoak, karameluak bezala hartuz. Nola ahaztu ditzaket, gure dantza eta bertsoen atzean zeuden algarak eta ahotsez betetako abestiak... Nola zakarretara bota, bertan gelditutako sentimenduak, emozioak, igarotako guztia.

Begirada berde hori, irribarre pozgarri eta polit hori. Hiri guztian zehar aurki nezakeen mutilik ederrena nire aurrean zegoen, bere begiak niretan murgiltzen ziren bitartean. Oinetatik bururaino kilima lasai bat igarotzen zitzaidan bitartean, nire alboan nahi nuen pertsona zela jakin nuen atoa, nire sentimendu guztiak ateratzeko gai zen pertsona, eta ordutik aurrera nirekin egon dena.

Egia esanda logelan zehar aurki ditzakedan gauza guztiek ekartzen dizkirate hainbat oroitzapen nire barnera. Ezkerrera begiratzerakoan milaka istorio, eskuinera begiratzean beste horrenbeste.

Askotan entzun ahal izan dut, urteak oso bizkor igarotzen direla, suziri batek egiten duen bidaia bera dela bizia, baina ezer egin gabe gelditzen gara eskuak gurutzatuta ditugula...

Badaude oroitzapen ederrak, beraiek gogoratzean irribarrea ateratzen dizutenak; badaude baita negar malkoak ateratzen dizkizutenak, gogorrak eta tristeak. Badaude zure alboan beti egon direnak, edo putz eginez airean hegan joango direnak. Horietako asko dira, amonaren arratsaldeetako abestiak, kantuz kantu doazen sentimenduak, hildakoan guztiz desagertuko direnak... Maite dut, maite dut itsasoa. Urdin koloreko belarra, belar mugikorra, freskoa. Itsasoa da gure planetako gauzarik lasaigarriena. Hainbat ordu geratuko nintzateke arroka baten gainean berari begira. Berak ekartzen dizkidan oroitzapenak dira alboan ditudanak, niri bizitza osoan hor egon direnak. Beltziren joana tristura eraginez, lehen maitasuna poztasunarekin josia, eta hainbat eta hainbat oraindik nire barnean gelditzen direnak, nire bihotzaren atalen batean, ondo gorderik.



Nile Petralanda

BATX 1. maila

*“Askatasunik gabeko emakumea,
disdirarik gabeko izarra”*

HAJI

Haji da nire izena eta Afrikako basamortuan jaio nintzen, ziur ez dakit non eta noiz. Nire familia nomada zen eta hamabi urte inguru nituen aitag ezkontza konpondu zidanean. Ezkongaia, animalia asko zituen agure zahar bat zen.

Berehala erabaki nuen ihes egiteko momentua zela eta hala esan nion amari. Nire bihotzeko Maruim emakume galantari. Noiz ikusiko ote dut berriz?

Berak, atzera begiratzeko denborarik ez zegoela eta hurrengo goizaldean, inor enteratu gabe goizetik esnatu ninduen.

Zerbait eraman nahi nuen aurretik neukan bide luzerako: ur pixka bat, jateko zerbait... baina nire inguruan ez zegoen ezer. Hala, ortozik eta kolore bizi-bizidun zapi handi batekin burutik hanketaraino tapatu eta basamortuan zehar abiatu nintzen, askatasunaren eta bizimodu hobe baten bila.

AFRIKAKO BIZITZA

Basamortuan familiarekin eta animaliekin bizi nintzen. Familia, aita Ahmedek, ama Maruimek eta bizirik geunden neba-arreba batzuk osatzen genuen. Beste batzuk ia ezagutu ere ez nituen egiten, aspaldi joanak ziren. Animaliak ere familiakoak genituen eta eurei esker bizi ginen. Behiak, ardiak, ahuntzak... baina batez ere gameluak. Gameluak ziren animaliarik preziatuenak. Gamelurik gabe ez dago bizitzerik basamortuan. Gamelutan neurtzen genuen familiaren aberastasuna, eurei esker eramaten genituen geure ondasun eskasak alde batetik bestera, ordaintzen genituen zorrak, egiten genituen tratua eta askotan esne gozo-gozoa edateko prest izaten genuen.

Denok mugitzen ginen uraren bila, beti ura zegoen lekurantz jotzen genuen eta inoiz ez ginen egoten hiruzpalau aste baino gehiago leku berean. Beti euri sasoiari itxaroten. Euria bizitza, zoriona, alaitasuna, poza, janaria, festa... genuen eta ongi etorria errezatuz, abestuz eta dantzatzuz ematen genion. Arropak kendu, busti-busti egin eta gorputzak garbitu eta errefreskatu egiten genituen euriak sortutako putzu eta lakuetan. Orduan basamortua paradisua bihurtzen zen: landareak berde-berde, hegaztiak kantari, ura eta janaria franko...

Eurien, urtaroen eta eguzkiaren inguruan bizi ginen. Denbora, eguzkiak argia ematen zuen orduen arabera neurtzen genuen: gerizpea mende balderantz goiza, gerizpea ekialderantz arratsaldea, gerizpea luze-luzea, orduan gaua gainean zegoen eta etxerantz hurbiltzeko garaia zen.

Basamortuan, animaliak eta neba-arreba txikiagoak zaintzea zen lanik garrantzitsuen eta ahora eramateko zerbait izatea saririk bikainena.

Gure etxea paluz eta belarrez egindakoa zen. Amatxo Maruim eskulangile bikaina zen eta izugarrizko telarrak, tazak, platerak,... egiten zituen basamortuko belarrekin. Lo zeruari begira lurrean etzanda egiten genuen arren, neba-arreba jaio berriak amak prestatutako etxean izaten genituen, eguzkitik, tenperatura hotzetatik eta animalietatik babesteko.

EMAKUME IZATEA

Ez genekien idazten, irakurtzen... jakituria ahoz-ahozkoa zen eta gizaki afrikarrak zenbat eta zaharragoak izan, orduan eta jakitunagoak ziren. Izugarrizko errespetua genien pertsona nagusiei, aitona-amonei, gurasoei, neba-arreba handiagoei...

Txiki-txikitatik lana gogor egiten genuen etxeko txikiak zaintzen, animaliak gobernatzeko, ura putzuetatik ateratzen... baina Afrikan emakumeentzako hori ez da nahikoa.

Afrikan emakumeak gizonezkoen ondasunak ziren, lehenengo aitarenak eta gero senarrarenak. Gizon batek zenbat eta emakume gehiago izan, orduan eta aberatsagoa zen.

Aldiz, emakumeak gizon bakarrekoak eta bera hilez gero, alargunak betirako. Gurean ere, ama eta alabak aitaren ondasunak ginen. Bere esku zeukan zer egin gurekin, nori saldu eta ze preziotan. Emakumea izateak prezioa zeukan eta adina iritsi ahala, Halemo, Amam, Shukrin, Nelaia, Basma eta Farah ahizpa nagusiak ere aitak etxetik atera zituen.

Alabak salduz gero Ahmed Jaunak familiaren ondasunak gehitzen zituen eta gure nebak nahi zituzten emakumeak erosteko aukerak hobetzen zituzten.

Bitartean amak izkutuan negar pixka bat egin eta aitaren aurrean sekulan ere ezer esan gabe, honelako esaldiekin erantzuten zigun:

- “aitak senar ona bilatzen ahalegina egin du”

- “aitak etxeko neskak asko maite ditu”
- “ezkontzea, senarra ondo zaintzea eta ume asko izatea dira bizitzan emakumearen betebeharrak”.

Halaxe zen gure bizitza eta halaxe izango zen gure etorkizuna.

HIL ZORIAN EGOTETIK... BIZITZA BERRI BAT HASTERA

Etartetik ihes egin bai, baina norantz joan? Galdetu nion neure buruari.

Basamortutik ateratzea bidaia luzea eta oso arriskutsua zen: nonahi lehoiak, tigreak, hienak, sugeak... bezalako animaliak, gaizkileak eta lapurrak, bahitzaileak, urik eta janaririk eza... ez nekien bizirik aterako nintzen abentura hartatik.

Lehenengo egunetan aitaren ahotsa zen belarrietan entzuten nuen hots bakarra eta amaren aurpegia begien aurrean ikusten nuen irudi bakarra.

Zazpi-zortzi egun pasatuko nituen horrela, korrika bizian eta ezer jan eta edan barik.

Jadanik oso ahul nengoen, urrunean kamioneta zahar bat nigana hurbiltzen ikusi nuenean. Berehala etorri zitzaizkidan burura amak umetxoak ginela sutondoan kontatzen zizkigun istorio zahar haietako hiltzaileak, gaizkileak eta lapurrak. Oinak dardarka, bihotza taupada bizian, non ezkutaturik ez eta bakar-bakarrik basamortu zabalean.

Konortea galdu eta lurrera erori omen nintzen.

Halaxe ezagutu ninduten Niake eta Aminatu bikoteak.

Ez dakit zenbat denbora eman nuen lotan, zelan eraman ninduten... baina esnatu nintzanean, indar berrituta eta seguru sentitu nintzen horma zuri-zuriak zituen gelaxka garden hartan.

Begiak zabaldu eta berehala hurbildu zitzaidan aingeru aurpegia zeukan emakume afrikar dotore bat.

- Kaixo neskato, zelan aurkitzen zara? –galdetu zidan.
- Oso ondo, nor zara zu, zelan iritsi naiz hona? – galdetu nion.
- Aminatu naiz. Basamortuan noraezean ikusi zintugun eta zugana gindoazela, lurrera siku erori zinen. Zure osasun egoera larria zelakoan, Niakek eta biok kamionetan sartu eta egun bateko bidaia egin genuen medikuarengana eramateko.
- Hasieran medikuak ez zekien bizirik aterako zinenik ere. - Aminatuk
- Eta, nor zara, nondik zentozen? - Aminatuk
- Haji naiz eta nire ahizparen bila nindoan hirira. – gezurra esan nion.

Emakume hura nor zen ez nekian eta etartetik ihes egin nuela jakin izan balu, agian bueltan eramango ninduela susmatu nuen. Inolaz ere ez nuen nahi horrelakorik.

- Zure ahizpa? Non bizi da? – Aminatuk.

Aminaturekin hizketan ari nintzen bitartean gizon bat sartu zen gelara.
- Niake dut izena eta neskatala hau zelan aurkitzen den jakin nahi nuke. – aurkeztu zuen bere burua.

Une hartan eta ezezagun haren aurrean pixka bat lotsatuta sentitu nintzen. Sekula gizonezko batek ez zidan halako errespeturik agertu eta bikoteak pertsona onen itxura zeukan. Orduan, hasieratik egia aitortu behar niela pentsatu nuen.

Ohetik altxatu, tripa bete-bete egin eta benetako istorioa kontatu nien. Basamortuko lege, arau eta ohitura injustuak ez nituela onartzen ez ulertzen eta handik urrun bizi nahi nuela adierazi nien.

Hizketan orduak eta orduak eman genituen.

Horrela jakin nuen jaiotzez eurek ere handik hurbilekoak zirela. Txiki-txikitan maitemindu zirela baina Niake oso pobrea zela eta ez zeukala ezer Aminaturen familiari bere truke emateko.

Ihes egitea erabaki zuten eta 45 urte zeramatzaten Euskal Herrian bizitzen. “Euskal Herria”, inoiz entzun gabeko hitza nuen.

Aminatuk eta Niakek oso ondo ezagutzen zituzten Afrikako legeak, eta ez zegoen denbora galtzerik. Egoera hartan hainbat arinen handik ihes egitea zen zentzuzkoena.

Hala, medikuak alta eman zidanean, Aminatu eta ni hirian gelditu ginen bidaian joateko erropak, oinetakoak eta janaria erosten. Bitartean Niake lagun batzuk bisitatzerantz joan zen.

Bi egun eman genituen bertan. Ordurako Niakek dena konpunduta zeukan.
- Haji, hemen duzu zure askatasunerako txartela, eta beti-beti eraman zurekin. –esan zidan. Eskuartean marroi koloreko txartel bat jarri zidan unean.

Txartel tolestua zabaldu eta bertan erdi lotan nengoeneko argazki bat eta orduan ulertu ez nituen letra batzuk azaltzen ziren:

HAJI NIAKE AMINATU
AFRIKA – 1992

Denborarik galdu gabe joan ginen aireportura. Bertan, nire bizitzan lehenengo aldiz hegazkinak ez ezik, beltzaranak ez ziren pertsonak ikusi nituen.

- Zelan ikaratu nintzen! Zelako beldurra sentitu nuen!
- Hil zorian zeudela pentsatu nuen!

Hegazkineko bidaia beste abentura bat izan zen eta orduan ere, beldur ederra pasatu nuen!

Londresetik pasatu ondoren, Loiura, “EUSKAL HERRIARA” iritsi ginen.
- MUNDU HARRIGARRIA!
- Zenbat gauza berri neukan ikusteko!

- Dena berde-berdea eta miresgarriena, edozein tokitik ateratzen zela UR GARDEN-GARDENA.
- Inguruan nituen gauzak zer ziren ere ez nekien. Zelako arropak, oinetakoak, etxeak, autoak...
- EUSKAL HERRIAN denak ziren aberatsak!
- Gehiegi zen niretzako.

Gernikara, Niake eta Aminaturen etxera iritsi eta hamabost egunez burukominez, eguzkiaren argirik ikusi gabe, egon nintzen. Baina zoriontsua eta librea nintzen.

Pixkanaka-pixkanaka inguru berria ezagutu behar nuela eta Niake eta Aminatu lanetik etortzen zirenean kalera ateratzen ginen.

NIAKE eta AMINATU, nire Euskal Herriko guraso maitagarriak. Zenbat maite nituen!

Oporrak bukatu zirenean, Euskal Herriko gazte guztiak bezala, idazten eta irakurtzen ikasteko garaia zela eta institutuan matrikulatu ninduten. Hasieran oso txarto pasatu nuen; preso sentitzen nintzen, ez nintzen gai ezer ulertu gabe orduak eta orduak horma haien barruan geldirik egoteko, baina nik ere besteak bezalakoa izan eta besteak beste ikasi nahi nuenez, hasiera-hasieratik gogor ekin nion lanari.

Lanari gogor ekin eta lagun bikainak aurkitu. Aloña, Ania, Andere, Nahia, Irati, Eneritz, Maider, Iraide, Anne, Oihane, ...

Zenbat eta zenbat ordu eman zituzten nirekin! Zelako pazientzia! Zenbat gauza ikasi nituen eurengandik! Eta, ze ondo sentitzen nintzen Afrikako bizitza, istorioak, ohiturak... kontatzeko eskatzen zidatenean.

Urte batzuk pasatu zirenean, Niakek eta Aminatuk nire lagunekin Afrikara bisitan joateko aukera eman zidaten. Denontzat izan zen aberasgarria eta zer esanik ere ez zer sentitu nuen nire bihotzeko amatxo ikusteko, ukitzeko eta laztantzeko aukera izan nuenean.

Orduantxe eman nion bukaera nire bizitzako lehenengo kapitulari.



Goretti Zarrabe
BATX 2. maila
“Ezina eginez egina”

ESKERRIK ASKO AMONA

Ia ordu bete daramat ordenagailuaren pantailaren aurrean zeri buruz idatzi pentsatzen. Maisuaren agindua zehatza izan zen Gabonetako oporrak hasi aurretik: ipuin bat idatzi behar duzue opor bueltarako. Ba hementxe nago ni, maisuak esandakoa bete nahirik. Intentzioa behintzat handia da baina inspirazio falta edo izango da arazoa. Zein motako ipuina idatziko dudan hasi naiz pentsatzen lehendabizi. Beldurrezkoa? Baliteke. Baina nola hasi? Denak hasten diren moduan. Eraikin huts edo baso ilun bat eta pertsonaia misteriotsuak erabiliko nituzke eta ondoren baliteke hilketaren bat edo sartzea.

Bakarrik nago etxean, gurasoak kanpora joan dira afaltzera eta nik hemen geratu behar izan dut ipuina amaitzen. Nire logelan nago ordenagailuaren aurrean Carly Rae Jepsenen *Call Me Maybe* bozgorailuetatik topera entzuten dudan bitartean zein ipuin mota idatziko dudan pentsatzen. Zer izan da hori? Atea ixten entzun al dut? Musika itzaltzen dut bat-batean eta etxeko aterantz noa. Korridorean dena dago lehenago utzi dudan moduan: beltz eta isilik baina atea irekita dago. Ezinezkoa da, seguru nago giltzez itxi dudala gurasoak agurtu ostean. Argi guztiak piztuko ditut, sinesgaitza badirudi ere norbait sartu da eta etxean.

Gelaz gela joan naiz ate guztiak ireki eta bazter guztietan begiratzen. Baita alfonbra azpian ere, inoiz ez da jakiten eta. Hor ere ez dut ezer aurkitu baina bat-batean zerbait somatu dut nire atzean. Aaaaaah!

Orain ere geratu naiz ipuin interesgarriarik gabe, nire neba izan da, lokalera eramateko diska batzuen bila.

Hau lasaitasuna. Beno, ez zaizkit beldurrezko ipuinak bat ere gustatzen egia esan, beraz, hobe beste mota batekoa idazten badut.

Fantasiatzko ipuin bat ere idatz dezaket baina ez dut uste oso entretenigarriak direnik, azkenean aspertu egiten naute eta.

Ipuin bat inprobisatuko dut bada, uste dut nire bizitzari buruz idaztea izango dela onena edo, behintzat, errazena.

Gure etxean izugarrizko jai giroa zegoen nagusien artean, Gabonak ziren eta. Apika txanpainaren eraginagatik edo opariengatik denak zeuden atzera eta aurrera gure etxean.

Amona etorri berria zen Benidormetik bere mutil lagun berriarekin. Aurten Jose Mari tokatzen da, ea honek zenbat denboran jasaten duen gure amonaren erritmoa.

Niri ez zaizkit bat ere gustatzen Gabonak. Ez dut atsegin arbolan argiak jartzea eta ezta opor guztiak familiaratekoen etxeetan pasatzea ere. Horrexegatik izango da Gabon haietako denbora gehiena nire logelako ordenagailuaren aurrean eserita eman nuela. Anderri zoriondu nion goiz hartan, goizeko bederatziak hamahiru gutxiagotan zehatz-mehatz eta ordutik nengoen han pantailari begira. Begiak gorri-gorri eta minbera geratu zitzaizkidan afaltzeko ordurako baina han oraindik ez zen bolatxo berdea agertzen mezu berri bat neukala adierazteko. Normalean Anderrek berehala erantzuten zizkidan mezu guztiak eta kezkatuta nengoen. Mutil perfektua izateaz aparte nire lagun onena ere bazen eta arduratzen hasia nengoen.

Amona nire logelako atean agertu zenean, uste dut aurpegi txarra ikusi zidala, afaltzera jaitsi nintzenean plateraren ondoan termometro bat utzi zidan eta. Ezin nuen egoera hori minutu batean ere jasan. Afaria amaitu bezain azkar amari lagun bati bere liburua ematen nindoala esan eta Anderren etxerantz abiatu nintzen.

Oroitzen naiz bere etxe aurrera heldu nintzenean nire barnean hutsune bat bezalako zerbait antzeman nuela baina pentsatu nuen nire lagunik onenarengatik sentitzen nuena izango zela.

Etxe hartako atetzar beltz izugarri hura jo nuenean inork ez zidan ireki eta hori izan zen benetan larritu nintzen unea.

Etxera heldu bezain pronto amari eskatu nion Martari mugikorrera deitzeko, Anderrek ez zidalako erantzuten eta bere etxean ez zegoelako inor. Ama zenbakia markatzen hasi zen eta...

Ai ama! Lokartu egin naiz ordenagailuaren aurrean. Hau da hau, ipuin bat egin nahi eta ezin. Uste dut gaurkoz utzi egingo dudala, txorakeriak idazten hasi baino lehen. Gainera, marmarra entzuten dut sukaldean. Gurasoak etorriko ziren.

Sukaldean ez daude nire gurasoak bakarrik. Amona eta Jose Mari ere badaude. Hau sorpresa! Uste nuen oraindik Ibizan egongo zirela, datorren hilerarte.

Ba, antza denez, hau ez da sorpresa bakarra izan. Sukaldean sartu naizen momentuan amona izugarrizko irribarrearekin ekainean ezkonduko dela esaten entzun dut. Nola ekainean? Ez daukat denborarik arropa erosteko eta gainera ilea hastea nahi

dut, atzo telebistan Jennifer Lopezek zeraman moduko orrazkera eramateko. Hau ez da justua!

Ohera joan baino lehen Jose Mari etorri zait bere betiko marradun gorbata zuzen jarri nahian. Esan dit lehengoan Anderrekin paseatzen ikusi ninduela eta bera ere gonbidatuta dagoela ezkontzara.

Orain bai ez daukadala ipuina egiteko astirik. Anderri deitu behar diot hau esateko eta beragatik sentitzen dudana nola esan pentsatzen hasi beharko naiz. Sentitzen dut nire maisuagatik baina honek denbora asko kenduko dit.



Ane del Palacio Totorikaguena
BATX. 2. maila
“Ez utzi malkorik ezpainera iriste”

AITONAREN KONTU ZAHARRAK

Betidanik kontatu izan dizkit aitonak gerra zibileko istorioak, baina klaserako lan hau egitea proposatu zidaten arte inoiz ez nion hainbesterainoko arreta ipini. Hasieran mesfidati agertu zen, ez zekien hainbeste sufritu zuen tokira bueltatzeko gai izango ote zen baina azkenean amore eman eta baietz esan zuen. Institutu aurrean itxaron zuen ni klasetik ateratzeko ordua iritsi arte eta grabagailua atera nuenerako hasi zen bere bizipenak kontatzen:

Francisco Etxebarrieta dut izena, baina denek “Paco” deitzen didate. Gipuzkoan, Gabiria izeneko herrian jaio eta hazi nintzen. Hamabost urte neuzkala, Gerra Zibila hasi zen Espainian eta aita errepublikaren aldekoa izategatik fusilatua izan zenean, bi aldiz pentsatu gabe, mendeku gosez, beharbada, alderdi errepublikarrareko kide egin nintzen.

1938 aldera, nire bizitzako une erabakigarrienetako bat bizi izan nuen. Gerran parte hartzeko deitu ninduten. Aizkora eta eskopeta lepoan hartuta, Euskal Herriko mendietan zehar joan ginen, gure erroak defendatzeko asmoz. Gerrara joateko gaztea nintzen arren, atxilotetek eta heriotzek gizon faltan utzi zuten alderdia eta nire beharra izan zuten. Gudu hura oso gogorra izan zen guztiontzat baina bereziki niretzat. Amari agur esan behar izan nion, berriz ikusiko ote nuen argi eduki gabe eta lehenengo aldiz nire bizitzan aurre egin behar izan nion, beranduago etengabe bisitatuko zidan heriotzari.

Uztaileko zoritxarrezko gau batean, denok lo geunden bitartean, gure kanpalekuan frankistek segada bat burutu zuten. Bertan, atxilotu eta Nafarroako kartzela batean, San Kristobalko gotorlekuan, giltzaperatu ninduten.

Bi urtez egon nintzen kartzela hartan nire epaiketa noiz iritsiko zain. Ez neukan bertatik bizirik ateratzeko itxaropen handirik, izan ere, aitak izan zituen kargu berdinak

leporatzen zizkidaten niri ere. Bitartean, ia gauero, zerrenda beltza zekarren presoaren esperoan geunden denok. Gau hartan fusilatuak izango zirenen izenak zekartzan zerrendaren zain. Ondoren, bagenekien belarriak esku biekin gogor estali beharko genituela, gure adiskideen bizia lapurtzen zuten tiro hotsak ez entzuteko.

Eraikinaren egoera penagarria zen. Ni, urik gabeko komun bat eta bi ohe zituen gela batean bizi nintzen bost lagunekin batera: Ramon , Andres, Juan Luis, Marcelino eta ni neu. Baldintza horietan, ez zen harritzekoa izan bertan larri gaixotzea, eta, medikuak tifoide kalenturak nituela diagnostikatu zuen. Beste hainbeste presoren antzera eta gainerakoak kutsatzeko beldurrez, medikuntza zerbitzuak ematen zituen kartzela batera lekualdatzera behartu ninduten.

Nituen gauza apurrak hartu eta agur esan behar izan nien nire familiazat neuzkan gelakideei. Agur esan, eta zorte ona opatu, inork ez baitzekien inoiz berriz elkar ikusiko genuen edo ez.

Oraintxe oroitzen ez dudan herri batera eraman ninduten, bertan trena hartu eta hainbat trenbidetik pasatu ondoren iritsi nintzen niri esleitutako helburura. Euskal Herriarentzat eta gudariontzat hain garrantzitsua izan den Gernika-Lumo izeneko herrira. Bertako antzinako Agustintarren ikastetxera eraman ninduten, garai artan, espetxe hospitale militarra zena eta gaur egunean zeure bigarren hezkuntzako institutua dena, iloba maitea.

Egindako bidai luzea zela eta, nekaturik iritsi nintzen bertara. Sarreran, Alfredo Perez komandantea zegoen nire zain eta paper batzuk sinatu ondoren, nire logela izango zenera eraman ninduten.

Logela hura, hamar bat ohez osatuta zegoen. Denak gizonezko eriez beteta bat izan ezik, niretzat gordeta zutena, noski. Ondo gogoratzen dut, zorigaitz guzti horren artean, oherik hoberena tokatu zitzaidala pentsatu nuela. Ohe hura leiho ondoan kokatutrik zegoen eta bertatik eguzki izpi gutxi batzuk sartzen ziren logelara. Gelakideen etengabeko aieneek itxura beldurgarria ematen zieten tokiari. Erizaina, zaharra eta desatsegin hutsa zen. Sartu eta bertara egokitzen laguntzen ninduen bitartean Rosa zuela izena esan zidan. Ea komunera joan nintekeen galdetu nionean, aurpegi ironikoz ahotik inoiz ahaztuko ez ditudan hitzak bota zituen:

- Komuna? Zuk ez duzu komunera joatea merezi gorri inozoa. Zu txerrien pare zaude, kaka eta txiza egiteko garbiontzia ekarriko dizut beharbada. Sufrimendu guzti hau merezi duzu, Jainkoak mundu honetatik infernura eraman nahi zaitu eta nik ez dut hori eragotziko!

Hori entzun ostean, ohean etzan nintzen, atsekabetuta, amorruek eragindako negar malkoak begietatik erortzen zitzaizkidala. “Zer egin diot nik emakume honi?” pentsatu nuen neure artean.

Egunak joan egunak etorri, ez nuen hoberantz egiten, eta erizain hark ez zuen bere aldetik ezer ipintzen. Egun euritsu batean, nire amak bidalitako jantzi batzuen artean guztiz hunkitu ninduen gutun bat aurkitu nuen:

Seme laztana:

Zure epaiketa iritsi da, zure gaixotasuna dela eta hilko zarela uste dute eta ondorioz, ez zaituzte erailko. Bizi, bizi mesedez berriz librea izateko. Libre izan eta zure amari besarkada handi bat emateko.

"Dana emon biar yako maite dan askatasunari"

Albiste hark, alde batetik lasaitu ederra eman zidan baina bestetik, argi utzi zidan, etsaiek garbi zutela berezko heriotza iritsiko zitzaidala eta bitartean sufritzen ikusi nahi ninduten. Denek pentsatzen zuten erizainaren antzera, hurkoaren minaz gozatzen zuten. Baina nik ez nien plazer hori emango. Inoiz baino gehiago bizi nahi nuen nire heriotza hain hurbil ikusten zutenen aurka joan ahal izateko. Hilzorian nengoen bai, baina nire burua bizirik, imaginatzeko prest. Gerra garaitzen genuela, Rosa bezelako pentsamendurik gabeko mundu bat osatzen genuela... Gau hartan, utopia eder hartan murgilduta eta gutuna esku artean besarkatzen nuela egin nuen lo.

Otsaileko gau hotz batean, nire osasunak bat-bateko okerreratzea jasan zuen. Sukarra izugarri hazi zitzaidan, hotzikarak sentitzen nituen gorputzean zehar eta ez neukan begiak irekitzeko indarririk apenas. Amets eta delirio artean, zerbait ikusi nuen. Emakume gazte bat oihal heze bat nire buruan jartzen. Nekearen nekeaz konortea galdu nuen.

Lau egun egin nituen lo sakonean, baina emakume hura burutik atera gabe. Nahastuta nenbilen, ametsa ote ikusitakoa? Begiak ireki nituen apurka-apurka. Irribarre zuri eta perfektu batekin egin nuen topo hasieran, ezpain bete eta gorri batzuekin ondoren, sudur txiki batekin gero, kafea bezain begi ilunekin beranduago eta kizkurrez betetako ilearekin azkenik. Zerbait esan nahi nion, baina ez zitzaidan hitzik ateratzen.

- Nor.... nor ... zara?
- shhh – esan zuen isiltzeko agintzen zidan bitartean – orain atsedean hartu behar duzu.
- Baina.... zer... egiten duzu hemen?
- Elisa dut izena eta erizain berria naiz.
- Eta... baina... Rosa?
- Orain dela aste bat hil zen, bihotzekoak jota. Hemendik aurrera nik zainduko zaituztet. Eta utz dezagun elkarrizketa, orain bazkaldu eta lo kuluxka bat botako duzu.

Rosa hilda zegoen, hilda! Ezin dut azaldu hitz horrek nire barnean sentiarazi zidan poz, lasaitu eta bakea. Sentimendu koktel horrek errudun sentiarazi behar ote ninduen? Hori sentitzeak bera bezain gaiztoa nintzela suposatzen al zuen? Pentsamendu hori burutik atera nuen segidan. Ez, bera zen errudun bakarra eta ez ni. Esan zizkidanak eta gero heriotza merezi zuen.

Iritsi berria zen erizainak agindutakoa egin nuen, nahiz eta gogorik ez eduki ezin bainion emakume hari ezetzik esan. Orduetik aurrera, Elisa noiz iritsiko zain ematen nituen egunak eta bera gabeko uneak jasangaitzak iruditzen zitzaizkidan.

Bazirudien emakume hark, eramangarrigoak egiten zituela kartzela hartan ematen genituen egunak. Giroak beldurgarria izaten jarraitzen zuen, baina Elisak aurrera

ateratzeko kemena ematen zigun. Nire bizitzan lehenengo aldiz, handik bizirik atera nintekeela sentitzen nuen.

Baina, zergaitik desberdintasun hori? Rosak, frankismoaren aldekoa izanik, ezin gintuen bertako gaixo errepublikarrak ikusi ere egin, animalien pare tratatzen gintuen, izan ere, horixe ginen berarentzat, animaliak. Aldiz, Elisa guri laguntzeko prest agertu zen une oro.

- Zergaitik egin zinen erizaina? eta zergaitik zaude alerdi guztietakoi laguntzeko prest?
– galdetu nion behin.
- Gerra zikin honek atsekabeak baino ez dizkit ekarri, berdin dit norbait alderdi batekoa zein bestekoa bada, denok pertsonak gara eta denok duintasunez tratatuak izatea eta duintasunez hiltzea merezi dugu. Argi neukan modu batean zein bestean gerra zikin honetako biktima guztiei laguntzeko modu bat aurkitu beharra neukala, ezin nintzela etxean gelditu ezer egin gabe eta erizain izatea erabaki nuen. Jasangaitza iruditzen zait gure inguruan gertatzen ari dena, jasangaitza herri honetako gizon eta emakume bakoitzak sufritu behar izan duena. Jasangaitza, egunero irratian hildakoen kopuru ikaragarriak entzun behar izatea – erantzun zidan.

Elisaren hitzak buruan geratu zitzaizkidan grabatuta. Emakume hark, berari eragindako mina alde batera utzi eta ez zen alderdi baten alde edo kontra jarri, gorrotoaren gainetik begiratzen jakin zuen. “Ez nik ordea” pentsatu nuen. Nik bizitza osoan zehar jokatu dut gorrotoaren arabera. Euskal Herrian bidegabekeriak burututakoenganako gorrotoa, aitaren heriotzaren errudunenganako gorrotoa, nire heriotzarekin poztuko zirenen aurkako gorrotoa, Rosarenganako gorrotoa... Ez nuen gorroto gabeko bizi bat begiztatzen eta bat-batean esaldi baten ondorioz, nire bizitzako planteamendu osoa behera erori zen.

Emakume haren pentsaera aurreiritzi gabekoak, nire bizitza salbatu zuen izan ere, Rosarekin ez bezela, erizain berriaren zaintzapean lortu nuen hobera egitea. Hortik bi hilabetera, guztiz osasuntsu nintzen, handik irtetzeko prest.

Martxoan, gelakideen zurrungak entzuten nituen bitartean eramane ninduten Ondarretako, Donostiako, kartzelara. Ez zidaten inor agurtzen utzi, eta Gernikatik urrundu nintzen Elisa burutik kendu ezinik.

Beste urte betean egon nintzen kartzela hartan, nitaz zer izango zen jakin gabe. Esan zidatenaren arabera, ez zekiten ondo nirekin zer egin ez baitzegoen haien planetan ni bizirik ateratzea. Ohe faltan aurkitu ziren egun batean, aske utzi ninduten. Bat-batean, askatasun hitzaren handitasunaz ohartu nintzen. Bigarren aukera bat neukan, hainbeste pertsonak eduki ez zutena. Orain bizitza lasaia izan nahi nuen, sufrimendu gabeko bizitza bat. Nire herrira bueltatu nintzen familiaren ondora, galdutako denbora aprobetxatzeko asmoz.

Aitonak istorioan deskribatutako Elisa amona zela argi neukan arren, ez nekien ezkontzera nola iritsi ziren. Aitonari, irribarre handia aurpegiratu zitzaion hura gogoraraztean. Berriz ere, istorioaren erritmoa hartu zuen.

1946. urtea zen eta ohituratzat nuen moduan, goizean goiz egunkaria irakurtzera joan nintzen gure etxe azpian zegoen tabernara. Egunkariko orriak pasatzen nembilela,

imprimatutako hitzei arreta handirik jarri gabe, ordura arte gertatutako guztia gogorarazi eta bihotza geldiarazi zidan argazki batekin egin nuen topo. Elisa zen argazki hartako emakume hura. Beti bezain eder jarraitzen zuen. Artikuluak, Bilbon erizain eredugarriaren saria emango ziotela zekarren, Arriaga antzokian izango zen sari banaketan. Nik inoiz baino argiago neukan bertan egon nahi nuela.

Autobusa hartu eta Bizkaiko hiribururantz abiatu nintzen. Geratzen zitzaidan diru apurra, antzokiko lehenengo ilaran eserleku bat lortzeko erabili nuen. Zeremonia luze baina hunkigarria izan zen hura eta bukatu zenean, Elisa eraikinetik atera arte itxaron nuen Bilboko gau ilunean murgilduta. Ikusi ninduenean, denbora luzez begietara begiratu eta besarkada handi bat eman zidan.

Maite zaitut – esan nion.
Nik ere bai – erantzun zidan.



Ane Miren Arejita Abaitua

BATX. 2. maila

“Borroka ezazu maite duzunagatik”

HAURTZARO GALDUAREN BILA

Kanpai hotsak entzutearekin batera itzartu nintzen. Ahots zakar eta sarkorra entzuten nuen lozorrotik irteten nintzen heinean. Burua eskuinetara bueltatzean, orban beltz bati erreparatu nion. Abitua soinean zeraman emakumearen aurpegiaren zimurretan zehar, bizitzan jasandako nekeak igarri zitezkeen.

Goiz lainotsua zen, nagiak ateratzea kostatzen zitzaizun goizetako bat. Euria bota ahalean ari zuen, eta nik, oraindik, “shock” egoeran jarraitzen nuen, ez nekielako non nengoen ezta zergatik eraman ninduten leku horretara ere...

Ziztu bizian, oinetakoak jantzi eta irteera aurkitu nahian jo nuen mailadian behera. Orduan, serorak iletik tiratu eta satora eraman ninduen. Sartzerakoan, hotzikara batek astindu zuen nire gorputza. Kobazulo hotz, ilun, eta hezea zen. Isiltasunaren erreinuan ur tantek lurra ukitzean sortutako nota musikalen hotsa baino ez zen entzuten. Beldurra sentitu nuen, babes falta, gurasoak non aurkituko ote galdetzen nire buruari...

Bat-batean, sabaiko bonbilla izeki zen eta jaisteko agindu zidan ahots sakon batek. Zurezko aulki batean eseri nintzen eta konturatu orduko larruzko uhalekin lotuta nengoen. Une hartan, makina elektrikoaren harrabotsa entzun nuen eta koldarturik, burua makurtu eta harlauzari so geratu nintzen. Orduantxe jabetu nintzen bizitzen nengoen lipar krudel hartaz. Gari koloreko ileak urrez tindatzen zuen lurzoru iluna, makinak zaratari ekiten zion bitartean. Eta ni, hor nengoen negar eta garrasi artean, neure burua kokatu ezinik. Gogora etorri zitzaizkidan gurasoekin igarotako aurreko hamahiru urteak eta oroimenean ezkutatu nintzen gomuta guztiak zehatz-mehatz arakatur.

Ez nuen haurtzaroaren zoriontasuna ezagutu; haatik, nire baitan gorderik geratu den bizitzako atala da. Aldatu nahi izan banu ere ez nukeen egingo; azken finean, horixe izan da gaur egun daukadan heldutasunaren lehen urratsa.

Urte latzak. Behin eta berriz pairatu behar izan nuen egoera bera. Biak etxeko egongelan konorterik gabe, xiringez inguratuta. Bizpahiru egun pasatzen zuten horrela, eta ni bitartean goibel eta indarge. Inork ez ninduen garbitzen, ferekatzen; ez nuen gauetan musurik ematen zidan inor ezta ipuinak gauetan kontatzen zizkidanik ere. Gurasoak gero eta putzu sakon eta ilunagoan sartzen ikusi nituen. Ez zuten argudiatzeko indarrik ere izaten, beraien elkarrizketa begiraden bidez gauzatzen zen eta.

1982ko uda.

Amak, *country* abesten eta gitarra jotzen jarduten zuen. Gauetan bakarrik egiten zuen lan, karrikaren amaieran zegoen taberna batean. *Moteroak* joaten zireneko tabernetako bat zen eta han ezagutu zuen nire aita izango zena. Aita, Texas-en jaiotakoa zen eta familia umil batetik zetorren. Horregatik, motoa hartu eta abagune berrien bila joan zen bizitza nola edo hala aurrera eramateko asmotan.

Aitak ametssetako printzesa aurkitu zuen gau horretan, neoi argien urdina urre koloreko ile artean islatzen zen bitartean. Ahots goxoz abestutako soinuek jaioterriaren oroitzapenak ekartzen zizkieten gogora.

Ama, laster maitemindu zen tabernan sartzean nabari gelditu zen amerikar galantaz.

Gau horretan bertan sortu heriotzaraino jarraituko zuen maitasun istorioa, jakin gabe jolas arriskutsu batek zapuztuko zuen istorio laburra izango zela.

Ezagutu eta pare bat hile geroxeago elkarrekin bizitzera joan ziren eta konturatu zirenerako munduan nengoen, euren arteko maite-suaren seinale.

Ez zuten familiakoen laguntzarik eduki eta horregatik, ametsak alde batera utzita, senperrenak egin zituzten ni aurrerantz ateratzekotan. Amak lokal ziztrinetan eta aitak aldi baterako lanetan irabazten zuten diru apurraz ez ziren hile bukaerara iristen. Hau guztiaren ondorioz, burua ezin altxatuz, aita drogen munduan sartu zen. Lehenengo, substantzia ilegalak saltzera mugatzen zen, amari entzundakoaren arabera negozio haietan diru mordoa irabazten baitzen, baina denborak aurrera egin ahala, aita drogazaletasunean murgildu zen eta handik gutxira, amak jarraitu egin zion. Zaletasun hau errealitatetik ihes egiteko aitzakia bihurtu zuten; baina hala ere, bien begietan tristura isila islatzen zen. Amak, goibeldurari eutsi ezinik, gauero ematen zion negarrari estu-estu besarkatzen ninduen bitartean.

Bizitza infernu bilakatu zen. Makal eta ahul, medikuz mediku eman nituen lehenengo urteak. Gaixorik igarotako denboraldien kausaz, ez nuen lagunik egiteko aldarterik izan eta haurtxo babesgabea ume bakarti bihurtu zen.

1995eko negua.

Hiriak gabonetarako argitxoak jantzita dir-dir egiten zuen bitartean, burua biratzen nuen erakusleihoetan islatzen zen koloretako bolez apainduriko izeiaren goiko izarrari begira. Gomutatzen ditudan pasarte zoriontsu bakanak dira.

Abenduko arratsalde zuri horretan kolorez margotutako zoriontasun izpia laster tindatu zen beltzez. Zurbil eta hotz idoro nituen. Bihotza uzkurtu zitzaidan eta berehala ohartu nintzen zorigaiztoko egoeraz.

Hil berriak ziren gurasoen errautsak leunki barreiatu ziren nire bihotzari berun-koloreko kapela jantziz. Samintasunak etsipenari egin zion leku umezurtz-etxea ezagutu nuenean.

Bost urte amaiezinak izan ziren. Ez nintzen kikildu baina. Denboraren poderioz, malkoek atsekabez eginiko ernegazioari eman zioten pauso. Paula izan zen bakardadearen aurka egiteko arrazoi bakarra.

Gosarian ezagutu nuen, gaztaina koloreko ilea eta begirada ameslariko neska hauskorra. *Maria* gailetak uretan beratzen genituen bitartean, elkarri egin genion so. Laster saiatu nintzen bere maitasuna bereganatzen, berak egingo zukeen bezala, bakardadearen eta adiskidetasunaren arteko muga apurkorra betiko deuseztatuz.

Etxeko beste zereginez aparte, zorua garbitzen eta igurtzen derrigortzen gintuzten. Ur beroa, ametsetan baino ez. Paulak eta biok sarritan egiten genuen lo sotoan, arratoiak lagun, baina hala ere ez ginen dohakabe sentitzen. Oroitzapenen gatibu izan nintzena, etorkizunaren banderaduna izanen naiz.

*Nire ametsak esnatzen ez badira
lili idor sorta baten antzera amaituko dute
nire ametsak ez badira lokartzen
ez dute sekula eguzki izpirik ikusiko.*

*Ene desira eta errealitatearen artean
nire ametsak bizi dira
inoren lurrean
ni noiz amestuko
noiz jasoko zain,
umezurtz*

*errealitatearen ametsaren
eta desiraren zeruaren artean
nire ametsen ibaia dago
nik noiz edango bertatik
edo bertan noiz itoko zain.*

2000ko udaberria.

Txikitako etxera itzuli naiz iraganeko mamuak uxatzearren. Hortxe, panpina urratuaren eta familia argazki urrien artean, hautsez estalitako amaren gitarra topatut, gitarrarekin batera abesti zaharren soinuak ere berreskuratuz.

Tren geltokian kantari, asmatzeke dagoen bizitzaren zain ematen ditut orduak, haurtzaro galdua berreskuratzeko ametsaz.



Bihotza Uberuaga

Bidaguren

BATX. 2. maila

“Nahiz eta ezerk ez iraun, dena da betiko”

'HITZAK NONAHI'

Milaka galdera
erantzunik gabe,
milaka gai
eta
sakontasunik ez.

- Edonork dioenaz
blai,
hitzak ditugu
nonahi.
Erne, baina,
zer dioten,
ideia hasi berria
aldatzeko
baitira gai.

Begirada sarkor eta
luma beltzdun
belearengana
ez gara
maiz hurbilduko.
Bai, aldiz,
alai dabilen
txantxangorri eder,
txairo
horrengana.
Zer dio beleak
izateko berezi?
Nik behintzat,
horrela dut ikasi.

-Beti bikoitzaren
nahian gaude.
Dena, ezer,
edo inoiz ez.
Gosea hasetzea
lortuz gero,
egarria izango
da arazo.

Desira eta
goranahia
bereiziz:
Lurralde behartsu
bateko haurrak,
baitezpada lan
egingo du,
pentsatuz,
noizbait bere
desira guztiak
ahalko dituela
beteak gozatu.

Aldiz,
dirudun etxe
horretan,
lan eta lan bai,
baina
gizon horren arreta
goranahiaren
barne hartzetik
kentzea,
zail.

-Debekatutako ateak
daude nonahi,
zuk hutsera
salto egiteko
zain.

Gaur egun,
grinaren beldur,
lagun talde baten
bila,
bakarrizketa lortuz.

Antza,
heriotza da
gailur eta tontor.
Miraririk ez dago,
baina oraindik,
bide luzea
dator.

Ikas dezagun
jarraitzen gaituen
irakasle hoberenaz,
akats bat
guztiok dugu eta.



Maialen Basterretxea Zubia

BATX. 2. maila

“Zaindu gabeko lorategia da zure oroitzapena”

Bakoitzak berea inorena baino hobeto ikus dezake, bere sentimenduak, bere gogoetak, inork jakin ezin dituen gauzak. Zailak dira ulertzeko besteen arazoak, erraza da esatea “lasai egon”, eta gogorra da entzutea “ulertzen zaitut”, agian isilik geratzea hoberena, isiltasuna sentitzea gogokoena, ezer ez entzutea.

Eta agian zailak egingo zaizkizu nire arazoak, eta ulergaitzak nire hitzak, baina barrukoak dira, edonork ikus ez ditzakeenak. Identifikatuta sentitzea ez da arraroa, askotan sentitzen gara identifikatuta toki, pertsona, animalia edo hitz simple batzuekin, baina momentu bakoitza bakarra da, pertsona bakoitza bakarra.

KAIXO ETA AGUR

Azken asteotan badarabilt gauza bat barnean bueltaka, ez zaitut ahazten ez, zeu zara nire ametsetan nagusi, zeruetako izar politena, zeu zara nire hitzen esanahi nagusia, zeu zara oraintxe alboan behar dudana. Oso ausarta izan zara, bai. Arrasaten hasi eta Zumarragan bukatu zenuen, Gasteiz eta Donostia igaroz, batetik bestera, autobus zuri-gorritz (ordaindu behar ez dena portzierto, suertea), helikopteroz eta autoz iritsi zara.

Bidaia hori egiteko urte bete eta piku behar izan duzu, askotxo beharbada, baina zure onerako; harro nago zutaz, benetan, nire irakaslea ere harro dago bere herriaz, berdin-berdin. Baina orain zu hor eta ni hemen, komunikazio bide ia guztiak itxi dizkigute, edo itxi zaizkigu beharbada, edo itxi behar izan dituzte agian, baina sentimenduak adieraztea librea da, ez? Uste dut, edonon zaudela ere, nire hitz hauek iritsiko zaizkizula noizbait, ez dut uste, seguru nago. *“Zu hor eta ni hemen, distantziaren urrunean, argi lotuak daude bixon artian.. argi lotuak..”* hitz hauek idaztean, kantu hau entzuten dut behin eta berriz, itsusia dela iruditzen zaidan arte (ez zait inoiz itsusia irudituko); agian, hitz hauek ez dute amaiera bat izango.

Jope, faltan botatzen zaitut, zergatik utzi ninduzun hemen honela? Gorroto al nauzu? Iraun duen artean, polita izan dela uste dut, bota dudan negar tanta bakoitzeko irribarre bat irabazi dut, beraz ez dago gaizki.

Ez dakit zer idazten dudan, esaldi solteak agian, baina errealak, benetan, zin egiten dizut. Ez nago ezer errepasatzen, euskarako irakasleak dio ondo idazten dudala, 0 falta ortografiko azken azterketan, toma!

Bai, gaur ilea kiribilduta daramat, gure azken agurretik ez dut askotan lisatu, zutaz gogoratzen bainaiz, “zetako rizau dozu ulia?” zure euskara polit harekin galdetzen zenidan, bekain bat gorantz zeneraman bitartean, oraindik ez dakit keinu hori nola egiten zenuen, baina benetan, ez zaitut ahaztuko. Nire amak ere gogoratzen zaitu e!, oso gogoko zintuen eta beti izango zaitu gogoko, eta esango nuke, agian, batzuetan, nik neuk baino gehiago botatzen zaituela faltan, jaka berdea ikustean negar egiten baitu, txamarra berde bat ikusi eta negar? Agian zuk ulertuko duzu zerbait, kontatuko didazu elkartzen garenean. Sekretuak asko gustatzen zaizkit, badakizu.

Gauza batzuk ulertzea hain da zaila, itzuli ez izana arazo pertsonalengatik, gauza pertsonal horiek badakizkitez besteez ere, nik badakizkit, baina benetan, ez dut ulertzen. Gauza batzuk gogoratzea hain da mingarria, benetan, batzuetan ez zaitut egoera jakin batzuetan gogoratu nahi, beste batzuetan inoiz baino gehiago gogoratu nahi zaitut, zure irribarre hura neure bihurtuz, ez dut neure burua ere ulertzen.

San Mames futbol zelaia bisitatzean zutaz akordatu naiz, ez ezazu pentsa Athletic taldeagatik ekarri zaitudala burura, ez, badakit Errealaren jarraitzaile sutsua izaten jarraitzen duzula, urte hauek nirekin igaro badituzu ere ez da ezer aldatu zugar. Partidua ikusten zeuden gazteek bazuten zerbait eskuetan, eta eskutik ahora, eta ahotik kea, usain hura, porro usaina, usain ez ohiko bat, aireportu hartako usaina gogorarazi dit. Agian ez dute zerikusirik, baina biak dira arraroak; elkar agurtu genuen egun hartako usaina, gurutzez eta eskulturaz beteriko aireportu hura, ez dut oso gogoko, usain berezia. 1-2, Athletic-ek galdu egin du.



Gaur, inoiz baino gehiago kostatzen zait hitz hauek idaztea, agian zuri zuzenduta daudelako, eta asko maite zaitudalako, gaur oporretan zaudelako, eta hutsune eder bat dagoelako hemen, baina edozein momentu izan daitekeelako aproposa gu elkartzeko. Nahi dut eta ez dut nahi, ikusi nahi zaitut. Hobeto ez zalantzan jarri, hobeto dena ahaztu, seguruena da noizbait berriz gu elkartzea, hori nire ustetan, beste batzuen ustetan ez. Saiatzen naiz, mundu zaharreko gauzen berri ematen.

Nire notak ez daude gaizki, eguraldi politikak darabiltzagu Bizkai ingurutik, laster maiteminduak ikusiko ditugu edonon (udaberria dator)..., antza denez dena dago bere tokian, dena doa “estupendamente” nire gaztelaniako andereñoak esango lukeen bezala,

baina ez nago ados, “estupendamente” hori ez zait batere gustatzen. Dena ez dago bere tokian, zu ez zaude zure tokian, eta ni, agian, ez nago nire tokian, eta pertsona haiek guztiak ez daude bere tokietan, eta “estupendamente” hori gutxiago! Mundua ez dago bere tokian, dena alai pintatzen dugu, dena ondo dagoela irudikatu, baina ez da horrela, agian aitortzeko garaia da, errealitatera salto bat eman, eta dena, den bezala marraztuko da. Seguru nago, guk irudikatutako hori baino mila aldiz “estupendamente”-agoa izango dela, eta horrela ez bada, bakoitzak egin dezala bere lana komeni zaion bizia apaintzen. Nik badakit neurea apaintzen. Zu bezalako igeltsero baten falta nabari da, gauza bakoitza behar den tokian kokatzeko, gogor finkatzeko.

Sirena hotsak esnatu nau gaur gauerdian eta balkoira hurbiltzea besterik ez zait otu, anbulantzia bat igaro da nire etxe aurretik, zuri-gorria, bere soinuarekin eta itsutzeko bezalako argi urdinekin, autobus zatatsa bat bailitzan. Bai, zu bezalako pertsona ausarten bat joango zen barruan, edo ez, agian ez hain ausarta, batek daki nora, agian Zumarragara, agian Gasteizera, nork dio ez zihoala Donostiara?

Ama ikusi dut gaur eguerdian, badakit, egunero ikusten dut, baina gaur bereziago, txamarra berdea zeraman soinean, ez dut negarrik egin, alaitu egin nau horrek, oso eder zegoen, eta ez dakit zergatik, txamarra berdearena ulertu gabe jarraitzen dut. Antz handia daukagu amak eta biok, zuk ondo dakizu biok garela burugogorrak, antzera pentsatzen dugula, badakizu ile kizkurra daramagula (zure gustura), biok ditugula begi marroiak zureak bezalakoak, eta begi horietatik negar anpuluak erraz baino errazago irteten zaizkigula, sentiberak. Antz handia daukagu, haserrealdiek diote guztia.

Triste nago.

Elizara hurbildu beharra izan dut gaur, gure aireportura, elkarri agur esan genion toki hartara, porro usainarekin konparatzen dudana inguru deserosora, loreak eraman nituen lekura, negar egin ez nuen esparrura, azken irribarrea gogoratu nuen gunera, dena amaitutzat eman zen elizara.

Horixe baietz, beti gogoratuko dut zure irribarrea, zu bezalakoa izan nahi dut, inoiz ez baitut ahaztuko: oso ausarta izan zara, Arrasaten hasi eta Zumarragan bukatu zenuen, Gasteiz eta Donostia igaroz, batetik bestera, autobus zuri-gorritz...

Kaixo eta agur aitona, maite zaitut.

P.D: Amonak ere asko botatzen zaitu faltan, eta ez ahaztu, sekretu bat daukagu pendiente.

Zure iloba Maialen (eta ez Marialen).



Sara Abaunza Urionabarrenetxea

BATX. 2. maila

“Errazagoa da sinestea, pentsatzea baino”

AMETSEN BILA

Historiaz beteriko zubi batetik igaro eta Neba ibaia zeharkatzea dut amets, batzuek ahantzitako, eta besteek, Aleksandr Nevskyri leial, ohorez estimatutako gudu gogorrak irudikatuz. Halaber, xuxurlaka darabilt kantuka: “Ey ukhnem... Ey ukhnem... Yeshcho razik, yeshcho da raz...” errusiar azentu egokiaren alferrikako saiakeran. Horrela, Volga ibaiari abesten diot, haize hotzak aurpegia laztantzen nauelarik, eta beste garai batzuetan zeharo murgilduta, arraunean noa ama ibaian zehar. Zaintzen eta maitatzen nauen ibaia, bere ur garbi eta gardenetan larritzen nauten beldurretatik babesten nauena, kezka guztiak itsasora helaraziz. Bere barnean seguru sentitzen naiz, poztasunez eta lasaitasunez beteta. Ortzi-mugarantz begira, hiru koloreko aberri eslaviarraren bandera dakusat harro, haizearekin batera kulunka jolasean. Larruzko eskularruak jarri eta begirada San Basilioko dorreetatik haragora zuzenduz, sortalderantz doazen hodeien formak miresten ditut. Plaza Gorriko eraikuntzen edertasun eta dotoreziaren itzalpean, bat-bateko hotzikara batek gorputz guztia zeharkatu dit. Hala, Ama Errusiako hotz artikoaren besarkada jasatekotan, vodka zurrutada baten desioa datorkit burura. Arnasa sakon hartu eta, mendeku gisa, lurruna bota diot negu krudelari azkenengoz, ostatura sartu aurretik.

Batzuetan gehiegi urruntzen naiz filosofiako ikasgaietako errealitatetik. Urtaro hotz eta gordin honetan batez ere, kaleek inoiz baino ederragoak dirudite ikasgelako leihoetatik at: goizeko eguzki izpien garrasi ahulak, zoruko belartza izoztuaren agoniak eta zuhaitz biluzien bakardadeak kafesne zaporea dakarkidate ahora. Kafesne garratza hala ere. Segunduak minutu bihurtzen dira, eta minutuak ordu, esnatu berria den zero grisari begira. Halako batean, itsas txori batek inguruko armonia perfektua hautsi du, bere kantuez oihuka. Laster etorriko da ekaitza. Laster etsiko dira eguzki izpiak, beraien alferrikako esfortzuez.

Azkenaldian, abenturez jositako atzerriko bizitza magikoa baino ez darabilt buruan. Nire barne-pentsamendu horietan murgildu bezain laster, beste herrialde bateko aire beharra datorkit, eguneroko errutina deuseztatzeko beharra. Izan ere, hain da kitzikagarria bidaiari baten bizitza... Hainbat sentimendu berri bizi eta bestelakoa den kultura bateko kolore eta usain desberdinak dastatzeko aukera du uneoro bidaiariak. Mundu fantastiko bat bailitzan, lilura eta etsipena bateratzen dira nonahi, erakargarri zaidan atmosfera ezezagun horretan. Italiako bihotz beroa, Jamaikako erritmo erlaxatua, New Yorkeko haize modernoa, Greziako iraganaren presentzia eternoa... Nork ez du ba, Pariseko *glamour*-az gozatu nahi? Ilustrazioaren garaiko kafetegi barroko batean sartu eta “*Bonjour monsieur, je voudrais un café au lait, s’il vous plaît*” ezpain artean ahoskatuz, kantoi batean eseri eta *Le Monde* egunkariko titular irribarretsua irakurriko nituzke lasaitasunean. Hala ere, hemen naiz. Ikasgelako mahai bakarti honetan, ameslari.

Historiako irakaslea SEBSaren garaiari buruz hitz egiten hasi da kementsu, eta berriz ere, nire pentsamenduek herrialde errusiarrera egin dute ihes. Moskuko metroan nago orain, lurpeko jauregiko geltoki nagusian, hotzetik salbu. Begirada marmolezko zutabeetan gora doa egonezinez, sabai barrokoko mosaiko zaharren handitasunaren aurrean harri eta zur gelditu arte. Kolore zurbileko horma horiak eta txikitan banan-banan zenbatzen nituen kartel argitsuak gogoratzen ditut, dotorezia nonahi arnastuz. Amonak hainbeste aldiz aipatzen zizkidan urte gogorrak oroitu ditut orduan, errusiar iraultzatik hasi eta, gerra hotzari zein *perestroikari* buruz mintzo zen iragan gozo hartan. Askatasunaren bandera gorria irudika nezakeen, harro, eder, amonaren begi-ninietan islatuta. Behin eta berriz kontatzen zizkidan Euskal Herrira ihesean etorri behar izan zen garaiko abentura harrigarriak, eta nik begiak kliskatu gabe aditzen nituen, bere altzo bigunean gustura eserita.

- Amets egitea beharrezkoa da, Natasha - esaten zidan beti, bere ohiko txokolatezko bizkotxo labetik atera orduko- baina gure ametsetan sinesteko baldintzapean. Bizitza erreala aztertzeke, behaketa hori gure ametsekin alderatzeko eta gure fantasia propioak sortzeke baldintzapean.

Nik baietz egiten nion buruaz, guztiz ulertzen ez nuen arren. Esaten zuena esaten zuela, arrazoiak ematen nion amonari, jakinduria handiko emakumea zela iruditzen baitzitzaidan. Gaur egun ordea, garbi ikus dezaket esaldi horren bitartez amonak helarazi nahi zidan mezua, eta berarekin elkarrizketa sakon hura jarraitzeke beharrezana pizten zait bularrean, txokolatezko bizkotxoari, birrindu aurretik, gerra deklaratu bitartean. Amaigabeak bihurtuko nituzke une haiek, denbora geldituz. Labearen beroa eta amonaren ahots otzana eztizko mila laztan bezala berriro sentitu nahiko nituzke belarri ertzean, behin eta berriz.

Bada ametsak gauza eskurazintzat dituenik. Baina zein gizaki mota izango ginateke betetzeke daukagun ametsik gabe? Nahirik eta borrokarik gabe? Amonak bere amets guztiei uko egin behar izan zien, Errusia iraultzailea abandonatu eta ezaguna zuen guztia atzean utziz. Hala ere, amets berrien bila abiatu zen, ezezagunean murgilduta eta etsipena azken baliabidetzat zuela. Azken batean, ametsik gabe errai eta beldur pilo bat baino ez gara.

Heldu da azkenik, klase eternal hauetatik irtetzeko ordua. Institutuko atea indarge bultzatu dut, baina gogoz aldi berean, eta berehala dozena bat ikasleren

zigarroen keak ongietorria eman eta birikiak estu besarkatu dizkit. Sakon hartu dut arnasa, askatasuna dastatzekotan, eta ondoren, atzean utzi dut ke-lainoa agur batez.

Hasi dira Gabonetako argiak jartzen jada, kolorez busti dira espaloï bakartiak, eta irribarreak agertzen hasi dira aurpegi zurbiletan. Gabonetako irribarreek ordea, kaleetako argien iraupen berbera izan ohi dute, Eguberrietako espirituaren arrastorik txikiena ere bat-batean desagertaraziz. Halako batean, argi artean, Ruben azaldu da disdiratsu. Une horretan gogora etorri zaizkit behin esan zizkidan hitzak:

- Ez dit axola emakume baten larruazala melokotoi batena edo paper latz batena bezalakoa den. Ez diot garrantzirik ematen bere hats afrodisiako edo insektizidari. Erabat gauza naiz azenarioen erakusketa batean lehenengo saria irabaziko lukeen sudur bat jasateko. Baina hori bai, eta honekin oso zorrotza naiz: ezin badu hegan egin, denbora galtzen du nirekin.

Zer pentsa handia eman zidan hitzaldi hark. Esna ematen nituen gau guztietan gogoratzen nuen teoria hura, ados ez nengoela ondorioztatu arte: nire aburuz, bada hegan egitea baino gauza garrantzitsuagorik. Azken batean, hegan egitea bakoitzaren esku dago. Maitasunak gailurrera eramaten gaituenean egiten dugu hegan, ez prest gaudenean, prest egon nahi dugunean baizik. Segundoko frakzio bakoitza bere ondoan berezia dela sentitzen dugunean.

Benetan garrantzitsuena bere distira da. Bizitzaren joanean, argizko aura bat askatzen duen norbait agertu ohi da, inguruko gauzen edertasuna desagertaraziz. Distira horiek energiaz betetzen gaituzte barnean, norberaren arima ere argiztatuz. Hala, bata bestearengandik banatzerakoan, argi dirdirak itzali eta ahul sentitzeraino heltzen gara. Beraz, nik beti bilatu izan dut hurbil sentitzen nauenean piztu, eta itzaltzeko beharrianik ez duen norbait. Eta norbait hori Ruben da.

Etxean bakarrik dagoela esan dit eta berarekin abiatu naiz arratsaldeko zero tristerearen azpitik. Nik beldur naizela aitortu diot, gero eta izpi distiratsuagoak baititu, eta sua hartuz gero arriskutsua bihur daiteke gure arteko hau. Zer gertatuko litzateke argi izpien ordezt, sugarrak askatuko bagenu? Ez dakit... inoiz ez dut inor maitatu nahi izan eta orain dena da perfektua. Gehiegi berotzen dut burua, agian.

Rubenen logela oso txukun egoten da beti, ni heldu arte. Ezin dut ordena jasan. Logela batek jabeari buruzko informazioa eman behar duela uste dut, pertsonalitatea agerian utziz, biluzik. Eta hala, Rubenek gerritik heldu eta nire gorputza guztiz biluzten saiatu da. Ez du lortuko ordea, eztarriko korapilo hau askatzea ezinezkoa baita.

- Bihar Errusiara bueltatuko naiz – esan diot azkenean, burumakur. Korapiloa ez da arindu, sendo darrai, eta arnasa ondo hartzea galarazten dit.

Aurpegia guztiz aldatu zaio eta, desorientatuta bezala, begirada galdu du nire aurpegiko lekuren batean. Ez du txintik ere esan gau osoan. Ez dago hitzen beharrik malko artean estu besarkatzen nauen bitartean.

Txikitatik saldu digute amaiera zorientsuaren ideia. Hala ere, zerbait amaitzen baldin bada, ezinezkoa da zorientsua izatea. Denak du amaiera bat: udako azken eguna, gustuko liburuaren azken kapitulua edo jaioterrira bueltatu eta handik urruntzea. Amaierak saihestezinak dira. Udazkena heltzen da, liburua zerratzen dugu eta agur egiten diogu elkarri. Ezaguna dudan guztiari agur egiteko unea da, eroso zitzaidan

guztiari. Hurrengo orrialdera igarotzeak min ematen du. Banoa amets berrien bila. Hala ere, nire parte garrantzitsu bilakatu den hori hor izango da. Bera da nire lur tinkoa, nire iparrizarra, nire bihotzean beti entzungo dudana ahotsa. Beti.



Zihara Jainaga Larrinaga
BATX. 2. maila

“Bizi itzazu ametsak amestu beharrean”

BIZI NAHIAN

EZ DADILA GAUA ETORRI

Egunak luzeagoak balira
gaua ohartu
eta haserretuta
argitasuna lapurtzen
saiautuko zen.

Luzeagoak, oparoagoak
goizetik arratsera
egunsentian, eguerdian
eta ausartuta
ia, ia gauerdian.

Denboraren zorabioa,
ez dadila gaua etorri
eguna behar dut
argia arnastu
bizi egarria ospatu.

Bihotzaren taupadetan
dantzaka susmatzen dut
bizinahia algaraka
mundua besarkatu nahi dut
ilundu baino lehen.

Ospatu dezagun
izatearen jaia
irauteko desioa
erlojuaren orratzetan
desagerturik bezala.

Denboraren zorabioa
ez dadila gaua etorri
zelaian jolastuz
haize gozoan babestuz
bizi nahi dut.

Irauten du ametsak
iluntzeak uxatu nahian
ez da berandu oraindik
ahantz dezagun
urrutiko gaua.

Bihar gaur da jadanik,
ez, itxaron,
hartu arnasa
askatu solasa
ahaztu bizitzaren anabasa.

Denboraren zorabioa
ez dadila gaua etorri
ihesi noa ihes
gauak harrapatu nahi
baina ezin sinets.

Bizitza bizi nahirik
bizi nadin bizirik
bizitzea biziz
egun amaigabea
ez dadila gaua etorri.

BIZITZA GAINEAN DANTZAN

Nora noa?
Mundua ikustera
Laua ote ?
Ah, ez ! Borobila ...
O! Eroriko naiz
baina ikusi behar dut
goitik behera
zabaletik luzera
lurretik itsasora.

Izpiak, txikiak
nirnirrean
udaberri gainean dantzan
Laponian oreinak pozik
Patagonian kaioak alai
O! Galduko naiz
baina ikusi behar dut
ura urtzearen zarata
berritzearen enbata
lorategiak begiratzuz.

Izpiak, handiak
erre minean
uda gainean dantzan
Idahoko desertuak gorri
Urdaibaiko artadiak orlegi
O! Berotuko naiz
baina ikusi behar dut
arkumea salto brinkoka
txakurraren zaunka bizkorra
arrats beheratan lasaituz.
Izpiak, okerragoak
zirzirrean
udazken gainean dantzan
Saharan gameluak pausoka
Moskun otsoak algaraka
O! Izutuko naiz

baina ikusi behar dut
landare lehorraren nekea
tundrako zuhaitz biluzia
lotarako abestiak prestatuz.

Izpiak, etzanak
bertan beheran
negu gainean dantzan
Egiptoko piramideak ilun
Quebeceko soroa zuri
O! Hoztuko naiz
baina ikusi behar dut
suge luzea lotan
orein laztantxoak dar-dar
eta mundua begiak lausotuz.

Joan naiz , ikusi dut
sentitu dut
ni ere mundua naiz
ederra da mundua gero!
O! Bizi naiz!
goizetik arratsera
udatik negura
kanpotik barrura
ilunetik argira.



Marian Amutxastegi Gabiola
HHI/EPA

NIRE SENARRAREN OMENEZ

Maitasun bidearen hasiera

Joseba nire lantokian ezagutu nuen. Bere harrotasunak eta umoreak atentzio handia deitu zidaten. Bere aurpegia eta nortasuna gustokoak nituen. Hasieran adiskideak ginen, baina handik hilabete gutxitara ba... gertatu behar zena gertatu zen.

Nire ustez oso sentibera zen. Elkarren gustokoak ginen, horrela hasi zen harremana. Irteten hasi ginen; zalantzak izan genituen, bai berak baita neuk ere. Ni gaztea nintzen, berak nik baino adin gehiago zuen. Ze arraio! Handik bi urtetara edo ezkondu ginen eta hilabete batzuetara umetxoa izan genuen.

Musika asko gustatzen zitzaion

Abeslari ona zen, entzumen ona zeukan. Emozioak adierazteko ahalegin handiak egiten zituen. Bere inguruan egoten ziren pertsonak bereganatzen zituen abesten zuenean. Ez dakit zergatik, baina handiagoa sentitzen zen. Egunerotasunean asko kostatzen zitzaion emozioak eta sentimenduak adieraztea. Abestean, berriz, oso sentikor jartzen zen bere inguruan zeudenei maitasun handia adieraziz.

Arrantzalea

Hamalau urterekin hasi zen itsasoan, hogeita hamabost urte izan arte. Azkenengo hogeita hiru urteetan Mundakado Azti Teknalia lantegian egin zuen lana, berrogeita hemezortzi urterekin jubilatuz. Hala ere, esan beharra dago ez zela lehorreko gizona, itsasokoa baizik. Hau da, itsasgizona zen. Ia goizero txalupa hartu eta itsasoratu zen bere lagun minarekin, bere denborapasa gustokoena arrantzan egitea baitzen. Laburtuz, esan daiteke Josebarentzat itsasoa bere bizitza zela. Goizero itsaslabarrera begira egoten zen, eguzkia noiz irtengo itxoiten. Berak esaten zuen bezala, ez zegoen

horrelako lekurik ezta irudirik. Hori dela eta, zer gutxiago bere arraunak bertan egotea betirako baino.

Futbol zalea

Jendeak kirol ezberdinak maite izaten ditu. Nere senarra futbolarekin maiteminduta zegoen txikitatik. Berrogei urte izan arte, futbolekin jokatu zuen. Lehenik hondartzan jokatzeko hasi zen ez baitzegoen futbol zelairik. Gerorantz, berak hainbeste maite zuen Athletic-eko edozein arropa, plater, etabar gordetzen eta erabiltzen zituen.

Lekitxo bere herria

Oso maite zuen bere aberria, bere herria. Egia da Lekitxo oso polita dela, baina askotan esaten nion ez zela horrenbesterakoa. Baina berarentzat bizitzeko leku egoki bakarra zen, berarentzat herri hau bakarrik existitzen zen.

Gaitzaren hasiera

Hil baino hiru aste lehenago gaizki sentitu zen. Minik ez zuen, baina bere azalako kolorea eskasa zen. Galdakaoko ospitalera joan ginen, eta hiru egun aztertzen egon ondoren, laister aurkitu zuten bere gaitza. Nire urtebetetze eguna zen, urriaren 4a, sendagilea hurreratu zitzaidan, begietara begiratu eta hilabetea geratzen zitzaiola esan zidan. Momentu horretan, bihotza gogortu zitzaidan eta senarraren alboan mantendu nintzen bukaera arte. Irribarre batekin ahoan, bera egoeraz ez ohartzeko eta egunero bere aurpegiko dizdira eder hori ez itzaltzeko.

Aldamenean dagoenarentzat prozesua gogorra da, bizitzen jarraitu behar duelako, ezintasunean orduak luzeak direlako. Une batean konturatu ginen plazerrak eta gozamenak baino gehiago lotzen dutela bikote bat gaixotasunak, sufrimenduak eta porrotak.

Heriotza

Heriotza, sakonean, haustura da. Bizi ziren haiek gure ondotik joan egiten dira. Behin betirako urruntzen zaizkigu. Eta guk ezin dugu beraien alde ezer egin. Ezin diegu gure maitasunaren izpi txiki bat gehiago eskaini. Ezin ditugu bizitzaren egun bakar bateko arnasa eta poza ekarri ere ez.

Joseba hil ostean...

Nire egunerokotasuna batzuetan melankoliaz beteta egoten da. Jendeak oso maite nau, ingurune oso politak badituzte, familian eta lagun artean. Neuk ere maite ditut. Hor babesa izan dut, bakarrik ez naiz sentitzen.

Ezkontza

Ezkontza batekin batzutan ematen du ofizialdutako hori baino ez dela, eta ez da hala. Bi pertsonen elkarrekin bizitzeko hartzen duten konpromiso hori, nahi eta nahi ez. Urteetan zehar aurrera jarraitzen baldin badu, momentu desberdinak izaten ditu,

krisialdi handiak ere bai. Baina hogeita bost urte elkarrekin eman ondoren, askotan esaten genuen elkar maite bagenuela, eta sekula baino gehiago. Bidean izan genituen oztopoak, konplikazioak eta zailtasunak, horiek ere onerako izango ziren.

Elkarrekin gozatu eta poz handiz bizi ondoren, erabateko lotura eta leialtasuna lortu genituen. Maitasuna ez da pertsona gazte lirain bati maiteminduta gauzkala esatea, hirurogei urteko bat maite duzula eta berarekin bizi nahi duzula esatea baizik.


Nire egunerotasuna

Irakurtzean, ibiltzera noanean edo soilik ohean nagoenean, milaka oroitzapen etortzen zaizkit, erabateko zailak direnak. Irudiak maitasun sentipen handiekin, maitatzea eta maitatua izatea zein politak diren ohartuz.

Pertsona sinplea, maitagarria, sentibera... garrantzitsuena bidean leialtasuna eta irribarrea mantendu izana da. Negar egitean mundua ezin daiteke gelditu. Nire bihotzari jarraitzen diot, baina ezin dut ahaztu nire oroitzapenean eramatea. Beste aldetik, ezin naiteke oroitzapenekin maitemindu, gauzak ez direlako lehen bezalakoak. Bizitza ezinezkoa izango litzateke gertaera guztiak biziberrituz gero. Gakoak ahaztu nahi ditugun momentuak aukeratzean datza.

Idazlan honetan kontatu nahi izan dut gure bilakaera elkarrekin mundu honetan. Bukatu nuenean izugarri poztu nintzen. Negar piloa egin nuen, eta azkenean behin eta berriz irakurri nuen. Neure buruari galdetzen nion ea zilegia zen horrelako gauzak idaztea idazlan honetan. Zeren nolabait biluztealakoa egin dut eta horrek beti ematen du lotsa neurri batean. Baina esan behar nuela pentsatu dut. Horregatik, lasaitu ez, baina nik uste goxotu nauela pixka bat.

“Txori kantazale ederra
non ote haiz kantatzen?”



Babesleak:

